

# Laugarren Sektorea Euskadin

Koordinazioa: Mikel Zurbano, Garbiñe Henry eta Aitor Urzelai





## *Laugarren Sektorea Euskadin*

**Argitaratzailea:** Innobasque – 2012

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Bizkaiko Teknologi Parkea  
Laida Bidea 203, 48170 Zamudio

**Lege-gordailua:** BI-367/2012



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu–Ez merkataritzarako–Lan eratorririk gabe 3.0 Unported (informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

**Disenua:** Doble Sentido

**Imprimaketa:** Tecnigraf

**Koordinazioa:**

Mikel Zurbano (UPV/EHU),  
Garbiñe Henry (Deustuko Unibertsitatea) eta  
Aitor Urzelai (Mondragon Unibertsitatea)

**Ikertzaile Taldea:**

**UPV/EHU:** Enekoitz Etxezarreta, Alberto Gastón eta  
Juan Carlos Pérez de Mendiguren

**Deustuko Unibertsitatea:** Estibaliz Bárcena

**Mondragon Unibertsitatea:** Julen Iturbe-Ormaetxe,  
Asier López, Iván Marcos eta David Sánchez

<b>0.</b>	<b>Aurkezpena</b>	8
<b>1.</b>	<b>Hitzaurrea</b>	20
<b>2.</b>	<b>Sarrera</b>	38
2.1.	Beharra nola sortu den	39
2.2.	«The Emerging Fourth Sector» Aspen Institute-k landutakoa abiapuntutzat hartuta	40
2.3.	Helburuak	45
2.4.	Mugatzeak	47
2.5.	Dokumentua egituratzea	47
<b>3.</b>	<b>Laugarren Sektorea kontzeptuaren aurrekariak</b>	50
3.1.	Sarrera	51
3.2.	Hirugarren Sektorea	52
3.2.1.	Hirugarren Sektorearen bilakaera historikoa	54
3.2.2.	Ekonomia Soziala	55
3.2.3.	Irabazi-asmorik gabeko Sektorea	61
3.2.4.	Enpresa sozialak	63
3.2.5.	Ekonomia Solidarioa	67
3.3.	Lehen Sektorea	70
3.4.	Bigarren Sektorea	75
3.5.	Aurrekarien laburpen txikia	79
<b>4.</b>	<b>Laugarren Sektorearen zutabeak</b>	80
4.1.	Sarrera	81
4.2.	Erantzukizun Sozial Korporatiboa	82
4.2.1.	Sarrera	82
4.2.2.	Hurbiltzea eta Aurrekariak	83
4.2.3.	Kontzeptua	86
4.2.4.	Zergatik hitz egiten dugu ESKaz edo EESaz?	87
4.2.5.	Ees-arekin zerikusia duten erakundeak, antolaerak eta ekimenak	88
4.2.6.	Nola ezartzen da Erantzukizun Soziala?	94
4.2.7.	Kritikak Erantzukizun Sozial Korporatiboari	99
4.2.8.	Azken ondorioak	100

4.2.9.	Laugarren Sektorerako galderak	
	Erantzukizun Sozialetik	102
4.3.	Ekintzaitza soziala	103
4.3.1.	Sarrera	103
4.3.2.	Ekintzaitza	104
4.3.3.	Ekintzaitza soziala	107
4.3.4.	Berrikuntza soziala	110
4.3.5.	Ekintzaitza soziala Espainian	113
4.3.6.	Ekintzaitza sozialak laugarren sektoreari zuzendutako galderak	115
4.4.	Negozio barne-hartzaileak piramidearen oinarrian	117
4.4.1.	Jatorria	117
4.4.2.	Stuart Hart-en eta C.K. Pralahad-en jardunbideen arteko aldeak	118
4.4.3.	Piramidearen oinarriko merkatuen ezaugarriak	122
4.4.4.	Hiru sektoreen parte-hartzea piramidearen oinarriko negozioetan	123
4.4.5.	Piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileen eskalagarritasuna	125
4.4.6.	Finantza etikoak	127
4.4.7.	Piramidearen oinarritik laugarren sektoreari zuzendutako galderak	128
4.5.	Bidezko merkataritza	129
4.5.1.	Eboluzio historikoa eta definizioa	130
4.5.2.	Bidezko merkataritzako ziurtagiriak	132
4.5.3.	Bidezko merkataritza Espainian eta EAEn. Zenbakiak	134
4.5.4.	Etorkizunera begira EAetik	135
<b>5.</b>	<b>Elkarrizketa eta aztertutako kasuak</b>	<b>138</b>
5.1.	Ohar metodologikoa	139
5.2.	Adituei egindako elkarrizketen ondorioak	143
5.2.1.	Laugarren sektorea, dagoeneko baden errealitate gisa	143
5.2.2.	Laugarren sektoreari buruzko ikuspegi kritikoa	148

6	Laugarren Sektorea Euskadin	AURKIBIDEA	
		5.2.3. Laugarren sektorea kontzeptuaren inguruko mugak	150
		5.3. Aztertutako kasuei buruzko ondorioak	152
		<b>6. Laugarren sektorerantz</b>	158
		6.1. Sarrera	159
		6.2. Turismoa eta bidaia	159
		6.3. Enplegua	165
		6.3.1. Bigarren sektoretik laugarrenera	167
		6.3.2. Lehen/hirugarren sektoretik laugarren sektorera	169
		6.3.3. Ondorioak	172
		6.4. Etxebizitzen alokairua	173
		<b>7. Azken ondorioak</b>	178
		<b>8. Erreferentzia bibliografikoak</b>	184



**Irudien aurkibidea**

1. Irudia. Lehen Sektoreko enpresen joera	42
2. Irudia. Hirugarren Sektoreko enpresen joera	43
3. Irudia. Antolaera-aldakuntzen joerak	44
4. Irudia. Hirugarren Sektorea kontzeptu globaltzaila bezala	53
5. Irudia. Ekonomia Sozialaren Unibertsoa	58
6. Irudia. Enplegu-kopuru orokorrak EAE-ko elkarte kooperatibo eta lanekoetan	60
7. Irudia. Irizpide sozial eta ekonomikoak enpresa sozialetan	64
8. Irudia. Enpresa sozialak bidegurutze bezala	66
9. Irudia. Ekonomia Solidarioaren magnitude nagusiak	70
10. Irudia. Kontratatzeko-errien kopuruaren bilakaera irizpide etikoekin	78
11. Irudia. Ekintzazailtza Sozialaren dimentsioak	106
12. Irudia. Ekintzazailtza Soziala continuum batean	109
13. Irudia. Berrikuntza mota desberdinak	113
14. Irudia. Jarduera ekintzazaila. 2009ko Guztizkoa herrialdetan	114
15. Irudia. Jarduera ekintzazaila sozialaren ehunekoa 2009an Espainian ekimen ekintzazailak dauden urratsaren funtziotan	115
16. Irudia. Piramidearen Oinarriko laborategi-sarearen mapa	120
17. Irudia. Urteko salmenta-bolumena EAEn	135
18. Irudia. Laginaren osaera	140
19. Irudia. Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda (hurrenkera alfabetikoan ordenatutako)	141
20. Irudia. Aztertutako erakundearen zerrenda (hurrenkera alfabetikoan ordenatuak)	142
21. Irudia. Pertsona adituaren iritzien erkatze-taula Laugarren Sektore bat sortzeari buruz	150
22. Irudia. Laugarren Sektoreko atributuak enpresaka	154
23. Irudia. Biztanleriaren langabezia-tasa 16tik 74 urtetara 1998-2010 aldian	166
24. Irudia. Finantzatze-iturriak	169
25. Irudia. Enplegu-zentroaren nortasun juridikoa	172

# 0.

## AURKEZPENA

Lan honek Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziaren eskaerari erantzuten dio «Laugarren Sektorea» (aurrerantzean LS) deritzonaren azterlan bat burutzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Lankidetzaz-esparru zabalago batera irekita geratzen da tarteko diren gainerako erakundeekin azterlan global bat lantzeko, zeinen hazi gisako proposamen hau haren atal garrantzitsuenetako bat baita. Ikerketa-proposamenak erantzuna eman nahi dio «LS» kontzeptuan sakontzeko erakutsitako interesari, lehenik kontzeptua bera zedarrizteko xedearekin, gero bigarren urrats batean LS horren dimentsioa identifikatu eta kuantifikatzeko Euskadiko barrutian.

Gertaera batetik abiatzen gara: LS agertzea gizarte garaikideko gertaera bereizgarri bezala berrikuntza-dinamiken barruan kokatzen dela. Ildo horretatik, proiektua irismen handiagoko azken xede batzuekin lerrotzeko da, eta horiek Innobasquek berrikuntzaren inguruan planteatzen dituen ikuspegitik begiesten ditu.

Helburua garrantzizkoa eta askonahia da. Gizarte berritzaile bat barruti guztietan eraikitzeke ekindako ataza sakontzen ahalegintzen da. Horretarako beharrezkoa da gizarte guztia sentibera bihurtu eta mentalizatzea, hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko berrikuntzak duen garrantziaz.

Kontua da kultura-aldakuntza bat sustatzea, hezkuntza eta prestakuntzarekin, genero-berdintasunarekin, aniztasunarekin, partaidetzarekin, enplegu-kalitatearekin, erakundeen erantzukizun sozialarekin, zahartze aktiboarekin, eta beste balio batzuekin hala nola, sormena, ausardia, arriskuarekiko konpromiso zentzuduna, jakin-mina, alternatiba berri eta hobe batzuen espiritu arakatzailarekin (ekintzaile-espirtua), ahalegin jator batean porrot egiten duenaren balioespen sozialarekin –adibidez– loturiko berrikuntzak sustatuko dituen. Berrikuntza fenomeno sozial bat da, **pertsonak, erakundeak eta gizartea oro har** bere baitan hartzen dituen. Pertsona(k) dira (da) Innobasque proiektuaren ardatz nagusia.

Hala, bada, proposamenak kontuan dauka Innobasquek proposaturiko esparrua eta gaur LSa lau «Eraldatze Dinamiketako» batean (edo jarduera-lerro estrategikoetako batean) gauzatzen

dena. «Inpaktu handiko ekimen» horren atal bezala proiektu honek lagundu egin nahi du detektatzen zein eragilek eratzten duten sektore hori EA Eren barrutian.

Horretarako, **Euskal Herriko Unibertsitateak** (*Zuzenbide Kooperatibo eta Ekonomia Sozialeko –GEZKI– Institutuarekin, HEGOA Institutuko ikertzaileekiko lankidetzan*), **Deustuko Unibertsitatea** (*Deustu Fundazioko Deustu Berrikuntza Sozialarekin – DBS-*) eta **Mondragon Unibertsitatea** (*MIK- Mondragon Ikerketa Kudeaketan-*), lanean ari dira ondoren zehaztuko dugun ikerketa-proiektuan, eta non ekingo zaion kontzeptu berritzaile hori sortzen duen testuinguruari, eta kontzeptu kideko horiei, zeinetatik gorputza hartzen duen kontzeptu berri horrek.

### Helburuak

Burutu nahi duen proiektuaren helburu nagusia ahalik eta zorroztasun akademiko handienarekin LS deituaren alderdi zentralak mugatzea da, hura agertzea eta azaleratzea testuinguruan kokatuz abagune sozio-ekonomiko zehatz baten barruan eta kontzeptu sail batekin harremanetan jarriz, zeinak haren aurrekaritzat kontsidera baitaitezke ere, ñabardura garrantzitsuak finkatzen dituztela kontsideratuko dugu haiek kontzeptu kideko baina desberdin bezala bereiztera garamatzatenak.

### Oinarrizko bi ideia:

1.- Lan honen helburua ez da LSaren definizio argi bat ezartzea ez eta haren baitako izango liratekeen Euskadiko erakundeen katalogo bat sortzea ere, askoz gutxiago hurbiltze kuantitatibo bat egitea (gaia oraindik berriegia da horrelako zerbait egin nahi izateko). Berak nahi duena zera da, LSa testuinguruan kokatzen lagunduko luketen elementu teoriko eta praktikoa batzuen ekarpena egitea, helburu hirukoitz batekin: i) lehen urrats bat egiten ahalegintzea, kontzeptu berri bat proposatzeak berekin dakartzan zailtasun kontzeptual eta metodologikoak gainditzeko; ii) debate-gune berri bat ireki kontzeptu berri horrekiko pertsona eta erakunde zenbaiten duten jarrera jasoko duena; iii) auzien gida bat proposatu, zeinek Innobasquek bere aldetik aurrerantzean bultzatu nahi duen debaterako orientabide bezala balio lezaketen.

2.- Lan-esparru bat ezarri Euskadirentzat. Gure iritziz, kontzeptu horrek har litzakeen era posibleak, hau da, kontrastatzen saiatu garen LSri buruzko hautabideko hipotesiak hiru izango lirateke, LSa honela ulertuz:

- Logika propioa duen gune berri batetik, figura juridiko eta antolaketakoak ere sor ditzakeena (LSaren lege- eta enpresa-egiturak).
- Dagoeneko badiren beste egun batzuen ordeztako bezala dinamika berri batez haiek hornituz ( horrek sor ditzakeen gatazkekin).
- Bateratze- eta debate-gune bezala Euskadin presente dauden praktikak batuko dituen eta hiru sektore klasikoetatik datozen praktika kolektiboak esperimentatzeko leku bat eskainiko duena.

Azken hiru elementu horiek izan beharko luketela uste dugu ekarpen-oinarria lan honetan, aukera horiek deskribatuz, horien abantailak eta eragozpenak esploratuz eta gero egindako elkarrizketen errealitatearekin eta aztertu diren enpresen kasu-adibideekin kontrastatuz. Ondorioen proposamenak ere hipotesi hirukoitz horretan oinarritu beharko luke eta haietako zeinetan azkenik kokatu beharko lukeen ikusi beharko litzateke.

Aurreko puntuan komentatutakoa kontuan hartuz, proiektu horretarako planteatzen diren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- EAeko gaurko testuingurua deskribatzea LSa osatzen duten eragileen ondorengo inbentarioari zentzua emateko. Hau barne-hartzen du:
  - o Herrialdeko ekonomia (zentzu zabalean) osatzen duten lehiakortasun-elementuak deskribatzea.
  - o Ekonomia berriarekin harremanak dituen eskabide sozialetako bilakaera deskribatzea, sentiberagoa baita jasangarritasun-aspektuen eta izaera sozialeko helburuak integratzearen aurrean.
  - o LSa testuinguruan kokatzea EAeko lurraldearen espezifikotasunarekiko.
- LSaren diagnosi kuantitatibo bat egitea EAEn, gure

lurraldeko gaurko ekonomian dituen dimentsioa eta pisu erlatiboa erakutsiko dituena. Kontuan harturik zer zailtasun duen ez bakarrik LSeko erakundeak zehazteak, baizik eta LAak erakunde horien barruan dituen jarduera konkretuak ere, mapeatzearen metodologia berezi bat proposatuko da sektorea bere osotasunean bistartzeko.

- Diagnosi kualitatibo bat egitea sektoreko eragile adierazgarriei egindako elkarrizketen bitartez eta hura globalki ulertzen laguntzea. Arreta berezia eskainiko zaio sektorearen ezaugarri bezala identifikatu diren elementuen deskribapenari, analizatutako entitate desberdinetan nola integratzen diren deskribatzeko.

### Metodologia

Kontzeptua definitu eta zedarritzeko lan horri ekiteko, egin beharreko ataza nagusia nazioartean erlasionaturiko literatura berrikustea da, batez ere jatorri anglosaxoiko literaturari kontu eginez; hori iparramerikar eta britainiar unibertsitateetan eta *think tank*-etan kokatuko genuke hala nola, Aspen Institute, Schwab Foundation for Social Entrepreneurship edo Erresuma Batuko Oxford Unibertsitateko Skoll Centre for Social Entrepreneurship-en, izan ere kontzeptuaren «jatorrizko lekutzat» jo litezke.

Hala eta guztiz ere, uste dugu kontzeptuaren beraren azterlan agortzailea aski eza izango litzatekeela uste dugu bere horretan, haren sorrera eta azaleratzea testuinguruan kokatzea lortu ezik, testuinguru sozio-ekonomiko zehatz batean aurrekariak finkatuz joan diren beste kontzeptu batzuekiko harremanean, eta hitz batean, proposamen berri hori eraikitzeko tresna analitikoak hornituz ez bada.

Horretarako, ikuspegi orokor bat eman ahal izateko ezinbestekoa izango litzateke kontzeptu hori testuinguruan kokatzea beste alde batzuekin harremanetan jarriz hala nola:

- i) LSaren harremana beste kontzeptu kideko batzuekin, batez ere etekinen maximizatzearekin eta kapitalaren saritzearekin bakarrik arautzen ez diren ekimen sozio-ekonomikoak aztertzen saiatzen direnak nagusiki, baizik eta izaera sozialeko helburuak eransten saiatzen direnak beren jardueraren

lehenasunezko helburu bezala. Zehatz esateko, «Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak», «Ekonomia Sozialaren» barrutiaz edo izaera berritzaileko arestiko esperientzia kontzeptuez ari gara, zeinak kokatzen baitira «Ekintzailletza Soziala», «Enpresa Sozialak» edo «Ekonomia Solidarioko» ekimen deituko ditugunen barruan.

- ii) Horiek inspirazio-iturri nagusiak izanik, Hirugarren Sektore bezala era zabalean deitzen den horri atxikirik batik bat, halaber komenigarritzat jotzen da gainerako bi erakunde-sektoreetan hesituriko esperientziak eta ekimenak sartzea ere, irakur bedi, merkataritza-sektore pribatuan (lehen sektorea) eta sektore publikoan (bigarren sektorea). Aipaturiko hiru sektore horien arteko bateratze-guneetatik sortzen da LSa deitua, eta horregatik komenigarritzat jotzen da «Enpresa Erantzukizun Sozialarekin» zerikusia duten aspektuak ere aztertzea, eta sektore publikotik abian jarritako esperientzia desberdinak, zeinek enpresa-munduarenak areago diren ekintzailletza- eta berrikuntza-logikaz funtzionatuz izaera sozialeko helburuak lortzeko asmoa baitute era berean.

Proiektu honetan erabili ditugun kontzeptuen definizioari atxikirik dauden zailtasun kontzeptual eta operatiboak erreferentziatzen harturik, dagozkien literatura akademikoan zabalkiro aztertuak izan direnak, proposatzen den berrikuste kontzeptuala LSaren definizio operatibo bat finkatzen eta ibilbide bat proposatzen saiatuko da, kontzeptuen eta hurbileko errealitateetan zehar, helburu bikoitzarekin: i) zein puntutan izan daitezkeen bateragarriak landuko ditugun kontzeptu desberdinak identifikatzea, eta aldi berean: ii) haietako bakoitzaren mugak eta hesiak esploratzea LSa proposamen desberdindu baina gainerako kontzeptu guztietatik ez bakartu bezala ulertu ahal izateko.

Aurreko puntuan adierazitako hiru helburuetarako metodologia bereziak proposatzen dira, ondoren aipatzen den modura.

### **EAEko gaur eguneko testuingurua deskribatzeko metodologia**

- Mota desberdinetako dokumentazioa berrikustea, nola izaera akademikokoa hala bestelakoa.
- Pertsonalitate jakin batzuei egindako elkarrizketak
- Iturri fidagarrietatik datozen datu estatistikoen analisia
- Lan-bilkurak ikuspuntuak bateratzeko
- Lankidetzeta-ofimatikako euskarria

### **Ikerkuntza kuantitatiborako metodologia**

- Jaso beharreko informazioa definitu eta hura bloke homogeneotan antolatzea
- Datuak jasotzeko euskarriak lantzea.
- Tratamendu estatistikoa, jasotako datuen arabera
- Laneko bilkurak ikuspuntuak bateratzeko.
- Lankidetzeta-ofimatikako euskarria txostena idazteko.
- 

### **Ikerkuntza kualitatiborako metodologia**

- Jaso beharreko informazioa definitu eta hura bloke homogeneotan antolatzea: elkarrizketen gida
- Datuak jasotzeko euskarriak lantzea
- Elkarrizketatu beharreko pertsonen eta erakundeen lagina definitzea
- Elkarrizketa erdi egituratuak eta haien dokumentazioa burutzea
- Laneko bilkurak ikuspuntuak bateratzeko
- Lankidetzeta-ofimatikako euskarria txostena idazteko

Proiektu guztia lan erkideko barruti batez hornitzeko lankidetzako plataforma bat sortuko da web euskarriarekin, proiekturako sarbidea ahalbidetuko duena, hura burutuz doan neurrian. Hartara hobeto birbideratu ahal izango da haren ibilbidean gerta litekeen edozein gorabehera.

### **Azken ondorioak**

Argi eta garbi geratu dela uste dugu jatorri eta ibilbide desberdineko hiru ikerkuntza-talderen baterako lana delarik, lanean agertzen



diren LSarekiko kokamendu desberdinak ere birsortzen direla haren baitan. Denok ez dugula gauza bera pentsatzen jakinik LSa denaz edo ez denaz edo izan litekeenaz, kontua litzateke denok geure egiteko moduko «gutxieneko izendatzaile komunen» testu bat idazten saiatzea. Horregatik proposatzen dizuegu ondorioen lehen zirriborro bat, eta atsegin genuke zuek irakurri eta denon artean bateratzea.

«LS» hasiberritan dagoen kontzeptua da eta oraindik garapen kontzeptual eta enpiriko aski urria duena, nola nazioartean hala erregio- eta toki-mailan. Ikuspuntu kontzeptualetik hura oinarritzea erakundeak protagonista dituzten dinamika (igarotzeak) multzo batzuk identifikatzean datza, zeinak ekonomiaren hiru sektore klasikoetakoren batean kokatzetik leku mugakideren batera baitoaz sektore bakoitzak dituen esku-hartzearen logikak, antolaketa-ereduak, negozio-ereduak edo kudeaketa-estiloak hibridatuz. Dinamika horiek birbideratze ekonomiko eta erakundezko baten testuinguruan gertatzen dira, non estatuak, gizarteak eta enpresek beren funtzioak eta jarduera-barrutiak birdefinitzen dituzten beti maila globalean eta tokikoan aldatzen ari den errealitate ekonomiko berrira egokitze funtzionaleko prozesu batean.

Haren identifikazioan honako kontakizun hauetakoren batzuk agertzen dira: «emaitza-kontudun gizarte-erakundeen» irudia, hau da, merkatuan baliozkotzen den balio ekonomiko eta soziala sortzen dutela; enpresa tradizionalak nahiz sozialak dituztenak eta honako enpresa bezala identifikatzen direnak: »ESK klasikoaz harago doazenak bezala» edo «inpaktu sozial eta ingurumeneko baikorraren ikuspuntutik negozioa egiteko era berriak» dituztenak bezala, eta barruti publikoko erakunde bezala, zeinak ahalegintzen baitira «pertsonek behar berezietara bideratuago egotera» edo hiritarraren partaidetzaren eta inplikazioaren aldetik berrikuntza egin nahi dutenak bezala «zerbitzu publikoak sor-kidetzen, merkatu-metodoak erabiliz.»

Ikuspuntu enpirikotik, LSari buruzko ikerkuntza oraindik oso mugaturik dago «LS» baten osagai bezala identifika litezkeen haietako sektore bakoitzak bere baitan dituen dinamika propioak bereizteko zailtasunarengatik. Hartara, «LS»aren argigarri

bezala identifikatzen diren adibideak bai toki-mailan, edo nazio-mailan edo nazioarte-mailan, beste azterlan batzuetan «Enpresa Sozial», «Ekonomia Sozial», «Ekonomia Solidario» edo «Sektore Publikoko Berrikuntza Sozial» bezala identifikatzen denaren dinamika propioak argitzen dituzten adibideak dira. Formulazio kontzeptual desberdinetarako kasu beren erabilera gurutzatu horrek debatearen aberastasunari laguntzen dio, bai eta nahasmenduari ere aztergai akademikoko eta/edo esku-hartze sozialeko proposamenak identifikatu eta eraikitzerakoan.

Azterlan honetako sail desberdinetan aurkezten direnez, baina batez ere burututako landa-lanari dagokionean, aurreko dinamikak argi eta garbi islatzen dira Euskadiren kasuan bai haren alderdi kontzeptual argituan «LS»aren terminoaz egiten den erabilera urrian mundu akademikoan edo halakotzat sailka litezkeen ekimenetako pertsona protagonisten artean; bai eta adibide zehatzen eremuan aztergai kasuen zerrenda batera iristerakoan, zeinek ez bailituzkete gehiegi islatuko Ekonomia Sozial eta Solidarioei edo Enpresa Sozialei buruzko azterlan batean sartuko liratekeenak.

Azterlan honetarako markaturiko helburuen ikuspuntutik honako hau ondorioztatzea bidezkoa litzateke hau: auziaren egoera eta Euskadiren kasurako aztertutako iritziak diren bezalakoak direlarik, «LS»aren ideia gure testuinguru propioan egokiagotzat ulertzen dena praktikak elkartzen dituen bateratze-eta debate-gune batekin identifikatuko lukeena dela, eta hiru sektore klasikoetatik datozen dinamika kolektiboak esperimentatu eta topatzeko leku bat ematen duena. Hau da, iradokigarriagoa eta egokiagoa dela konstatatzen dugu aztertutako eragileen eta erakundeen gaurko ibilbideekiko eta errealtatearekiko azterlan honetan abiapuntuko hipotesietan hirugarrena.

Hipotesi hau eta azterlanean egindako ekarpeneko gogoeten produktua sakonduz, «bateratze-gune» hori honako elementuez ezaugarritu ahal izango litzateke gainera:

1. *Kolektiboki bateratu eta lan egiteko gogoak elkartuko duen gunea:* Nahiz eta printzipioz tautologia bat dirudien, komenigarria da adieraztea «LS»ak Euskadin soilik izango duela zentzu erreala (eta horregatik hartan pentsatzea mereziko du)

kolektiboki lan egiteko, helburuak, ahaleginak eta estrategiak partekatzeko asmoa duten aktoreak dauden neurrian. Hau da, sare trinko eta esanguratsua beharko da aktore sozial eta ekonomikoen logika horretan lan eginez eta horrek topatze-eta lankidetzaz-prozesuak aktibatzea orain arte ia existitzen ez zirenak.

2. Gune «*ez diluitzailea*»: «LS»ko guneak identitateak diluitzen ez dituen bateratze batean oinarritzen den neurrian soilik izango du zentzia. Ikuspuntu horretatik «LS»ak ez du adieraziko aktoreen esperientzia eta historia narratiba berri bat bezala berridazteko beharrik. Areago, haren potentzialtasuna osatzen duten erakundeen identitate partikularrak bistaratu eta indartzeko gune horrek duen gaitasunaren mendean egon daiteke, neurri handi batean.
3. *Esku-hartze eraldatzaileko gunea*: «LS»ak topatze-gune bat proposatuko du izaera eraldatzaileko dinamika ahalbidetuko dituen. Hartara ardatz egituratzailea dinamika partekatua sortzeko izango da, zeinek erraztuko baitute gizarte bidezko eta solidarioago baterako eraldaketa gaurko belaunaldiarekiko eta datozen belaunaldiekiko, bai eta planetako gainerako izaki bizidun guztiekiko ere. Ildo horretatik, «LS»ak Euskadin ez luke zentzu gehiegirik baldin eta praktika partikularren edo esku-hartzearen eredu gune legitimatzaile akritiko bihurtuko balitz, zeinak ez baitira nahikoa legitimitate sozial (edo komertzial) sortzeko gai beren kabuz.
4. *Gune intrintsekoki gatazkatsua*: Aurreko ezaugarriarekiko harremanean, eta «LS»ak dinamika eraldatzaileak erraztu nahi dituen heinean, gatazkari aurre egin beharko dio bere barruan eta, horregatik, ikuspuntu komun bat sortzea erraztu beharko du eraldatu nahi den hartaz eta norantz ibili nahi duen. Ikuspuntu horretatik «LS»a ez litzateke kudeatu beharko adostasun fikziozkoetan oinarritutako gune bat bezala baizik eta desadostasunei buruzko debate publikoak sortzean.
5. *Partaidetzara eta gardentasunera irekitako gune bat*: «LS»a bateratze-gune bat bezalakoa da, eta aurreko elementuekiko adostasunean, partaidetzara irekitako gune publiko bat litzateke, bai eta iritzira eta gardentasun-maila handia duten

proiektu komuneren gain ere, haien logikaren gain eta balioa eta baliagarritasun soziala sortu eta banatzeko eraren gain ere.

Hemen aurkeztutako ezaugarriak eztabaidara irekita daude eta «LS»ak Euskadin zentzu kontzeptuala eta baliagarritasun praktikoa izango duten ideiatik jariatzen dira balio bereizgarri baten ekarpena egiten duen eta edukiz hutsik dagoen (aktore interesatuen gabeziak) kontzeptu berri baten sortzaile bihurtzen ez den neurrian, edo dagoeneko erroturik dauden terminoen amalgama hutsa, ibilbide historiko zabalekin eta praktika sendotuekin.

Balio bereizgarriko ekarpen orok, zeina asko den, halako «bateratze-gune» bat eraikitzeke ekarpena egin beharko du eta, horrekin, Laugarren Sektorea sustatu eta garatzeko Partzuergoa abian jartzeko.



# 1.

## HITZAURREA

PABLO ANGULO

*Innobasqueren Laugarren Sektorerako Dinamikaren arduraduna*

### Laugarren sektorea

Pobrezia, injustizia, bizikidetzaz arazoak eta bestelako kulturak dituzten taldeen bazterketa eta gehiegikeriak nagusi direneko mundu-mailako panoramaren eboluzioari lotutako hainbat aurrekari ditugu. Horrekin batera, kontzientzia sozial berria sortzen ari da (balore berriak, ingurumena, ongizate soziala, aurrerapen orekatua), baina ez Estatuak, ez merkatuak, ez hirugarren sektoreak ezin diote egoera berriari nor bere kasa erantzun eta, hortaz, estrategia berriak bilatu eta probatu behar dira.

Testuinguru horretan, baliabideen produktibitatea egun baino azkarrago handitu beharra dago, hazkunde ekonomikoko eredu jasangarri eta solidarioa bermatzearekin batera.

Egoera kaskarrean bizi diren pertsonen bizi-maila areagotzen laguntzen duten ondasun eta zerbitzu merke eta kritikoak eskaini dezaketen erakunde jasangarri eta eskalagarriak eratzeko gai diren enpresak lortu edota abian jartzeko asmoz, laugarren sektorea sortu da testuinguru horretan, sektore publikoko, merkatuko eta hirugarren sektoreko erakunde hibridoak bilduta.

Erronkaren garrantzia ikusita, euskal gizarte osoak berehalako erantzuna eskatzen du. Ongizate-estatuaren jasangarritasunean oinarritutako estrategia bat behar da, etorkizunerako bermea dena, baliabideen produktibitatea areagotzen duena eta etorkizuneko arriskuak ezabatzen duena, euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetu eta enplegua sortzearekin batera.

Hala, berrikuntza herri-mailan balioa sortzea dela ongien eta modu koherenteenean ulertzen duen esparru hibrido –sektore publikoen, pribatuen eta hirugarren sektorearen artekoa– gisa ulertzen dugu laugarren sektorea. Krisiari erantzun irmoak eta, aldi berean, eraldatzaileak eman behar dizkio laugarren sektore horrek, eta gai izan behar du aberastasuna sortzeko eta modu justuan banatzeko, eta hori modu jasangarrian egin behar du, gainditu behar ditugun erronka sozial konplexuak konpontzeko. Gaur egun, berrikuntza sozialaren baitan sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren arteko mugak lausotzen dituzten hibridoak sortzen ari dira. Laugarren sektore honek negozioetako

jardunbideak erabiltzen ditu, baina xede sozial batera aplikatuta. Gizarteko erronka handiei aurre egiteko, hiru sektore tradizionalak ezaugarriak eta estrategiak uztartzen dituzten negozio-eredu «hibridoak» erabiltzen ditu sektore horrek.

Gurea bezalako ziurgabetasun-garaiotan jasangarritasuna (soziala, ingurumenarena eta ekonomikoa) etorkizunerako bermea eta baldintza dira. Gainera, hiru zutabetan oinarritutako trantsizio bat gertatzen ari da eta, horri jarraiki, enpresek ezin dute interes-taldekiko konpromiso sendoa baztertu, gobernuek ekimen pribatuaren laguntza eta parte-hartze handiagoa behar dute eta irabazi-asmorik gabeko antolakundeek ez dute diru-ekarpenen beharra bizirik iraun ahal izateko.

Laugarren sektorearen eraldatze-dinamikaren bidez eredu, balio, ideia, ekimen eta negozio berritzaileak aztertu, sustatu eta garatu nahi dira modu arin eta praktikoa, egungo eta etorkizuneko erronka sozialei aurre egiteko asmoz, eta ekimen horien guztien bidez garapen lokal sozial eta ekonomikoa lortu nahi da, gizarteari ingurumen-aldetik jasangarria zaion moduan, gizarte irekiagoa, solidarioagoa, berritzaileagoa eta jasangarriagoa sustatuz.

Egoera ekonomikoaren gaineko ikuspegi zabala izan behar dugu, erronka eta mehatxu garrantzitsuenak argi izanik. Eta ikusi behar dugu mehatxuz beteta omen datorkigun amildegi horretan zer den egiazkoa eta zer ikuspegi interesatua. Saihestu beharreko jarrerak eta diskurtsoak argitu behar ditugu, halaber. Laugarren sektoreak ekintza positibo, gauzagarri, jasangarri eta konstruktiboak garatu nahi ditu, hots, ekintza solidarioak.

Sektore hori osatzen duten erakundeak era askotako helburu sozialak lortzeko eratutako irabazi-asmoko (ingelesez *for benefits*) erakundeak dira. Irabazi-asmoko erakundeak izanik, kontsumitzaileen bizi-maila hobetzen duten produktu eta zerbitzu sorta zabala eskaintzen dute, lanpostuak sortzen dituzte eta ekonomia garatzen laguntzen dute.

Irabazi-asmoko erakundeek interes-talde guztientzat ahalik eta onura gehien ateratzea bilatzen dute eta jasotako «irabazi» guztiak beren helburu sozialak sustatzeko inbertitzen dituzte. Egitura aldetik, erakunde berri hauek bestelako antolakuntza-



ereduen ezaugarri onenak izan ditzakete. Antolakuntza-eredu berri honek hainbat erronkari egin behar dio aurre. Laugarren sektoreko erakundeen eta interes-taldeen arteko lan egituratua ahalbidetzen duten sare integratzaileak eratzea da erronka horietako bat, hori funtsezkoa baita banaka duten inpaktua areagotu eta inpaktu globala lortzen duten enpresa sozial handiak bilakatzeko.

Zerbitzu sozialak ematera bideratutako enpresa-ekimen berriak sustatu behar dira. Halakoek eskari handia duten eta Administrazio publikoak etorkizunean beharbada behar bezala artatzen ez dituen beharrak –mendekotasuna duten pertsonen zaintza, etorkinak, garapenerako lankidetzak, etab.– ase ditzakete, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak estuaren bidez.

Innobasquetik elkartzeko, azterketak egiteko eta giza garapen jasangarrira bideratutako ideia, ekimen eta negozio berriak etengabe sortzeko topalekua eskaini nahi dugu. Guztia ere EAEko nahiz munduko beste sare batzuekin elkarlanean jardunez. Eragin dituen eraldaketak direla eta, topaleku hori gure herrian eta nazioartean ezagutua izan dadin nahi dugu. Hizpide ditugun negozio-ereduen ibilbidearen gaineko ebaluazioak duen estandarizazio urria gaitzen saiatu behar dugu oraingoz, ez baitako adostasunik oraindik negozio horien eraginkortasuna baloratzeko eta haien inpaktua neurtzeko erabili beharreko neurketen inguruan.

Innobasqueren arlo guztietan dauden ekintza batzuk sinergikoki multzokatzen hasi behar dugu. Hona hemen dagoeneko martxan diren ekintza horiek jorratzen dituzten esparruak: enpresa sozialen (eta ekintzaileen) jabekuntza, enpresen eraldaketa EESren bidez, nazioartekotzea piramidearen oinarriko negozioen hedapenaren bidez, inbertsioak finantza-tresna koherenteak erabiliz, ekintzaileen komunitatea...

Laugarren Sektorearen Partzuergoaren sorrera aprobetxatuz kaleratu dugu argitalpen hau. Partzuergo horretan Innobasqueko bazkideen plataforman parte hartzen duten enpresa-eragileek, zientzia eta teknologiako eragileek eta eragile politiko eta sozialek osatzen dute.

Partzuergo hori honako alorretan espezializatutako komunitatea izango da:

- lehentasunezkotzat jotzen diren jasangarritasun eta berrikuntzari buruzko ezagutza, eztabaida, gogoeta eta ekintzarako estrategien proposamena,
- interes-taldeen dinamikarekin eta nazioarteko dimentsioarekin,
- etengabeko hartu-emana bilatzen duena enpresen, zuzendaritzako kideen, sektore publikoaren, hirugarren sektorearen, unibertsitate-mundu akademiko eta zientifikoaren eta gizarte zibil antolatuaren artean, eta
- independentzia, zorrotasuna eta bikaintasuna eta gizartearekiko konpromisoa baloretzat dituen.

Epe ertain eta luzera eraginkorrak izango diren neurriak proposatzeko asmoz eratu da Partzuergoa. Horretarako akordioak lortu nahi dira eragile sozioekonomiko publiko (maila guztiak sartzen dira hemen: udalak, eskualdeak, estatuak eta nazioartea) eta pribatuen (unibertsitatea, ikerkuntza-mundua eta enpresa-sektoreak sartzen dira hemen) artean, eta gizarteko taldeekin.

Innobasqueren laugarren sektoreko dinamikaren bidez, kritika konstruktiboa egiteko aukera izango dute kolektibo horiek, eta haien ikuspegia aintzakotzat hartuko da. Dinamika hori egituratzen duten hiru lan-taldeek –enpresen erantzukizun soziala (EES), ekintzailtza soziala eta nazioarteko esparrua, piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileen eta «finantza sozialen» bidez– zehazten dituzten neurriak martxan jartzeko ardura partekatuko dute eta modu eraginkorrean garatzen lagundu beharko dute.

Horretarako, ekimena aurkeztu aurretik, osoko bilkura batzuk egin ditu kontraste-taldeak, dinamikak orain arte garatutako jarduera-ildoen jarraipena eta aholkularitza egiteko eta etorkizunean jorratu beharreko jarduera-ildoak kontrastatzeko.

### **Europa**

Europar Batasunaren Aldaketa eta Berrikuntza Sozialerako Programari (ABSP) buruzko inkesta bat erantzun dugu berriki.

Eskualdeetako Lantaldearen (EL) Irizpena eta lantalde horren Europa 2020ren jarraipenari buruzko 3. Txostena osatzeko egindako inkesta bat zen.

ABSP programa enplegua eta politika sozialak bultzatzeko tresnagisa aurkeztu dute, Batzordeak 2014-2020aldian EBn bultzatu nahi dituen politika erregional eta sozialak eta lan-politikak biltzen dituen proposamenaren barruan. Lehendik dauden hiru programa uztartu ditu ABSPek: Progress (enplegurako eta elkartasun sozialerako programa), EURES (Europako enplegu-zerbitzuak) eta Progressi lotutako mikrofinantziarioko europar tresna. Programa hauen estaldura handitu egin da, bide batez, eta, horri esker, Batzordeak koherentzia politikoa izango du eta bere tresnen eragina areagotu egingo du, Europa 2020 Estrategian lagunduz.

ABSPek politikak koordinatzea, jardunbide egokiak bateratzea, gaitasunak garatzea eta politika berritzaileak probatzea ahalbidetuko du, Europako Gizarte Funtzaren babesarekin arrakastarik handiena izan duten neurriak bultzatzeko helburuz.

Baina aipatu ditugun hiru ardatzak ez dira aski, gure ustez. Krisia (ekonomiko globala, nahiz Europa mailako krisi instituzionala) herritar guztiak kezkatzen dituen gaia izanik, egungo programa publikoak «birpentsatzeko» aukera historikoa daukagu orain, gure gizartea hobetzen laguntzeko enpleguaren, gizartratzearen eta babes sozialaren, lan-baldintzen, ez-diskriminazioaren eta genero-berdintasunaren bitartez.

Inork ez du ukatzen Europa-mailako ikuspegi komuna finkatzeko beharra eta ikuspegi hori denon artean zehaztea inoiz baino premiazkoa gertatzen da gaur egun. Horretarako, berrikuntza sozialaren eta lankidetzaren printzipioak hartu behar dira oinarritzat, azken horrek kohesio soziala ere ekarriko baitu.

Egungo programen (Progress eta Eures) ardatzak beharrezkoak dira, baina urriegiak dira eta isolatuta daude. Hori ikusita, eskertzekoa da hirugarren ardatza (mikrofinantziarioa eta ekimen soziala) aintzakotzat hartzea, erabakitzen diren neurriek eragin sakonagoa izatearekin batera denboran zehar luzatu ahal izan daitezen.

Era berean, ekonomia eta enpresa txiki eta ertainak nazioartera zabaltzeko modua birpentsatu behar da, negozio barne-hartzaileak eta piramidearen oinarriko ekintzak erreferentzia garrantzitsuak izan daitezen. Gero eta nabarmenago ikusten da Europa bere osotasunean (herrialde garatuak eta ez hain garatuak) hartzen duten gobernantza-ereduen beharra. Globalizazioa aztertzeke garaian, ezin diegu berrikuntzari eta ezagutzari lotutako dinamika ekonomikoetan oinarritutako herrialde garatu eta aberatsei bakarrik begiratu, «diruz laguntzen» ditugun beste herrialde pobregao eta gutxiago garatuak aintzat hartu gabe, izan ere, herrialde horietara lekualdatzen dugu gure ekoizpena hemengo kostuak merkatzeke eta hara eramaten ditugu gure hondakinak eta kutsadura. Azken horrek alderantzizko immigrazio-fluxuak eragiten ditu lan-eskaintzaren ondorioz, eta halakoak bultzatzen jarraitu beharra dago.

Pertsonetan oinarritutako berrikuntzari buruzko politika publikoak aplikatzeko prozesuak, metodologiak eta aplikazioa bera hobetzeak izan beharko luke helburu orokorra.

Europako Agenda Sozialaren helburuak eta Europar Batasunaren Aldaketa eta Berrikuntza Sozialerako Programa berria osatzen duten hiru tresnak gogoan izan arren, iruditzen zaigu ez direla aski. Adibide gisa, beste tresna hauek proposatzen ditugu:

*Ekintzailtza Sozialerako Europar Funtsaren adierazgarria.* Europar Batzordeak erregelamendu-proposamen bat aurkeztu du «Ekintzailtza Sozialerako Europar Funtsaren» adierazgarria sortzeko. Enpresa sozialei zuzendutako inbertsio-tresna bat sortu nahi da horrekin.

Bruselaren arabera, inbertsio sozialean espezializatutako funtsak oso gutxi dira, eta daudenak, gainera, ez dira behar bezain handiak. EBren proposamen honekin Europa-mailako inbertsio sozialerako funtsen merkatuaren oinarriak finkatu dira eta adierazgarri bat aurkeztu dute, inbestitzaileek erraz identifikatu ahal izan ditzaten Europako enpresa sozialetan inbertitzen duten funtsak.

Proposamenean zehaztutako betebeharrak betetakoan, beren funtsak Europa osoan merkaturatzen hasi ahalko dute inbertsio-

funtsen kudeatzaileek. Adierazgarria lortzeko, inbertsioen ehuneko handi bat (inbestitzaileek jasotako kapitalaren %70) enpresa sozialei laguntzera bideratzen dela frogatu beharko da.

Era berean, nabarmentzen da datuen argitalpenari buruzko arau uniformeak onartzea garrantzitsua dela, inbestitzaileek inbertsio hauei buruzko informazio argi eta eraginkorra eskuratzen dutela bermatzeko. Proposamena Europako Parlamentuari eta Kontseiluari bidali zaie orain, han negoziatu eta, elkarrekin erabakitzeko prozedurari jarraiki, onartua izan dadin.

Ikuspegi mugatua edo erredukzionista izan daiteke hiru tresna horietan bakarrik zentratzea. Orain arteko aipatutako neurriak osatzeko, gogoeta-prozesu irekia bultzatu liteke Europako estatu eta eskualde guztien artean gaur egungo gizartea eraldatzeko beharrari buruz, Europa Komun baterako proposamen zehatzak plazaratzeko denon artean.

Orain arte koordinaziorik gabe lantzen ari diren zenbait gai ikusgarri bihurtu eta «agendan sartzea» litzateke horrek ekarriko lukeen balio erantsia. Tresna nagusiekin sinergikoki jarduteko ezintasunetik datoz arazoak eta oztopoak, bakoitza bere aldetik eta bere sektorean lan egiteko joera baita nagusi oraindik.

Proposamenak aurkezteko partzuergoak oso handiak dira eta horrek oztopatu egiten du programako bost esparruak (enplegua, gizarteratzea eta babes soziala, lan-baldintzak, diskriminaziorik eza eta genero-berdintasuna) biltzen dituen ekintza-plan integral bat diseinatu ahal izatea.

Lurraldearen zeregina funtsezkoa da, eta erabakigarria. Subsidiarioritasun-printzipioa (eskubidea) bete-betean gauzatu behar dugu, ekintzak behar besteko malgutasunez probatzeko eta emaitzak saiatzeko aukera ematen duten laborategiak direlako eskala-maila horretan.

Helburua ez da jarduera batzuk bikoiztea edo Europako sare soziala osatzen duten erakunde, administrazio eta gobernuek esparru honetan egindako lana ordezkatzea, baizik eta Europako errealitate bakoitzaren ikuspegi partikularra (bere berezitasun guztiekin) biltzea plataforma zentrolean. Ildo horretan, subsidiarioritasun-printzipioa bermatuz egindako berrikuntza soziala funtsezkoa dugu hemen.

Esperimentazio soziala (berrikuntza soziala bihurtzeko helburuarekin egina) gure egungo gizartearen behar eta erronkei erantzuteko moduan egin beharko da. Erronka horiek abiada bizioan aldatzen ari dira egun batetik bestera, eta etengabe eguneratu beharra eskatzen dute. Horretarako, herri eta eskualde bakoitzeko beharrak jaso beharko dira (kontsultak oso garrantzitsuak dira hemen), EBko politikak elikatu eta jardueraildo egokiak itzultzeko udal- eta eskualde-mailako eragileei, haien beharrei lotutako balio erantsi garbiarekin. Neurri horiek, berriz, subsidiariorotasun-printzipioa bermatzen eta berrelikatzen lagunduko lukete.

Oso garrantzitsua da lurraldeari lotutako dimentsio oso nabarmena izatea ABSPk, eta, horretarako, «garrantzizko ekintza» bat garatu beharko da, esparru publiko-pribatuaren arteko itunean oinarrituta, asmo handiko ekimenak abian jarri dituzten hainbat eskualde / autonomia-erkidegotan (NUT 2) (EAEn adibidez). Innobasque dugu ekimen horien adibide, esaterako. Baina helburua ez da berrikuntza sozialen katalogo soil bat osatzea.

### **Berrikuntza eta esperimentazio sozialak aplikatzen**

Berrikuntza eta esperimentazio sozialak aplikatzeko garaian ez da aski sektoreak beren aldetik lankidetzan jardutea, sektore guztiek (enpresa pribatuak, sektore pribatuak eta GKEen hirugarren sektoreak) batera lan egiteko garaia iritsi da, baina gizartearen ongizatea eta gizartearentzako ondorio positiboak bermatuz egin behar da hori.

Pobrezia- eta bazterketa-maila handiek erantzun zehatzak eskatzen dituzte, benetan jasagarriak diren konponbideak aurkitzeko. Horretarako, oso positibotzat jotzen da ekintzailtza soziala programetan sartzea (mikrokredituekin batera). Hala, balio soziala eta ekonomikoa aldi berean egituratzen dituen eragile berri gisa agertzen zaigu enpresa sozialen esparrua.

«Laugarren sektore» deritzona sortzen ari den erakunde mota berri honen ezaugarriak hauek dira: balore batzuen alde jardutea, jasagarritasun ekonomikoa, erantzukizun soziala, gardentasuna, berrikuntza, eraginkortasuna eta profesionalismoa.

Gure planetako bazter guztietan etengabe sortzen ari diren era askotako erakundeek osatzen dute lagarren sektore hori.

Berrikuntza sozialaren benetako tresnak hauek dira:

- Erantzukizun partekatua
- Lankidetzeta (enpresen, esparru publiko, sozial eta pribatuaren, unibertsitatearen, finantza-sistemaren... artean)
- Parte-hartzea (eta hura aintzatesten duen gobernantza)

Europako administrazioaren, estatu- eta erkidego-mailako erakundeen eta sistemako gainerako eragileen artean hezkuntza-eredu global bati buruzko esparru-konpromiso bat lortu behar da, gizarteko behar berrietara erantzuteko prest dauden herritar berritzaileak lortzeko helburuz.

Gure iritziz, berrikuntza soziala lortzeko tresna ezin hobea da lurralde sozialki arduratsuen kontzeptua, NUT3 mailan edo maila txikiago eta lokalagoetan aplikatua. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako COM(2011) 681 Komunikazioa –«Enpresen erantzukizun sozialari buruzko EBren 2011-2014rako estrategia berritua»– izan liteke horretarako esparru egokia.

EESk eta «lurralde sozialki arduratsuek» hurrengo urteotan gainditu beharreko erronka handien artean kohesio soziala bermatzea izango da.

Eurostaten (EBren estatistika-bulegoa) datuek erakusten dutenez, espainiarren diru-sarreraren arteko desoreka 1995ean iritsi zen gailurrera (orduan hasi ziren datuok biltzen), Letoniaren, Errumaniaren eta Lituaniaren aurretik bakarrik eta biztanleriaren %21,8 bazterketa soziala jasateko arriskua izanik. Horrekin batera, arriskuan egon litezkeen talde asko daude (gazteak, luzaroko eta 50 urtetik gorako langabetuak, emakumeak, etorkinak) eta guztiari kredituaren krisia eta gastu sozialaren murrizketak gehituz gero, doikuntza gogorrak etorriko direla iragarri daiteke.

Desberdintasun sozialen elementu guztiak ez dira enpleguaren edo diru-sarreraren murrizketen ondorio, jakina. Bazterketa sozialari buruzko datuetan etxebizitzaren jabetza eta laguntza sozialak ere hartzen dira kontuan, haien gabezia, hobe esanda.

Hala eta guttiz ere, herrialde baten diru-sarrerren maila eta diru-sarrerren desoreka edo desberdintasuna ez dira gauza bera. Alegia, gure ekonomiak hazkundera behar badu ere, gureak baino diru-sarrera gutxiago duten beste ekonomia batzuetan (Maltan eta Turkian, adibidez) desberdintasun edo desorekak txikiagoak dira. Horrek esan nahi du hazkunderak ezin duela gure helburu bakarra bihurtu gauden tokiaren gaineko eta egiten ditugun aurrerapausoen gaineko ikuspegi periferikoa galarazteraino.

Egoera darwindar honetan, berebiziko garrantzia izango du aldaketetara egokitzeko gaitasunak, eta behetik gorako eta goitik beherako estrategiak beharko dira, gu denon esfortzu eta akordioaz gain. Ekintza kolektiboa EESren etorkizuneko garapenaren ardatz izango da, inoiz baino gehiago.

Enplegua sortzea eta gizarte-kohesio handiagoa lortzea izango da lehentasunetako bat. Lan-erreformarekin batera, sektore publikoak lau haizetara iragarritako murrizketak aplikatu beharko ditu ezinbestean, eta erregulazio-esfortzuak egin beharko dira enpresa sozialen antolamoldea sendotu eta lan-merkatura eta lehia askotan erasokorrera egokitzeko malgutasuna eskaintzen duten lege-esparruak ezartzeko. Horrekin batera, enpresa horiei beharrezko bultzada eman beharko zaie abian jartzeko, eta laguntza eman beharko da, halaber, egoera zailenean dauden taldeak gizarteratu eta lan-munduratzeko.

Aldi berean, eta berezitasun *sozial* hori ez duten gainerako enpresei dagokienez, EESk ba al du gaitasunik epe laburrean eta egungo egoera ekonomikoan gizarteratze handiagoa sustatzeko?

Gizarte-kohesioak EESa behar du, baina enpresek ere beharrezkoa dute EESa. Oinarri sozial barne-hartzailea dugu enpresen produktu eta zerbitzuen eskaeraren zutabea, eta enpresen hazkundera eta produktibitatea elikatzen duten gertuko eta eskalako ekonomien «zirkulu bertutetsua» osatzen du. Gainera, bazterketa soziala areagotzearekin batera herritarrak instituzioetatik aldentzen hasten dira eta enpresen zilegitasuna urratu egiten da, ospari buruzko txostenen diotena gorabehera. Zerbait hobea sortzeko daukaguna deseraikitzeke zereginean, gogoan izan behar dugu, zailtasunak zailtasun, ezin dugula



abiadura desberdinetan aurrera egin, erantzukizun sozialaren lorpenak galdu nahi ez baditugu behintzat.

Zalantzari gabe, enpresek gizarte-kohesioaren alde egin nahi badute, honako bi esparrutan jardun behar dute uneotan:

- Lan-merkatuan: lan-merkatua eta kontratazioa malgutzeari esker sortuko diren lanpostuetan soldatei eustearekin batera banaketa ekitatiboagoa egin behar da lan-kategoria guztietan. Enpresaburu/enplegatzaileen lidergo eta konpromisoak langileen leialtzea eta produktibitatea ekarriko ditu, kausa partekatu bateko kide sentitzen direlako eta krisiaren kostuak denon artean proportzionalki banatzen direla ikusten dutelako. Bestalde, egoera zailenean dauden taldeek (gazteek, ezinduek, emakumeek, luzaroko langabeek, etorkinek) lana eskuratzeko dituzten aukerak hobetzea hitzarmen sozialaren interpretazio berri bat da, eta enpresak aprobetxatu egin behar du hori gaitasunen kudeaketarako tresnaren bidez inklusio handiagoa lortzeko.
- Berrikuntza: lehenik eta behin diru-sarrera apal eta ertainak dituzten taldeentzako produktu eta zerbitzuetan berritu behar da. *Flight-to-quality*ren ordez *univesal service* leloa behar dugu orain. Bigarrenik, berrikuntza soziala bultzatu behar da, gure gizarteko erronkei erantzuten dieten ekimen berritzaileak garatzeko. Krisi-garaietan berrikuntza da akuilurik onena.

Bietan ere, ongizate-estatuaren eta zenbait politika publikoren atzerakadak eragindako hutsunea bete behar dute eta bete dezakete enpresek eta hirugarren sektoreak.

Krisia gainditu behar dugu eta baztertu egin behar ditugu ezkortasuna eta zantzu txarrak. Besteak beste, orakuluak ez zuelako egungoa bezain krisi sakonik iragarri. Egungo eredu ekonomikoari buruzko gogoetak eta azterketak egiteko elementuak eskaini nahi ditugu, justizian eta elkartasunean oinarritutako ekonomia berri bat sortzen lagundu dezaketen proposamenak biltzarekin batera.

Merkatu-ekonomian oinarritutako egungo sistema ekonomiko kapitalista globalizatuaren funtsa ekonomiaren

etengabeko hazkundera da. Merkatuaren jarduna azaltzen eta justifikatzen duen doktrina eredu neoliberala da, eta pentsamolde ekonomiko gailen eta nagusia bihurtu da.

Merkatuko indarren jardun librean oinarritzen dute doktrina hori neoliberalak, «esku ikusezin» batek baliabideak modurik efizienteenean banatuko dituelakoan. Eragile ekonomiko bakoitzak bere onura indibiduala bilatuz onura kolektiboan lortuko omen da, gizarte osoarentzat lortu litekeen onurarik egokiena hain zuzen. Printzipio horiei jarraiki, Estatua interes pribatuen mende jartzen duten hainbat politika ekonomiko bultzatzen ditu neoliberalismoak. Hona hemen politika horietako batzuk: ekonomiaren liberalizazioa, enpresa eta zerbitzu publikoen pribatizazioak, ekonomiaren desarautzea, lan-merkatuen malgutzea eta gastu publikoaren murrizketa. Egungo hazkunde ekonomikoko ereduak sortzen den lekuan ongizate orokorrik ematen ez duela ikusten ari gara; aitzitik, desberdintasunak sortzen ditu, bai herrialdeen barruan, bai herritarren eta herrialdeen artean ere. Espekulazioari lotutako finantza-ekonomiak neurrigabeko garrantzia eskuratu du, finantza-merkatuak desarautzeko politikei esker, eta nazioarteko finantza-krisirik handiena eragin du. Krisi hori ekonomiako sektore errealerara igaro da, eta milioika eta milioika lanpostu suntsitu ditu. Era berean, estatuek boterea galdu dute, botere nagusi bilakatu diren merkatuak gogobetetzen saiatu direlako gobernuak.

Egoera hori ikusita, egungo paradigma ekonomikoaren aurkako iritziak sortu dira hainbat esparrutan. Bizitza sozialeko alderdi guztiak aintzakotzat hartzen dituen ikuspegia eskatzen da, elementu soilik ekonomikotik haratago jo eta gizartea eraldatzeko helburua duena, denontzako asebetegarria den gizarte justuagoa lortzeko. Bestalde, azterketa ekonomikoan beste hiru osagai hauek ere kontuan hartu behar dira: alderdi ekologikoak, hazkunderaren kostuak eta ingurumenaren krisia. Horretarako, Iparreko herrialdeen mobilizazioa eta politikan eragitea oso oso garrantzitsua da, garapen globala oztopatzen duten egiturak eta politikak aldatu ahal izateko.

Ikuspegi horri jarraiki, lau gai azpimarratu nahi ditugu:

Globalizazio neoliberalak Milurtekoko Helburuak lortze-

arekin duen erlazioa, kontsumo arduratsuaren eta bidezko merkataritzaren garapena eta enpresen erantzukizun soziala, inbertsio etikoak eta finantzazio alternatiboa.

### **Azken gogoetak**

Pobrezia gainditzeko ezinbestekoa da enplegu produktiboa sortzea. Enplegua sortzea da lehen erronka, EAEko herri askotako estatusunik handiena batere enplegurik ez egotea baita, baina enplegu horrek duina eta denontzat izatea izan behar da xedea.

Gehiago: egungo pobrezia eta bazterketa sozialeko egoeran, gizarteko eragile guztiek dute konponbide bideragarria aurkitzeko erantzukizuna. Jendeak bizi dituen arazo ekonomiko eta sozialen larritasunari aurre egiteko, enpresek bat egin behar dute gizarte zibilaren eta gobernuaren ahaleginarekin, konponbide bat aurkitzeko denon artean. Inork ezin du ukatu gizarte-ongizatea sortzera bideratutako neurri eta ekintza osagarrien beharra.

EAEko enpresa gehienak enpresa txiki eta ertainak dira. Ezagun da neurri horretako enpresei eta mikroenpresei ezin zaiela eskatu berez enpresen alorrekoa ez den funtzio bat betetzea. Era berean, gauza onartua da ezin dugula espero enpresek Estatuaren ordezkatzeari hezkuntzan, osasunean, segurtasunean eta beste politika publiko batzuetan, baina Estatuaren neurria murriztearekin batera enpresek jarduera horietako batzuk beren gain hartzeko aukera sortzen da. EESko ekimenek ez dute balio lege sozialak ordezkatzeko, eta erantzukizun sozialari buruzko eztabaidetan gainerako eragile sozialen erantzukizunen azterketa ere egin beharra dago. Eragile bakoitzaren eginkizuna ulertu eta errespetatu egin behar da, eta argi izan behar ditugu bakoitzaren jarduera-esparruaren mugak.

Bestalde, enpresa horiek, multinazional handiek bezala, lan-arauak betetzeko erantzukizun sailhestezina dute eta izango dute, eta arau horiek beteaz beren erantzukizun soziala beteko dute halaber. Sozialki arduratsua izateak ez du dagozkion betebeharrak juridikoak guztiz betetzea esan nahi bakarrik, giza kapitalari, inguruneari eta gizarteko gainerako eragileei ere begiratzea eskatzen du horrek. Gaur egun ez da aski enpresek beren xede ekonomikoak betetzea. Gizarte beste arlo batzuetan

ere parte hartzea eta soluzioak proposatzea espero du jendeak haiengandik.

Hori onartuta, garatu ditzaketen borondatezko ekimen sozialen irismena eta edukia askatasunez erabakitzen utzi behar zaie enpresei. Azken batean, enpresaren jokamoldea da garrantzitsua: errealismoz eta erantzukizunez jokatu behar du, merkatuan iraungo duela ziurtatzeko, eta ekoizpena, aberastasuna eta lan duina sortzeko.

Enpresen kudeaketa soziala ezin da onuradunen kopuruaren eta inbertitutako diruaren eta denboraren arabera neurtu bakarrik. Gizartean lortzen lagundutako eraldaketen arabera neurtu behar da. Aldatutako gizabanako bat, sendatutako gaixo bat, ikasi duen ume bat, bere burua errespetatzen duen heldua bihurtutako gazte bat, zeharo aldatutako giza bizitza bat, eta harekin batera, zeharo aldatutako familia bat eta gizarte bat... Horiek dira enpresa pribatuek beren gizarte-ekintzako programen bidez bultzatu behar dituzten lorpenak.

Laugarren sektorea balioa eta inbertsioa uztartzen dituen elementutzat hartu behar da eta ez unean uneko onurak ematen dituen ongintzako kanpo-ekintza, kudeaketa filantropiko edo dohaintza isolatu gisa edo merkataritzak, harreman publikoek nahiz enpresarentzako irabaziek bultzatuta egindako jardunbide edo ekimen gisa (nahiz eta irabaziak eman, berez). Enpresaren lehenbiziko erantzukizuna efizientea eta errentagarria izatea da bere berezko funtzioa betetzeko eta herriari hazten laguntzeko. Hala, laugarren sektorea enpresaren jardunean txertatutako politika, praktika eta programen sorta zabaltzat hartu behar da, zertarako eta balore etikoen esparruaren barruan erabakiak hartzen laguntzeko.

Laugarren sektorea ez da estatikoa, kontzeptu dinamikoa da eta dimentsio ugari biltzen ditu. Etengabe eboluzionatzen ari da gorabehera ekonomiko, politiko, sozial eta ekologikoetara egokitzen joateko. Azken urteotan, gizartearekin erlazionatzeko arauak aldatu dituzte enpresek, eta dirua edo ondasunak oparitzean oinarritzen zen filantropiaren ordez beste eredu bat nagusitzen ari da: enpresak badaki behar batzuk daudela, behar horietan premiazkoenak zein diren ikertu eta horretan

dabilen talde antolatu bati laguntzea erabakitzen du, eredu autokudeagarriak bihurtu daitezkeen proiektuak bilatzeko. Berrikuntza funtsezko osagaia da esparru honetan egiten den ekimen moderno guztietan. Erantzun berritzaileen aniztasuna bultzatu eta lagundu beharra dago, merkatuko aldaketa azkarrei erantzuten laguntzen dielako enpresei, gizarteari onura handiak emanaz.

Azkenik, demokraziaren garapena eta hazkundea bultzatzen ez dituen laugarren sektorea osagabea eta partziala da. Demokraziarik gabe, ezinezkoa da konpromiso sendo eta iraunkorra izatea giza eskubideekin, lan-eskubideekin, ingurumenaren babesarekin, zerga- eta finantza-erantzukizunarekin eta justizia sozialarekin, eta, horrenbestez, ezinezkoa izango da denontzako lehiakortasuna bultzatzen duen girorik egotea.

Alternatibak bilatzen jarraitzeko, argi eduki behar dugu laugarren sektorea, etorkizun hurbilean, «elkartasunaren sektorearekin» lotuta egongo dela, Joaquín García Rocak dioenez, errealitate beraren inguruko hiru dinamismo (printzipio) elkartzearen emaitza baita:

- Uste sendoak: «...logika honetan pertsonen barrenean dauden eta bizitzako jarrera eta jokamoldeak taxutzen dituzten motibazio moralak azaleratzen dira... Baloreen sozializatzeko eta berreraikuntza moralerako esparrua da, pertsonaren grina, berdintasunerako adorea eta sufrimenduak eragindako ikara izanik horiek eragile...».
- Antolakuntza: «baliabideak administrazio zintzo eta kudeaketa eraginkor baten bidez kudeatu nahi dituen antolakuntza-logika bat dago. Baliabideen kalkulu arrazionala, bitartekoen bilaketa eta arrazionaltasun teknikoa dira logika horren oinarriak. Antolakuntzaren dimentsioak ebaluazioaren kultura, boluntarismoaren kritika eta askatasunaren diziplina ematen dizkio ekarmen gisa sektorearen eraikuntza historikoari».
- Mugimendua: «ekintza kolektiboarekin zerikusia duen gizarte-eredu bati lotuta dago dimentsio hau, eta lotura hori eskubideen aldeko borrokaren, gizarte-ondasunen unibertsalizazioaren, alternatiben kulturaren eta egoera

kaskarrean daudenen defentsaren bitartez ematen da. Azken batean, utopiarekin eta posible den beste mundu batekin du zerikusia».



## 2.

SARRERA



## 2.1. Beharra nola sortu den

Hasieran, azterlan honen beharra Innobasqueko Laugarren Sektorearen dinamika eraldatzailearen testuinguruan, Berrikuntza Sozialeko arloan, sortu dela azaltzea beharrezkoa da.

Zehazki, *Laugarren Sektorearen estrategia eraldatzaileak* ahaleginak egiten ditu ereduak, balioak, ekimenak eta negozio berritzaileak era zalu eta praktikoan aztertu, bultzatu eta garatzen, zeinek ahalbidetzen baitute gaurko eta geroko erronka sozialei aurre egitea eta, oro har, gizartearen garapen tokiko, sozial, ekonomiko eta ingurumeneko jasangarriari mesede egingo diona, gizarte ireki, solidario, berritzaile eta jasangarriago bat sustatuz. Laugarren Sektoreko estrategia eraldatzaile horrekin, Innobasquek topagune bat sortu nahi du sustatuz, ideia, ekimen eta negozio berriak atergabe analizatzen eta sortzen dituen, giza garapen jasangarri baterantz bideratuak, beste ekimen batzuekin sarean konektatuak, Euskadin eta munduan, lagundu nahi dituen ondorio eraldatzaileengatik herrialdean eta nazioarteko ingurunean aitortuak. Hori guztia lortu nahi da sinergikoki esku-hartzeen multzo bat elkartuz enpresa sozialen ekintzaitzara (eta pertsona ekintzaileengana) zuzendua, EESaren bitartez enpresa-eraldaketara, nazioartekotzera POko negozioak hedatuz, pertsona berritzaileen erkidegora, hedapen globalaren eta sare sozialetan alderdi globalak garatu eta komunikatzera, eta aliantzetara dagoeneko sinaturik daudenen konpromisoak berreskuratuz eta sinatuz.

Gerora tratatuko denez, Berrikuntza Soziala funtsezkoa da Laugarren Sektorearen garapenean, eta horregatik hain zuzen ere, Innobasquek ere berritzailea izan nahi du Laugarren Sektoreari buruzko lehen azterlan hau eragitean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru Unibertsitateei lana eraginez. Hau da, Aholkularitzako multinazional handi baten alde egin beharrean, dagoeneko instalaturik baden ezagutzaz baliatu nahi izan du Euskal Unibertsitateetan, lehen aldiz lankidetzan ari den lan mistoko ekipo bat sortuz.

Lan-ekipoarekiko lehen harreman batean, Innobasquek argi utzi zuen era berean gaurkotasun handieneko gai bat lantzen ari dela mandatu hau, zeren eta nazioartean Laugarren Sektoreaz

hitz egiten hasita baitaude, Negozio Eskola klasikoak dagoeneko hasita daude Ekintzaitza Sozialeko Masterrak eransten beren eskaintzetan, batzuek Berrikuntza Sozialetik dagoeneko Laugarren Sektoreko gaiak lantzen ari dira, etab.

## 2.2. «The Emerging Fourth Sector» Aspen Institute-k landutakoa abiapuntutzat hartuta

Laugarren Sektoreari dagokionez, Aspen Institutek «The Emerging Fourth Sector» dokumentua garatu du, eta hartara hurbiltze bat eta haren definizio bat eskaintzen dira bertan eta, horregatik, aztertu egingo dugu ondoren.

«The Emerging Fourth Sector», dokumentuan aipatzen denez, giza jarduera gehienak erakundeen ingurukoak dira: eskolak, elizak, ospitaleak, gobernu-agentziak, enpresak, unibertsitateak... Behar desberdinak estaltzeko sortutako erakundeak dira. Maila gorenean, hiru lehen eredu dira nagusi herrialde garatuetao ekonomia gehienetan: enpresa pribatuak, sektore publikoa eta irabazi-asmorik gabeko enpresak; sektore pribatua, publikoa eta soziala eratzen dituzte hurrenez hurren.

Erakundeak interes-taldeek edo stakeholderrek gidaturik daudelakoa ere aipatzen da. «Interes-taldeen edo stakeholderren» planteamendu horri jarraituz, erakundeak helburu desberdinetako talde desberdinez osaturik daudela ulertzen da, zeinek eragina baitute erabaki estrategikoak edo taktikoak erakundeetan hartze-prozesuan eta, bestalde, haiek horien erabakien eraginak dituzte. Interes klasikoko taldeen barruan, jabeak daude, enpresetako giza baliabideak, bezeroak eta Administrazio Publikoak, besteak beste.

Edozein erakunderen arrakasta interes-talde askotariko horiek eraginkortasunez kudeatzeko haren gaitasunean dago neurri handi batean. Horixe da hain zuzen ere erakundearen diseinuaren helburu nagusia.


Erakundeak giza diseinuko produktuak dira, eta halakoak diren heinean, sortu direneko arau kultural, balio, lehentasun eta testuingurua islatzen dituzte. Gaur egun ditugun erakunde nagusiek mundua oso leku desberdina zen garai batean diseinatuak izan ziren. Gaur egun, merkataritza eta kulturaren

globalizazioak, informazioaren ugaltzeak eta abiadurak eta teknologiaren eta garraioaren bilakaerak historian inoiz ikusi ez den bezalako kultura berri bat eta ekonomia global elkarren mendekoak sorrarazi dituzte. Emaizta bezala, norbanakoak hobeto informaturik daude eta aukera handiagoak dituzte bizitzako aukera guztietan: zer erosi, non bizi, nola inbertitu, zertan lan egin... eta horregatik, gaitasun handiagoa dute beren balioak eta hobespenak adierazteko erakundeetan, zeinen interes-taldeak diren.

Gaur egun, gizarteak merkatu askeko kapitalismoari aurre egiten dio eta, horregatik, harekin kideturiko balioei: ekintzaile izateari, berritzaile izateari eta autokonfiantza izateari. Horrek, gure ingurune ingurumeneko eta ekonomikoaren kalitatea nabarmen okertu izanak, munduan zehar aldakuntza batera egokitu behar izatea eragiten du. Arazo horiek guztiak konpontzeak norbanakoen aldetik pentsatzeko eta jokatzeko era berriak inplikatzeko, zeinek erakunde mota berrien beharra sortzen baitute, eta haien interes-taldeen epe luzeko interesa bilatzen dute alderdi sozial, ekonomikoa eta ekologikoa kontuan hartuta. Hau da, etekina bizitzako barruti guztietan bilatuz. Horrek egiten du erakunde-eredu klasikoek gaurko munduan dauden beharrak estaltzeari uztea eta erakunde mota «hibrido» bateranzko joera bat sortzen aritzea, zeina helburu sozial, ekonomikoak eta ingurumenekoak asetzeko gai izango den, haietako bakar batean zentratu gabe.

Lehen, Bigarren eta Hirugarren Sektoreko erakundeen datu objektiboak analizatzen badira, elkarren artean hurbiltzen dituzten joera kontrajarriak esperimintatu dituztela ageri da. Adibidez, Lehen Sektoreko erakundeak gero eta gehiago arduratu dira beren onura sozialak maximizatzeari (Enpresa Erantzukizun Sozialarekin, adibidez) abiapuntu gisara darabilgun «The Emerging Fourth Sector» txostenetik lortutako honako irudi honek erakusten duenez.


### 1. Irudia. Lehen Sektoreko enpresen joera



Iturria: The Emerging Fourth Sector. The Aspen Institute and W.K. Kellogg Foundation

Bestalde, Hirugarren Sektorekoak mozkin ekonomikoez arduratzen hasi dira, honako irudiak erakusten duenez. Hitz batean, tradizioz erakunde kontrajarriak direnak beren jarrerak hurbiltzeari ekin diote.


## 2. Irudia. Hirugarren Sektoreko enpresen joera



Iturria: The Emerging Fourth Sector. The Aspen Institute and W.K. Kellogg Foundation

Aurretik iruzkindutako guztiaren ondorioz, Laugarren Sektorea sortu da, Lehen, Bigarren eta Hirugarren Sektoreko erakundeen misioa eta helburuak gero eta antzekoagoak baitira. Horren ondorioz helburu sozialak negozio-ereduarekin batzen dituzten eta gorantz datorren Laugarren Sektorea osatzen duten erakundeak eragin ditu, sapan dauden erakunde-ereduak, honako azterlan honen gai direnak. Erakunde horiek erraz bistartzeko, ondorengo irudi honetan etekin ekonomikoa bilatu behar denean etekin soziala maximizatzen den une berean nola sortzen diren horiek erakusten da.

### 3. Irudia. Erakunde-aldakuntzen joerak



**Iturria: The Emerging Fourth Sector. The Aspen Institute and W.K. Kellogg Foundation**

Laburbilduz, «The Emerging Fourth Sector»-en aipatzen denez, azken xedea mundua bizitzeko leku hobe bat bihurtzea da eta hori nola lortu erabakitzerakoan, erantzuna honako hau da: helburu sozialak eta enpresa-metodoak integratzearen bitartez lortzen dela. Eta hain zuzen horretarako sortzen dira aipatzen ari garen eta Laugarren Sektore bezala definitzen ari garen erakunde horiek.

Erreferentziatzen hartzen dugun Aspen Institutetako dokumentu honetan Laugarren Sektorea osatuko luketen erakunde horien ezaugarri nagusiak aipatu ere egiten dira eta honako hauek dira:

- **Asmo soziala.** Benetako konpromisoa dago erakundearen egitura guztia blai egiten duen asmo horrekiko.
- **Enpresa-metodoak.** Legezko edozein enpresa-jarduera gara daiteke asmo sozialarekiko eta interes-taldean erantzukizunetik kontsekuentea bada.
- **Jabetzabarne-hartzailea.** Erabidezkoan banatzen dira jabetza-eskubideak interes-taldean artean haien partaidetzarekiko adostasunean.
- **Interes-taldean gobernantza.** Informazioa eta kontrola partekatzen da interes-talde potentzialen artean horiek garatuz doazen heinean.
- **Konpentsazio bidezkoa.** Nola enplegatuentzat hala beste interes-talde batzuentzat haien ekarpenen arabera.
- **Itzulkin arrazoizkoak.** Inbertitzaileak arrazoizko mugen arabera saritzen dira, zeinek babesten baitute erakundeak bere helburuak lortzeko duen gaitasuna.
- **Erantzukizun sozial eta ingurumenekoa.** Era jarraituan bere jardueraz soziala eta ingurumenekoa hobetzerak konprometitzen da interes-taldean bere sare osoaren bitartez.
- **Gardentasuna.** Ebaluazio oso eta zehatzera konprometitzen du bere burua bere jarduerara eta inpaktu sozial, ingurumeneko eta finantzarioaren ekarpena eginez
- **Baliabide babestuak.** Erakunde mota hau beste batzuekin bat egin daiteke edo haiek eskuratu sortuko den erakundeak bere izaera sozialari eusten badio. Deuseztatuz gero, baliabideak asmo sozialei esleiturik geratzen dira eta ez dira erabili behar edozein pertsonaren irabazi pribatu tarako konpentsatzemuga arrazoizkoek harago.

Ezaugarri hauek berriz aztertuko dira bosgarren kapituluan, Laugarren Sektore izan litezkeela kontsideratu dugun erakundeen kasuen analisian, ezaugarri horietatik nabarmenduenak zein diren aztertuz erakundeetan (ikus 5.3.).

### 2.3. Helburuak

Garrantzitsua da lanaren helburuak argitzea, eta oinarrizko bi ideiatan zehazten ditugu:

1. Helburua ez da Laugarren Sektorearen definizio argi bat finkatzea ez eta hari dagozkion Euskadiko erakundeen katalogo bat sortzea ere, askoz gutxiago hurbiltze kuantitatibo bat egitea (gaia oraindik hasi berritan dago horrelako zerbait egin nahi izateko). Egin nahi dena hau da: elementu teoriko eta praktikoa batzuen ekarpena egitea Laugarren Sektorea testuinguruan kokatzen lagunduko luketenak, helburu hirukoitz batekin: lehen pauso bat ematen saiatu zailtasun kontzeptual eta metodologikoak gainditzeko kontzeptu berri bat proposatzea berekin dakartzatenak; debate-gune bat irekitzea pertsona eta erakunde desberdinen kokamendua jasoko duena kontzeptu horrekiko eta auzien gida bat proposatzea aurrerantzean Innobasqueren aldetik bultzatu nahi den debaterako orientabide izateko balio lezaketanak.
2. Lan-esparru bat finkatu Euskadirako. Gure iritiz, kontzeptu horrek har litzakeen era posibleak, hau da, Laugarren Sektoreari buruzko hipotesi hautabidezkoak, kontrastatzen ahalegindu garenak hiru lirateke, Laugarren Sektorea honela ulertuz:
  - Gune berri batetik logika propioarekin irudi juridikoak eta antolaketakoak sor ditzakeena (4º Sektoreko legezko enpresa-egiturak)
  - Dagoeneko badiren beste gune batzuen ordezkotzat bezala haiek dinamika berri batez hornituz (horrek sor ditzakeen gatazkekin).
  - Bateratze- eta debate-gune bat bezala Euskadin dauden praktikak elkartzeko dituenak eta hiru sektore klasikoetatik datozen praktika kolektiboen esperimendatzeko-leku bat hornituko duena.

Azken hiru elementu horiek Laugarren Sektoreari buruzko eztabaida posiblearen oinarria eratzen dutela uste dugu, haren abantailak eta eragozpenak balioetsiz eta gero egindako elkarrizketetako errealitatearekin eta aztertutako enpresetako kasu-adibideak kontrastatuz. Nahiz eta aukera posible guztiak balioetsi, Txostenaren egileek laugarren Sektorea bateratze-



gune bezala kontsideratzearen aldeko jarrera hartzen dute, dokumentuan zehar garatu dugun bezala.

#### 2.4. Mugatzeak

Laugarren Sektore horri buruz, beharrezkoa da Txosten honek dituen mugatze batzuk zehaztea:

- Ez dago erreferente teoriko argirik, ez baitago gaia aldez aurretik garatu eta aztertu duen egilerik. Izatez, ez da argitalpen edo dokumenturik gaia espainieraz garatzen duenik. Aldiz, badira herrialdean Javier Solana edo Pablo García-Berdoy bezalako pentsatzaileak sektore horri buruzko pintzelkadak eman dituztenak eta honako txosten hau garatzean kontuan hartzen direnak.
- Kontzeptu kidekoen kopuru handia dago, terminologia berri baten beharra auzitan jarriko lukeena. Mugatze hori analisi honetan elkarriketatuta diren pertsona adituek ere aipatu dute, eta horregatik, sakonera handiagoarekin garatuko da 5. kapituluan (ikus 5.2.)
- Gaurkotasuna duen gaia da eta munduan zehar lantzen ari direna, nahiz eta aurreko mugatzearekin lerrokaturik hain zuzen ere, bada dokumenturik Laugarren Sektore esplizituki izendatzen ez duenik.
- Berriro azpimarratu nahi da honako dokumentu honek ez duela izan nahi Laugarren Sektorearen definizio bat ez mugatze bat, baizik eta kontzeptu horretarako lehen hurbiltze bat.

Aipatutako guztiaren ondotik, begi-bistakoa dirudi kontzeptuak duen garrantzia eta Laugarren Sektore izendatuta edo izendatu gabe, horiek guztiak errealitate sozial bera ari dira lantzen, sektore klasikoan hibridaziora eta ondorioz negozio-eredu berriak sortzera jotzen duena.

#### 2.5. Dokumentua egituratzea

Honako dokumentua egituratzeari dagokionez, sarreraren ondoren, aurrekarien kapitulu bat garatzen da eta bertan Laugarren Sektorea sortzearekin zerikusia duten aurretiazko

gaiak lantzen dira hala nola, Ekonomia Soziala, Irabazi Asmorik gabeko Sektorea eta Ekonomia Solidarioa, besteak beste. Ondoren Laugarren Sektoreko kontzeptu zutabeen kapitulu bat agertzen da, hau da, sektore hori kokatzen duten kontzeptuak, Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Ekintzailatza Soziala, Piramidearen Oinarriko negozio barne-hartzaileen analisia barne dela, finantza etikoen eta merkataritza bidezkoaren analisia barne direla.

Garapen teorikoago horren ondoren gaiaren analisisira pasatzen da pertsona adituen ikuspuntutik eta Laugarren Sektoretzat sailka litezkeen erakundeen analisitik, bi azterlan mota horietan lortu diren ondorioak azalduz. Gero, hiru jarduera zehatz aztertzen dira hala nola, turismoa, enplegua eta etxebizitzaren alokairua, hiru sektore tradizionaletatik eta Laugarren Sektorerako joera posiblea jarduera horietan. Azkenik, garatutako analisiaren ondotik ekarpen batzuetara iristen da eta horiekin amaitzen da.



### 3.

LAUGARREN SEKTOREA KONTZEPTUAREN

AURREKARIAK

### 3.1. Sarrera

Kapitulu honek Laugarren Sektorea irtetearen aurreko kontzeptuak berrikusi nahi ditu, izan ere haietatik elikatu da bere burua itxuratzerakoan.

Nahiz eta kontzeptua gaztea izan eta gaur arte argudiatze teoriko eta akademiko urria izan, Laugarren Sektorerako lehen hurbiltze batek ekonomiaren ikuspuntu tradizionala itxuratzen duten hiru sektoreen arteko dinamikaren interakziotik sortzen dena bezala definitzera gonbidatzen gaitu, hau da, Lehena (sektore pribatua), Bigarrena (sektore publikoa) eta Hirugarrena, hiritarren barrutiarri dagokion gune hura bezala ulertua eta nola estatutik hala merkatutik bereizten dena<sup>1</sup>.

Ikuspegi dinamiko horretatik, Laugarren Sektoreak intersekzioko gune dinamiko bat ordezkatzuko luke, azaleratzen ari diren negozio-eredu berriak aitortzen dituen, eta tradiziozko sektore-mugak gainditzen dituzten antolaketa-forma hibridoak hartuz, hiru sektore tradizionalak propioak dituzten funtzionamendu-logikak, antolaketa-dinamikak, sortze-balioak eta antolaketa-kultura propioak eransten dituzte. Ondoren sektore bakoitzetik Laugarren Sektoreari irtete-prozesuari egotzi nahi zaizkion ekarpen nagusiak aurkezten dira, berrikuste hori Hirugarren Sektorean hasten delarik, haren bilakaera historikoan eta osatzen duten eragileengan eta hartan kontsiderazio bat baino gehiago tartekatu Lehen eta Bigarren Sektoretik datozenak.

Hirugarren Sektoretik egindako planteamendu honek hiru bide posibletatik ekarpen bat baino gehiago eranstearen zentzua du, haietako bakoitza jatorrian interpreta daitekeelarik (hau da, bakoitzari dagokion sektorean) edo gaurko bereizkuntzak gainditzen dituen esparru batean sartu direlako. Ez dugu esan nahi Laugarren Sektorea Hirugarrenetik bilakaera bat denik beste bietako eransketekin, baizik eta baliagarritzat jo dugula besterik gabe analisia abiapuntu batetik hastea.

### 3.2. Hirugarren Sektorea

Monzón-ek (2006) dioenez, Hirugarren Sektorea kontzeptu desberdinen topagune bat bezala itxuratzen da, batez ere Ekonomia Sozialarena eta H irugarren Sektorearen irabazi-asmorik gabeko

<sup>1</sup> Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiaren araberako definizioa.

(*Non Profit sector*) planteamenduarena bezala, azken kontzeptu hori lotuago dagoelarik mundu anglosaxoiarekin.


Borzaga eta Defourny-k (2001) adierazten dute herrialde industrializatu ia guztietan Hirugarren Sektorearen gehitze esanguratsu bat nola nabari den, eta hura honela definitzen da: ez barruti pribatukoa ez sektore pribatu tradizionalakoa ez den sektorea. Pearce-k (2003) nahiago du hura «hirugarren sistema»<sup>2</sup> bezala aipatzea, topagune bihurtzeak ezaugarritzen duena, non hiritarrak beren behar propioak asetzeko antolatzen baitira lankidetzan, autolaguntza eta mutualismo printzipioak jarraituz, etekinen maximizazioa baino lehenago. Sistema horrek erakundeen espektrua zabala hartzen du, etxeko eta familiako ekonomiatik Ekonomia Sozialaren forma klasikoetarainokoa.

Pearce-ren arabera, «lehen sistema» (tradizionalki sektore pribatu bezala ezagutua) metatze kapitalistaren logika ezin nahasizkoak ezaugarritzen du akziodunentzat eta/edo jabeentzat etekinaren maximizazioaren printzipioak gidatua; aldiz, «bigarren sistema» (sektore publikoa) demokratikoki hautaturiko erakundeen baliabideen plangintzak eta birbanaketak ezaugarritzen du.

Hiru sistema horiek grafikoki irudikaturik daude ondoren agertzen den diagraman, eta bertan sistema bakoitzera mugatzen diren eragile desberdinak zirkulu zentrokidetan agertzen dira, auzunetik nazioarte-eremuraino.

2 Honetara adierazten du sistema horietako bakoitzak ekonomia kudeatzeko era desberdin bati, «ekoizpen-modu» berri bati erantzuten diola.

#### 4. Irudia. Hirugarren Sektorea kontzeptu globaltzaile bezala



Iturria: Pearce (2003)

Bada gainera hirugarren dimentsio bat diagraman: merkatuaren orientabidea merkatuetan trukatzeko ez diren ekoizpenaren eta ondasunen banaketaren aurrean. Dimentsio horrek aukera ematen du Ekonomia Soziala mutualitateak eta autolaguntzak ezaugarritzen duen Hirugarren Sektoreko gainerakotik bereizteko.

Hartara, merkataritzarako orientabidea duen Hirugarren Sektorean (Ekonomia Soziala) erkidegoarekiko kokagune desberdinetan dauden enpresa sozialekin topo egingo genuke, tamaina eta era legal desberdinekin eta diru-iturri eta merkatuaren orientatze-maila askotarikoekin. Horrek aukera ematen digu Hirugarren Sektorearen, Ekonomia Sozialaren eta enpresa sozialen beraien baterako ikuspegi bat izateko.

Gainera, Hirugarren Sektorearen debateak eta dinamika garaikidea dira hibridazio-iturri nagusietako bat eta, gure ikuspegitik, Laugarren Sektorea irtetearen logika ezaugarritzen dute, eta horregatik, beharrezko ikusten dugu Hirugarren Sektore horren bilakaera historikoz pintzelkada labur batzuk eskaintzea. Horrek aukera emango digu txosten honetan zehar aurkeztuko ditugun Laugarren Sektoreari buruzko joerak eta debateak testuinguruan kokatzeko.

### 3.2.1. Hirugarren Sektorearen bilakaera historikoa

Hirugarren Sektorea gaur egun ezagutzen dugunez bi tradizioetatik abiatuta itxuratu da: tradizio karitatezkoetik, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan inspiratutik eta izaera liberaleko azterlan teoriko anglosaxoiek babestutik eta tradizio kooperatibotik, Ekonomia Sozialaren eskola frantses-hiztunak babestutik. Nahiz eta bi tradizioak existitu diren historian zehar, hori bezain egia da XIX. mendean gorakada bat izan zutela iraultza industrialak larriagotzen zituen desberdintasun sozial gero eta handiagoek areagoturik, baina ondoren motelaldi bat izan zuten XX. mendearen azken laurdena arte.

Hala eta guztiz ere, bi planteamenduen bilakaera ez da parez pare joan Ekonomia Sozialaren teorizatzea irabazi-asmorik gabeko erakundearen aurretikoa izan den neurrian, eta hain zuzen ere goiztiartasan teoriko horrek eragiten du Ekonomia Soziala betetzen duen erakunde ongile-laguntzaileko ereduari kontrajarrira kontzeptualizatzea, altruismo sozialean oinarritutako (eredu anglosaxoitik hurbileko borondatezko erakundeetan hezurmatituan) eta mutualismoan edo barne-lankidetzan oinarritutako erakundearen arteko desberdintasunak sakonduz. Bestela esateko, eta Rodríguez Cabrerori (2004) jarraituz, jarrerak desberdinu egiten dira solidarotasuna erruki sozialetik eta gobernuaren akatsei erantzun bezala ulertzen duen Hirugarren Sektorearen nozio baten eta demokrazia ekonomikoan oinarrituriko solidarotasun baten aldeko apustua egiten duen beste batetik, zeinek erantzungo dien, Estatuarekin batera, merkatuaren hutsegitei.

70. hamarkada ziklo ekonomiko eta sozialeko aldakuntzaren lekuko izan zen<sup>3</sup>. Beraz, Hirugarren Sektorearen bilakaeran

3 1973ko petrolioaren krisiak, eta beste krisi ekonomiko batek gainera, krisi fiskal sakon bat eragingo du Mendebaldeko estatuetan, eta «ongizate-estatuaren krisia» deitu izan den horretan amaituko da, zeina aldakuntza ideologiko eta politikoko batek ezaugarritzen baitu; bertan Chicagoko eskolako tesi neoliberal kontserbadoreak pasatuko dira menderatzaileak izatera «Estatu gutxiago eta merkatu gehiago» premisapean.



bigarren inflexio-gune bat izan zen. Ez da harritzekoa urte horietan teoria trinkoenak eta egituratuena azaleratzea. Azken batean, oraindik gehiago aurre egingo dio jarrera anglosaxoiak planteamendu frantses-hiztunari. Lehenak behar publikoak asetzea defendatzen du ekintza pribatu eta filantropikotik, erregimen liberalekin lerrokaturik. Planteamendu frantses-hiztuna Ekonomia Sozialetik hurbilago dagoen eta kooperatiben, mutuen eta elkarteen bulkadaren bitartez errebindikatzeko den bitartean, zeinak erakundetuko baitira Ekonomia Sozial kontzeptu horren azpian, eta zeinak oinarrikotzat jotzen baitu Hirugarren Sektorearen eta sektore publikoaren arteko lankidetzak.

Hala ere, baldin eta 90. hamarkada arte eskola bakoitzak bere ibilbide propioa egin bazuen ere, ongizate-estatuaren gero eta hondamendi handiagoak Hirugarren Sektorearen barneko debatea aberastu besterik ez du egiten, eta debate hori gure iritziz, bi barne-joera bateratzeak zerbitzaturik dator eta honela laburbiltzen ditugu:

1. Chaves eta Monzón-ek (2001) baieztatzen duenez mundu kooperatiboaren eta irabazi-asmorik gabekoaren artean hurbiltze mailakatu bat sentitzen hasten da, XX. mendearen azken aldiak bi eskolek burutzen dituzten ikerkuntza-azterlan ugariak sostengaturik, haien artean bateratze-guneak bilatuz (Monzón eta Defourny 1992; Barea, 1990; Salomon et al, 1999). Honetara, Ekonomia Sozialetik Irabazi Asmorik gabeko Erakundearen parte handi bat bere gain hartuz joan dira; aldez, Irabazi Asmorik gabeko Erakundearen planteamendutik garai batean Ekonomia Sozialekoak bakarrik ziren erakunde batzuk kontsideratzen hasten dira.
2. Enpresa sozialak oldarka sartzea, zeinak Borzaga eta Defourny-k (2001), baieztatzen dutenez, Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen eta Ekonomia Sozialaren planteamendu tradizioaletik ihes egiten duten ezaugarrien jabe baitira, Enpresa Sozialari buruzko epigrafean garatuko denez.

### 3.2.2. Ekonomia Soziala

Hirugarren Sektorearen aurrekarietan aztarrika, eta hurrenkera kronologiko ebolutibo bat jarraituz, analizatu beharreko lehen

kontzeptua Ekonomia Sozialarena da, hain zuzen epigrafe honetan analizatzen direnetatik antzinakoena noski. Kontzeptua lehen aldiz XIX. mendean agertu zen, eta John Stuart Mill eta Leon Walras egileak izan ziren, iraultza industrialaren sortzen ari zen arazo sozial larriari erantzun bezala, Ekonomia Sozial terminoa sortu zutenak.

Hemeretzigarren mendeko Ekonomia Sozialaren zertzelada bereizgarriak hobekien hezuramaitzen zituzten erakundeen tipologia, eta azken batean, tradizionalki diziplina horren gune gogortzat hartu izan direnak, kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak dira. Hala ere, Ekonomia Sozialaren bilakaeran bertan erakunde mota desberdinak elkartu izan zaizkie antolaketaren forma juridiko ugariarekin, neurri handi batean herrialde bakoitzean dauden lege-aukeren mendekoak direlarik. Edozein kasutan, kudeaketa demokratikoa ezaugarri definitzaile nagusi bezala aurkezten da erakunde bat Ekonomia Sozialaren barrutira mugatzerakoan.

Monzón-ek (2006) Ekonomia Sozialaren mugatze kontzeptualera hurbiltzera gonbidatzen gaitu bi planteamendutatik abiatuz: planteamendu erakundezkotik eta planteamendu teoriakotik. Lehen planteamendua erreferentziako hiru erakunderen ekarpenetatik itxuratzen da:

- *Comité National de Liaison des Activités Mutualistes, Coopératives et Associatives* (CNLAMCA<sup>4</sup>).
- *Conseil de Wallon de l'Economie Sociale*.
- Kooperatiben, Mutualitateen, Elkardeen eta Fundazioen Europar Konferentzia Iraunkorra (CEP-CMAF<sup>5</sup>).

4 2001etik CEGES bihurtu da: (Conseil des entreprises, employeurs et groupements de l'Economie Sociale

5 Déclaration finale commune des organisations européennes de l'Economie Sociale, CEP-CMAF, 20 juin 2002

Hiru erakunde horiek bat datoz Ekonomia Sozialaren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuei buruz (sektore publikoaren elkarrekikodependentzia, demokrazia, atxikitze aske eta pertsonen lehentasuna eta objektu sozialarena kapitalaren gainetik), baina, hala eta guztiz ere, maila kontzeptualeko anbiguitasun halako bat gainditzeko ez dira gai, Ekonomia Sozialaren barrutia zorrotz mugatzea zailtzen duena.

Fokatze teorikoa, CIRIEC-International erreferentziako erakunde dela, Ekonomia Sozialaren mugak zedarritzen

ahalegintzen da era lerrokatuan 1998ko (SCN-1993) Nazio batuen Kontu Nazionalen Sistemarekin eta Kontuen Europar Sistemarekin (SEC-95)<sup>6</sup>. Aurrekoarekiko adostasunean, Europar Batzorde Ekonomiko eta Sozialak (CESE) 2008an Ekonomia Sozialaren definizio-proposamen berriena landu zuen, erakundeen babes handiagoarekin eta lehenago azaldutako fokatzetik finkatutako Ekonomia Sozialaren printzipio zedarrizailleekin bat datorrena (*Charte de CNLAMCA*, 1980: *Conseil de Wallon de l' Economie Sociale*, 1990 eta *CEP-CMAF*, 2000 testuen arabera).

*«Formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabakitze-autonomia eta atxikitze-askatasunarekin, bazkideen beharrak merkatuaren bitartez asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzaturik, eta zeinetan etekinen edo soberakinen balizko banaketa bazkideen artean, bai eta erabakiak hartzea, ez dauden zuzenean kapitalarekin edota bazkide bakoitzak ekarritako kotizazioekin loturik, haietako bakoitzari boto bana dagokielarik. Ekonomia Sozialak erakunde pribatu antolatuak ere sailkatzen ditu erabakiaren autonomiarekin eta atxikitzearen askatasunarekin, ez merkatuko zerbitzuak ekoizten dituztenak familien alde, zeinen soberakinak, halakorik balitz, ezin baitituzte beretu sortu, kontrolatu edo finantzatzen dituzten eragile ekonomikoek».*

Definizio horrek Ekonomia Sozialaren bi azpisektore handi itxuratzen ditu: merkatua edo enpresakoa eta merkatuko ez diren ekoizleena, eta bien ezaugarri erkideak honako hauek dira:

- Pribatuak dira.
- Formalki antolatuak, hau da, nortasun juridiko propioz eskuarki hornituak.
- Erabakitze-autonomiarekin.
- Atxikitze-askatasunarekin.
- Ekarritako kapitalarekin loturik ez dauden etekin edo soberakinen banaketarekin.
- Beren baitan jarduera ekonomikoa egikaritzen dute, pertsonen, etxeen edo familien beharrak asetzeko kontsideratua.
- Kudeaketa demokratikoa, familien mesederako ez merkatuko erakunde borondatezko zerbitzu-ekoizle batzuk salbuetsirik.

6 Bi sistemek eratzten dituzte indarreko Kontabilitate Nazionalako sistemak, zeinek funtzio guztiz garrantzitsu bat burutzen baitute informazio aldizkako eta zorrotza jarduera ekonomikoari buruz eskaintzeko, bai eta harmonizatze terminologiko eta kontzeptualeko prozesuak garatzeko gai ekonomikoan nazioarteko konparaketa koherente eta homogeneoak finkatzeko aukera ematen duten. Ekonomia Sozialaren atal diren erakundeak, erakunde-sektore desberdindua eratzten ez duten heinean, ez dute abegirik indarrean dagoen Kontabilitate Nazionalako bi sistemen barruan, halako moldez, non zaildu egiten baita haien ikusgaitasuna.

Honako lauki honek aldez aurretik aipaturiko azpisektore bakoitzarekin kideaturiko erakunde desberdinak jasotzen ditu.

### 5. Irudia. Ekonomia Sozialaren unibertsoa

Ekoizle mota	Erakunde -sektorea	
Merkatu-ekoizle pribatuak	Sozietate ez finantzarioak	
Merkatu-ekoizle pribatuak	Finantza-erakundeak	
Beste ekoizle bat merkatu publikokoa ez dena	Administrazio Publikoak	


**Iturria: Monzón (2008): Ekonomia Sozialaren zifra handiak Espainian.**

**Barrutia, erakundeak eta 2008ko zifra gakoak. CIRIEC-Espainia, 61. or.**


<b>Ekonomia Sozialaren Erakunde Unitateak</b>	<b>Jarduerak eta funtzio nagusia</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kooperatibak</li> <li>- Lan Sozietateak</li> <li>- Ekonomia Sozialeko Enpresa taldeak</li> <li>- Enpresa sozialak (gizarteratzekoak eta enplegu-zentro bereziak)</li> <li>- Ekonomia Sozialeko beste enpresa-eragile batzuk</li> <li>- Ekonomia Sozialeko enpresen zerbitzurako irabazi-asmorik gabeko erakundeak</li> <li>- Eraldaketako Nekazaritza Sozietateak</li> <li>- Arrantzale-kofradiak</li> </ul>	<p>Merkatuko ondasun eta zerbitzu ez finantzarioen ekoizpena</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kreditu-kooperatibak</li> <li>- Mutuak</li> <li>- Aseguru-kooperatibak</li> <li>- Ekonomia Sozialeko enpresa-taldeak</li> <li>- Ekonomia Sozialeko beste finantza-eragile batzuk</li> <li>- Ekonomia Sozialeko enpresen zerbitzurako irabazi-asmorik gabeko erakundeak</li> </ul>	<p>Bitartekotza finantzarioa aseguru eta bitartekotzako jarduera lagungarriak barne</p>
	<p>Merkatukoak ez diren beste ondasun eta zerbitzu batzuen ekoizpena eta hornikuntza banakoaren eta kolektiboaren Kontsumorako eta errentaren eta nazio-aberastasunaren birbanaketa-eragiketak burutzea</p>

Gaur egun, nola Europar Parlamentuak hala Europar Batzorde Ekonomiko eta Sozialak (CESE) Ekonomia Sozialak gizarte zibilaren beharretara egindako ekarpena nabarmentzen dute hala nola, tokiko garapena, aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa edo enplegu egonkorra sortzea, haren ahalmena aitortuz ekonomia berraktibatzerakoan, aipaturiko erakundeek izan duten portaera hobetik ondorioztatzen denez, (batez ere enplegu-terminotan) sektore pribatuko haien antzekoen alderatuta, honako grafikoan islatzen den bezala.

### 6. Irudia. Enplegu-kopuru orokorrak EAE-ko elkarte kooperatibo eta lanekoetan



Enplegu-zifra orokorrak Eranste Enpresetan eta Enplegu Zentro Bereziatan



### 3.2.3. Irabazi-asmorik gabeko Sektorea

Irabazi-asmorik gabeko Sektoreak (edo *Non Profit* ingeleserako itzulpenarengatik) mundu anglosaxoian aurkitzen du bere epizentroa, batez ere EEBBetan, non Salomon-i (1997) jarraituz, abegi garrantzitsua aurkitu baitzuen lurralde haren iragan kolonialaren ondorioz. Baina XIX. mendearen azkenetatik hasi zen sendotzen Irabazi Asmorik gabeko Sektore baten ideia, irabazi-asmorik gabeko erakunde multzo batek osatu zuelarik ez bakarrik ekintza publikoaren osagarri bezala eratuak, baizik eta behar publikoak asetzeko goragoko mekanismo bezala ere bai<sup>7</sup> (Borzaga eta Defourny, 2001).

Hirurogeita hamargarren hamarkada, baina batez ere laurogeigarrena, literaturaren ugaltzearen lekuko da Irabazi Asmorik gabeko Sektorea kontzeptualizatu nahirik, Hansmann (1986), Weisbrod (1975,1977), James (1986) Young (1983) edo Rose-Ackerman-en (1996) lanek erakusten dutenez. Literatura horren arabera, eta Sajardo eta Chaves-i (2006) jarraituz Irabazi Asmorik gabeko Hirugarren Sektorearen erakunde integratzaileen oinarritzko ezaugarritze-zertzeladak honako hauek dira:

- Etekinak ez banatzearen printzipioarekiko errespetua haiek kontrolatzen dituzten pertsonen artean, etekin horiek beren helburuak burutzera edota erakundearen gain inolako kontrolik ez duten pertsoneri laguntzera bideratu behar direlarik.
- Borondatezko baliabideak, lana edo dohaintzak izan daitezkeenak mobilizatzea.

XX. mendearen hondarrean, Baltimore (EEBB) John Hopkins Universityk sustaturiko nazioarte-ikerikuntzako proiektu askonahi batek bultzaturik 1997. urtean, eta definizio operatibo bat lantzeko ahalegin batean, bostera hedatuko dira sektore horretakoak diren erakundeen zertzelada bereizgarriak.

1. *Erakundeak*, hau da, presentzia eta egitura erakunde-zeko baten jabe dira eta eskuarki nortasun juridikoz horniturik daude.
2. *Pribatuak*, erakunde gisa botere publikoetatik bereziak, nahiz eta finantzazio publikoa jaso dezaketen eta beren zuzendaritza organoetan funtzionario publikoak izan ditzaketen.

<sup>7</sup> Hurbiltze anglosaxoi batetik, XX. mendearen hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren hamarkadan sektore publikotik «independente» bezala sailkatzen hasten da aipaturiko sektorea.

3. *Autonomoak*, beren jardueren gain kontrol-gaitasunarekin eta beren aginte-organoak hautatu eta kargugabetzeko askatasunarekin.
4. *Etekin-banaketarik gabeak*, eta hori bihurtzen da azkenean Irabazi Asmorik gabeko Sektoreko printzipio diskriminatzailea. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek izan ditzakete etekinak baina erakundearen misio nagusian berrinbertitu behar dira eta ez banatu titularren, kideen, sortzaileen edo haren aginte-organoen artean.
5. *Borondatezko partaidetzarekin*, eta horrek bi gauza esan nahi ditu: lehen lekuan, haien kide izatea ez dela derrigorrezkoa ez eta legez ezarria ere eta, bigarren lekuan, erakundeak bere jardueretan edo kudeaketa-organoetan boluntariotzaren partaidetza izan behar duela.

Nola Ekonomia Sozialak hala Irabazi Asmorik gabeko Sektoreak bereak dituzten ezaugarriei erreparatuz, bateratze-guneak aurkitzen ditugu baina bai eta bereizte-guneak guneak ere. Azken horiek hiru eremutan taldeka ditzakegu, hau da:

1. Ekonomia Sozialaren fokatzeak ezin nahasizko eran identifikatzen du erakundearen helburu nagusia bere kideei edo erkidegoari zerbitzatzea dela, etekinaren maximazioa bilatzearen aurretik. Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen kasuan, murrizketa hori ez da aplikagarria haren printzipio diskriminatzailea etekinak ez banatzea den neurrian.
2. Ekonomia Sozialaren fokatzean (Fundazioen salbuespenarekin) kudeaketa demokratikoa da nola erabakiak hartzean, etekinak banatzean edo informaziorako sarbidean haren zertzelada bereizgarri nagusia; aldiz, Irabazi Asmorik gabeko Sektorea fokatzean ez da ageri zertzelada diskriminatzaile bezala. Hartara, borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko elkarten sektore zabal bat bazterturik geratuko litzateke Ekonomia Soziala osatzetik.
3. Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen fokatzeak debekatu egiten du edozein etekin-banaketako mota, izan ere berrinbertitu egin behar dira jarduera propioan. Hartara, kooperatibak fokatze horretatik automatikoki bazterturik geratuko dira,



bai eta zenbait erakunde mutualista ere.

### 3.2.4. Enpresa sozialak<sup>8</sup>

Enpresa sozialaren kontzeptua erabiltzea azken urteotan gero eta hedapen handiagoa izaten ari da, erakundeen tipologia hori krisi ekonomikoaren aurkako hiritarren adierazpenaren aukera bat bezala postulatzeko den neurrian, non lokarri sozialak gero eta ahulagoak diren gizarte baten barruan eta ongizatearen estatua gero eta zailtasun handiagoak jasaten ari den.

Ongi diogu enpresa sozialaren fenomenoaren azken kontzeptu garatua izan dela adieraztean Ekonomia Sozialaren bilakaera berekian, eta, beraz, ez dela Hirugarren Sektoreko barne-debateetatik kanpo geratu. Ekonomia Sozialaren atal al dira edota Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen atal dira? Errealitate bat da Ekonomia Sozialaren eta Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen fokatzearen bilakaeran bertan forma sozioekonomiko hibrido berriak sortuz joan direla bi diziplinen artean, izan ere ez dira erabat egokitzen Ekonomia Sozialeko eta Irabazi Asmorik gabeko Sektorearen tradizioek proposaturiko analisisien ereduetan.

Lehen une batean, CIRIEC bertatik, «Ekonomia Sozial berri» baten azpian jaso ziren (Defourny et al, 1997; Spear et al, 2001), ustea baitzen ekimen horiek ezaugarri sorta bat biltzen dutela diziplina honetatik aztertzen ari zirenez bestelakoak bihurtzen dituztenak. Denborarekin, dinamika berri horiek enpresa sozial bezala definituz joango dira, eta batez ere EMES<sup>9</sup> nazioarteko sarea itxuratzen duten ikertzaileek analizatuko dituzte batik batik eta Ekonomia Solidarioaren erreferentzia-esparru zabalago baten esparruaren barruan beren proposamena kokatzen duten egileek. Hori horrela izanik, enpresa sozialaren *kontzeptualizatzearen* mesedetan beharrezkoa da EMES sareak enpresa sozial bezala sailkatzen dituenen aipamena egitea, hau da:

*«Erkidegoari mesede egiteko helmuga esplizituarekin sortutako erakundeak, zeina hiritarren kolektiboak hasia baita, eta zinean kapital-inbertitzaileen interes materiala mugen mendea baitago. Enpresa sozialek, gainera, balio berezia jartzen dute beren autonomian eta atergabeko beren jarduera sozio-ekonomikotik eratorritako arriskuan».*

8 Komenigarria da enpresa sozial eta Ekintzaitza Soziala kontzeptuen arteko desberdintasunaz ohartzeari. Nahiz eta leku arrazoiengatik ez garen zehaztasunez sartuko kontzeptuen arteko desberdintasunetan, badira ñabardura interesgarriak bi kontzeptu horien artean. Auzi horien tratamendu osorako ikus Nicholls (2006)

9 1996an sortua, EMES Ikerkuntzako Europar Sarea unibertsitate-ikerkuntzako zentro aintzatsiak bere baitan bildu dituen sare bat da ikertzaile banakoekin, eta zeinen helburua pixkanaka gorputz teoriko bat eraikitzea baita eta «Hirugarren Sektoreaz» oraindik ezagutza handiagora hurbiltzea.

Irizpide nola sozial hala ekonomiko batzuk identifikatzen dira, enpresa sozialei forma ematen dietenak, honako taula honek islatzen duen bezala:

### 7. Irudia. Enpresa sozialen irizpide sozial eta ekonomikoak

Irizpide <b>ekonomikoak</b>	Irizpide <b>sozialak</b>
Ondasun eta zerbitzuen ekoizpen etengabea	Erkidegoarentzako mesedea
Autonomia-maila handia	Hiritarrendandiko jarraipena
Arrisku ekonomiko esanguratsua	Kapitalean oinarritu gabeko erabakitze-prozesuak
	Partaidetza-izaera
Lan sarituaren existentzia	Etekin-banaketari mugak

#### Iturria: Borzaga eta Defourny-tik abiatuta geuk egindako lanketa (2001)

Printzipio horien azterketak agerian jartzen du enpresa sozialek nola jasotzen dituzten Ekonomia Sozialaren printzipio klasikoetako batzuk, beste batzuk Hirugarren Sektoretik eta berriak erantzen dituzten. Hartara, eta Vecianak (2008) baieztatzen duenez Ekonomia Sozialetik izaera demokratikoa eta kapitalaren izaera kolektiboa hartzen ditu (pertsonek langileen partaidetza eta kapitalaren jabetzan oinarritzen ez den boterea), atxikitze askearen printzipioa eta kolektibitatea (hiritar talde baten ekimena eta autonomia-maila handia).

Hirugarren Sektorearen fokatzetik independentzia geratzen da jasota sektore publikoarekiko (autonomia-maila handia, hiritar talde batengandiko ekimena), boluntariotzaren presentzia aitortzen du baina baztertu egiten ditu erakunde ez diruzkoak (lan sarituaren gutxienezko bat eskatzen baitu), interes orokorreko ikuspena hartzen baitu bere gain (erkidegoari mesede egiteko helburu esplizitua) baina ez du aitortzen irabazi-asmoaren gabezia eta etekinen banaketa mugatua bakarrik kontsideratzen du. Elementu berri gisara, nahiz eta nolabait elementu inplizituztat har litekeen enpresa-jardueraren presentziaz hitz egiten denean, arriskua hor dago.


Era berean, dibergentzia bat baino gehiago aurkitzen dira nola Ekonomia Sozialeko erakunde tradizioaletan hala Irabazi

Asmorik gabeko Sektoreko erakundeetan. Hala, Ekonomia Sozialari dagokionez, eta Chaves eta Monzón-i (2008, 33.or.) jarraituz honetan desberdintzen dira. «...erantzuten dituzten eskari sozialen izaeran, eraldaketa sozialean eragiteko erakusten duten bokazio garbian eta ekimen horiek sustatzen dituzten eragileen izaeran».

Halaber, ahalegina egingo da enpresa sozialen bereizkuntza argi bat finkatzeko irabazi-asmorik gabeko erakunde tradizionalakiko lehenago aipaturiko aspektuetako biren funtziotan: eraldatze sozialeko haren bokazio garbian eta haren barne-osaeran. Azken bi ezaugarri horiek elkarri loturik aztertuko dira: enpresa sozial hauetako batzuk soslai politiko aktiboago bat erakusteak sare sozial desberdinak itxuratu eta haietan parte hartzera eramaten ditu, kolektibo anitzago eta heterogeneoagoak sortuz (Laville, 2004) izaera hibridoko erakundeak azken batean itxuratzeko (Evers eta Laville, 2004) pertsona bazkide-tuen osaera anitzagoari dagokionez, erabiltzen dituzten giza baliabideen motari dagokionez (soldatapekoak eta boluntarioak) eta mobilizatzeko gai diren baliabideen aniztasunari dagokionez (Defourny, 2001).

Beraz, badirudi zuzena dela baieztatzea, Nysesns eta Laville-n (2001) ildotik, enpresa sozialek ezaugarri propioak metatzen dituztela, eta eten kontzeptualak ez badira ere, Hirugarren Sektore tradizionalaren barruan dinamika berriak sortzen dituzte. Egokia da, beraz, enpresa sozialak bidegurutze moduko batean kokatzea, ondorengo irudian ageri den bezala.

## 8. Irudia. Enpresa sozialak bidegurutze bezala



Iturria: Borzaga eta Defourny (2001)

Irudi honetatik nabarmentzen da enpresa sozialek hartzen duten guneak, egonkorra izan gabe, nola erakusten duen dinamismo propio bat Hirugarren Sektoreko erakundeak eraldatzen ari dena, trazu etenez marrazturiko lerroek islatu nahi duten bezala.

Gainera, azken hamarkadetan ikusi ahal izan da irabazi-asmorik gabeko erakunde ekimen hiritarretik sortutakoek nola diharduten enpresa-jarduera kapitalistak tradizionalki okupatutako jarduera-sektoretan, esaterako finantza etikoek edo merkataritza bidezkoek.

Beraz, badirudi komenigarria dela enpresa sozialen fenomenoak *continuum* bat bezala kontsideratzea sektore pribatuaren eta sektore publikoaren arteko punturen batean.

Enpresa sozialei buruzko analisia amaitzeko Ekintzaitza Sozial (Social Entrepreneurship), kontzeptuaren aipamena egitea komeni da aurrekoarekin zerikusian dagoen baina ñabardura batzuek ageri dituenarena, izan ere garrantzitsuak dira Laugarren Sektorea kontzeptura hurbiltzerakoan. Horregatik, Ekintzaitza Sozial nozioaren analisi xeheago bat garatuko da lan honetako laugarren kapituluaren.

### 3.2.5. Ekonomia Solidarioa

Ekonomia Solidarioak Ekonomia Sozialaren diziplinatik bertatik edaten du, nahiz eta nahikoa ezaugarri bereizgarri badituen era independentean kontsideratua izateko. Edozein kasutan, solidariotasuna etengabeko bilakaeran dagoen diziplina horren azpian datzan ideia da, ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantzazioko erlazio-erakuntzatik abiatuta, justizian, lankidetzan, elkarrekotasuna eta elkarren arteko laguntzan oinarriturik.

Europako Ekonomia Solidarioaren jatorriak Frantzian aurkitzen ditugu XX. mendearen laugarren laurdenean, nola globalizazioaren eta eredu neoliberalaren ondorio ezkorrei hala Ekonomia Sozialera mugaturiko zenbait erakundek jasaten ari ziren bilakaerari erantzun nahirik kapitalaren eta etekinaren maximizazioaren logikara haiek hurbilduz.

Nahiz eta ez dagoen kontzeptualizatzeko teoriko zehatzik eta, lehenago aipatu dugunez etengabeki eratze-fenomeno bat den, hala ere bi ikuspegiatik hurbil gaitezke Ekonomia Solidarioa.

Lehena, *alterglobalizazio*-mugimenduen gehitze-ikuspegia da eta ondorioz globalizazio neoliberalaren ereduari ondoriozko hautabide-bilaketa gizarte-mugimenduetatik beraietatik. Bigarren ikuspegia, izaera teorikokoa, funtsean Frantzian, Kanadan eta Latinoamerikako zenbait herrialdetan garatu da (Txile, Brasil, Argentina eta Uruguain batik bat). Ekonomikoaren kontzeptua zabaldu egin nahi du teoria ekonomiko ortodoxoak ekonomiko eta soziala denaren artean egiten duen bereizkuntza politikoki auzitan jartzearen bitartez. Ekonomia Solidarioa kontzeptualizatu egiten da horrela logika ekonomiko prozesu sozialen esparruan birsartzen duen fokatzeko bat bezala eta haren funtzioa planteatzen duen eta emaitza ekonomikoak balioesten dituen pertsona guztien giza beharrei eta planetako bizitzaren birsortze hedatuari kontu egiteko gai diren heinean. Gako demokratiko partaidetzako batetik eta ekoizpen, finantzazio, banaketa eta kontsumoaren dinamiketatik eta guneen kontrol hiritarretik egiten du gainera. Ekonomia gizartearentzat birkonkistatzeko era bat dela esan liteke. Hitz batean, Ekonomia Solidarioa ekonomia demokratizatzeeko era bat bezala aurkezten da, eta horren indarrez izaera politiko sakon baten kolorea hartzen du.

Nahiz eta bi ikuspegi horiek ez diren era independentean garatzen, zeren eta terminoaren kontzeptualizazioan diharduten pertsona gehienak aldi berean Ekonomia Solidarioaren esperientzia zehatzetan parte hartzen ari baitira, kontsidera daiteke, sistema ekonomiko hegemonikoari hautabide zehatz bideragarriak bilatzeak eragina duela bi barruti bereizi baino osagarritan.

Alde batetik, esperimentatzeko ahalegina egiten da izaera mikroekonomikoagoa duten hautabide zehatzagoak bilatzen, prozesu ekonomikoaren barruti guztietan erantzun eta bide hautabidezkoak ezarriko dituztenak, sustatuz, Sajardo eta Chavez-ek (2006) baieztatzen duten bezala, nola autokudeaketa hala haren kideen eta desfaboratuenean arteko solidariorotasuna. Aipaturiko hautabideak enpresetan eta erakundeetan hezurmamitzen dira, zeinak ahalegintzen baitira antolatzen eta solidariorotasuna, konfiantza, lankidetzeta eta lan kolektiboa bezalako printzipioen gainean eta lehenetsua ematen diete pertsonen eta haien ongizate banakoari eta kolektiboari ekintzaitzaren errentagarritasun ekonomikoa bilatzearen aurrean.

Bestaldetik, soslai mesoi eta makroekonomikoko artikulazioak sortzea da kontua esperientziak konektatzea eta truke-sare trinkoak edo kate produktiboen artikulazioak sortzea Ekonomia Solidarioaren irizpideen ildotik. Bide hori ernamuin bihurtzen da eta hartatik Ekonomia Solidarioa Hirugarren Sektorearen baitan kontzeptu aglutinatzaile bezala kontsideratzearen ideia azalerraten da, zeren eta, nolabait ere, hiru sektoreak zeharkatu eta elkarrekin erlazioanatu egiten baititu aldakuntza sozial sakonago baten mesederako.

Izaera teorikoagoa duen ikuspegi batetik, Ekonomia Solidarioa bi korrontetan bana daiteke haien arteko bateratze-gune garrantzitsuekin: europarra eta latinoamerikarra.

Lehen, fokatzeko makro batetik analizatuz eta Laville soziologo frantsesa erreferente nagusi delarik, ekonomia ulertzeko era berri bat bezala aurkezten da, konpromiso hiritarretik, ekonomia, gizarte eta politikaren arteko usadiozko banaketa ezeztatu ondoren. Nolabait, Ekonomia Solidarioak merkatuarekiko bere mendekotasuna lasaitu egiten du eta birbanaketa eta elkarrekikotasun printzipioak hartzen ditu bere baitan, Polanyik

Ekonomiaren ikuspen substantibistan defendatu zituenak. Ekonomia Solidarioak Hirugarren Sektorearekin konektatzen du (dohaintza eta elkarrekikotasunari dagokienez) Lehenarekin (merkatu-trukea) eta Bigarrenarekin (birbanaketa), nolabait agur eginez Laugarren Sektorea irteteari.

Europar korrantea fokatze mikroago batetik aztertzen badugu, hura esperientzia partikularretan eta elkarren artean ehuntzen diren sareetan, kezka ez dago hainbeste eredu hautabidezkoak proposatzen, baizik eta gaurko ekonomian leku bat bilatzean ekimen, enpresa eta erakunde horientzat, merkataritza-enpresa tipikoekin eta sektore publikoarekin bizikide izateko era bilatuz. Fokatze horrek literaturako gorputz oso garrantzitsu bat eragiten du, enpresa sozial izendatzen denaren gainean zuzenean zentratua, aurreko epigrafean tratatu dena. Ez alferrik, Ekonomia Solidarioari buruzko teoria asko praktika eta esperientzietatik zuzenean sortzen ari dira, ernaltze gurutzatuzko prozesu (teorikoa eta praktikoa) interesgarriei leku emanez eta horrek aberastasun handia sortzen du bai eta kontraesan eta zailtasun ugari ere aurrera egiteko zenbait unetan.

Korrante latinoamerikarrari dagokionez, Guerra (2004) eta Da Ros-ek (2007) Razzeto, Coraggio edo Singer aipatzen dituzte korrante horren barruko pentsamendu desberdinen adierazle bezala, eta ondorioztatzen dute, eta aldeak kontuan hartuz, egile horien arteko lotura egitura ekonomiko garaikideez egiten duten irakurketa bereziki kritikoan datzalarik, bai eta autokudeaketaren eta asoziazionismoaren erreskatean, gizarte-justiziaren aldeko aukeran eta planetaren gehiengo modu txarrean bizi deneko txirotasun eta bazterkeriako baldintzak gaintitzean, bai eta proposamen politiko eta ekonomikoak artikulatzearen beharrean, zeinek ahalbidetuko duten sistema ekonomiko kapitalista gaintitzea eta bide emango duten bizi-forma guztien birsortze hedatu batean zentratutako artikulazio sozial ekonomiko batera joateko.

10 R REAS irabazi-asmorik gabeko elkarte bat bezala itxuratu zen 1995ean, jarduera-barruti nazional eta nazioartekoarekin gaur egun izaera desberdineko 200 erakunde baino gehiagoren atxikimendua duena baino gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko ikuspuntua partekatzen dutelarik.

EAEn, Ekonomia Solidarioeko aktore ia guztiak Ekonomia Alternatibo eta Solidarioeko Sarearen (REAS)<sup>10</sup> inguruan elkartzen dira, 2009an esperimentaturiko magnitudeak honako hauek direlarik:

### 9. Irdia. Ekonomia Solidarioaren magnitude nagusiak

Kontzeptua	Guztizkoak
Emakumeek okupaturiko lanpostuen kopurua (lan egindako egun osotan adieraziak)	675
Lanpostuen kopuru guztizkoa (lan egindako egun osotan adieraziak)	1050
Emakumeek okupatutako ardura-postuen guztizkoa (lan egindako egun osotan adieraziak)	124
Ardura-postuen kopuru guztizkoa (lan egindako egun osotan adieraziak)	222
Diru-sarrerak guztira	61.831.984
Gastuak guztira	61.313.322
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako erosketen zenbatekoa	2.529.061
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei egindako salmenten zenbatekoa	4.860.602
Erakunde publikoetatiko laguntzengatiko diru-sarreraren zenbatekoa	24.714.988
Jarduera produktiboak eragindako diru-sarreraren zenbatekoa	25.619.585
Erakundeko erabiltzaileen, bazkideen eta afiliatuen kuotengatiko diru-sarreraren zenbatekoa	1.195.226

**Iturria: Pérez de Mendiguren (2008). Ekonomia Solidarioaren datu nagusiak Euskadin, 2009ko Auditoria Sozialeko adierazleetatik. REAS**

### 3.3. Lehen Sektorea

Enpresa pribatua pixkanaka diskurtso soziala beretuz joan da zentzurik zabalenean eta era askotara. Baldin eta aurreko garaietan osagai sozialak oinarritzko zerbitzuak hornitzearekin zerikusi handiagoa izan bazuen onura sozialak izendatu zirenen



bitartez, gaur egun Erantzukizun Sozialari aurre egiteko dituen erak konplexuak dira eta gizarteak bere osotasunean izan duen bilakaerara egokitu dira.

Enpresa sozialari eskainitako epigrafean erreferentzia ugari agertu dira baliozkoak direnak Bigarren eta Hirugarren Sektoreko helburu tradizionalak pribatuak pixkanaka nola joan den beretu dituen azaltzeko. Alde batetik, enpresa pribatuak Estatuak zenbait arazo konpondu ezin dituen merkatu-nitxoetan jokatzeko du eta horrek negozio-aukerak sortzen ditu. Eta emaitza ekonomikoa lortzeko lan sozial indartsu bat garatu behar diren egoeran ikusten du bere burua.

Enpresa-kudeaketako korronteen kopurua, zeinen bitartez beha baitaiteke Bigarren eta Hirugarren Sektorearekiko bat-egitearen fenomeno hau, oso handia da. Ondoren emango dugu horietako batzuen berri, agortzaileak izateko asmorik gabe baina bai ordea nahikoa maila zabalean ekarpen desberdinetako ñabardurak atzemateko.

Europar tradizioan Frantziaren kasua aipatu behar da, zeinek 1977tik indarrean jarri baitzuen sistema bat, legezko betebeharrak ere bazituen, zeinaren bitartez 750 enplegatu baino gehiagoko enpresek balantze sozial bat egin behar baitzuten. Gaur egun bat baino gehiago dira gai honetan legeria ezartzen dutenak. Kudeaketa-sistemetan aldagai hori ezartzera behartzeko ahalegin bat izan zen eta aplikazio eta emaitza desberdinak ekarri zituen<sup>11</sup>.

Arestikoagoa da Erantzukizun Sozial Korporatiboko (ESK) praktikak eranstea edo Enpresa Erantzukizun Soziala (EES), termino parekagarriak direnak<sup>12</sup>. Txosten honetan gaur egun Laugarren Sektorearen zutabe nagusietako bat kontsideratzen dugu eta halakotzat tratatzen dugu hurrengo kapituluan.

Emaitza ekonomikoez harago foku ekonomikoa hedatzen duen beste lerro bat EFQM kudeaketa-eredua da, zeini erakunde askok eskaintzen baitiote arreta. EA Eren<sup>13</sup> kasua da, europar aitortzak dituzten erakunde kopuru oso adierazgarri bat dago, Euskaliten web gunean<sup>14</sup> kontsulta daitekeen bezala. Eredu honek fokatzeko planteatzen du, zeinean emaitzak aztertzen baitira, bezeroengan ez ezik, bai eta pertsonengan beraian ere eta gizartean bere osoan hartuta. Kanpo-ebaluazioaren mendean dagoen eredu bat

11 Metodo-sailkapen bat kontsulta daiteke hemen, balantze sozialari ekiteko: <http://www.angelfire.com/journal2/communicarse/BalanceSocialModelos.pdf>

12 Horri buruzko baliabide-gida bat kontsulta daiteke: <http://www.ilo.org/public/spanish/support/lib/resource/subject/csr.htm>

13 Aurrerantzean, EAE erabiliko da Euskadiko Autonomia Erkidegoa aipatzeko.

14 Aitortza duten erakunde zerrenda kontsulta daiteke hemen: <http://www.euskalit.net/nueva/reconocimientos.php>

da EFQM-ren aurrean kreditatutako erakundeek finkatutako estandarrekiko adostasunean. EAEn, aipatzen zenez, Euskalitek duela zenbait urte ebaluazio-sistema bat kudeatzen du eta haren bitartez erakundeek kanpo-kontraste bat eska dezakete.

Antzeko lerro batean, enpresak merkatu-eskakizun bezala erantsi dio bere buruari garapen jasangarria, 1987an NBek argitaratutako Burtland Txostenean jatorriz sartutako kontzeptua. Fokatzeko hori korrante desberdinetan hezurramitu da, zeinen artean aipatzekoa den *triple bottom line*, arrunki TBL edo 3BL (*people, planet, profit*), bezala ezagutzen dena, enpresaren emaitzei hiru ardatzetan begiratzen diena: ekonomikoa, ekologikoa eta soziala. Elkington-en (1997) liburuak jendarteratua *triple bottom line*-k for-profit erakundeak balio ekonomikoa sortzen dutenak direlako paradigma nagusia gainditu nahi du, Non Profit deituak balio soziala sortzen dutenak diren bitartean. Gaur egun korrante horrek Lehen Sektoreak bere egitura-mugak gainditzeko saiatzen deneko formetako bat ordezkatzen du.

Bestalde, XXI. mendeko ekonomia, batzuek sistematikotzat jotzen duten krisi batean murgildua, merkatuarekiko lotura berrien bila dabil. Enpresek, aberastasun ekonomikoa sortzeko interfaze bezala, egunean-egunean hautabide gehiagotara jotzen dute. Aipatzekoa da ildo horretatik, ekonomia irekiko sektorearen arestiko analisia, MIK Koop. E.k burutua Industria Antolaketako Eskolarentzat Europar Funts Sozialak<sup>15</sup>. finantzaturiko Ekonomia 20+20 proiektuaren barruan. Hartan erakundearen hogeita kasu dokumentatu dira praktika hautabidezkoak darabiltzatenak, zeinetan oinarritzeko osagai bat asmo-zentzua etengabe bilatzea, helburu ekonomikoek harago.

Aipaturiko txostenak nabarmendu egiten du nola dauden merkatuaren eta erkidegoaren parez pareko garapenari aurre egiteko askotariko erak, zeinean merkatu hori kokatzen den. Jasangarritasun ekonomikoaz eta negozioaren jabeak direnei saritze-helburuengatik tentsioez harago, ekonomia irekia erakundeek ordezkatuz legoke, zeinek txertatzen baitituzte beren stakeholderren parte handi bat negozio-prozesuetan. Kontua ez da enpresa-jardueraren balio-kate klasikoa irudikatzea soilik baizik lokarri estuenarekin obratzen ari den lurraldea hedatzea,

<sup>15</sup> Dokumentua deskargagarri dago hemen: <http://bit.ly/ekonomiaabierta>

enpresa erasaten duten eragile guztiekin edo enpresaren erasana jasaten dutenekin.

Enpresek eta haiek bultzaturiko beste erakunde mota batzuek gizartean presentzia izateko era berri bat bilatzen dute. Aberastasun ekonomikoa sortzearen bere lanera ez dira mugatzen. Lipovsky eta Seroy-k (2010) diotenez kultura eta mundua berdintzen ari diren neurrian eta kultura-mundu bat eratzen ari diren heinean, enpresek paper bat jokatu beharra dute eszenatoki horretan. Ekonomia botere erreal bat bada eta markek definitzen badute neurri bateraino bizi garen kultura, enpresek hedatu egiten dute beren ekintza-eremua errealitatearekin bat egiteko eta gizarte-sarean ezin bereizizko bihurtzeko, Manuel Castells-ek bere obretan azaltzen duen bezala. Erakunde likidoak dira, atzemateko zailak, garatzen dituzten jardueren ugaritasunarengatik eta, gainera, atergabeko berrikuntzan daudelako.

Hartara, sektore pribatuak hedatu egiten du jarduera nola sektore publikoak kanporatzen dituen jarduerak beretzean, hala zentzu sozial handiago bat bere buruari eranstearen bitartez. Hartara, ez da harritzekoa enpresak gero eta gehiago «adimen emozionalaz» edo «garapen pertsonalaz» nola hitz egiten duen ohartzea, aldi berean bere emaitza ekonomikoak maximizatzea bilatzen duelarik, akziodunen presioarengatik edo hazten jarraitzeko baliabideak sortzea behar duen neurrian.

Esperientziak sortzearen bitartez (Pine & Gillmore, 1999) enpresa geruza antropologiko batean sartzen da eta errealitatearen atal eratzaile bezala egokitzen da. XXI. mendeko mundua ez dago korporazio handiak gabe azaltzerik baina ez eta Erakunde Publikoetatik –halaber– estimulatzen diren ekimen ekintzaileak gabe ere. Kapitalismo kognitibo eta aldi berean emozionala ari da azaleratzen, helburu ekonomikoak betetzeko era bat, jardueren panorama konplexu baten bitartez, zeinak bezeroen behar zehatzei erantzutearen sinpletasunetik urruntzen diren.

Niaren ekonomia batean, non pertsona kontsumoaren objektu eta subjektu bihurtzen baita, soziala den hori enpresaren DNAan txertatzen da. Merkatu-segmentuek, nitxo ugari bihurturik, beren burua antolatzen duten pertsona eta tribuei begiratzen diete. Erkidego baten atal sentitzen ahalegintzen dira,

merkatu baten hornitzaile kontsideratzenetik harago. Beharrezkoa da pentsatu eta sentitzea jendeak egiten duen bezala interakzioan aritu nahi duenarekin eta horrek sakonera handiko dimentsio sozial suposatzen du gorantz datozen jarraibide kultural eta antropologikoei begiratzen diena eta itsaso urdinak sortzeko benetakoa abaguneak izaten dira, non oraindik lehiarik ez dagoen, zeren aurrena iritsi eta merkatua sortzen duenak dena eramaten baitu.

Bioekonomia berri bat sortzen da horrela garen pertsonarekin eta osatzen dugun gizartearekin bat egiten dena. Ez dago modurik gertaera sozial eta gertaera ekonomikoa bereizteko zeren eta bigarrena lehenaren bitartez burutzen baita eta hura definitu egiten baitu. Aro fondista ezaugarritu zuen «produktu» kontzepzioaren «esperientzia» eta «zerbitzu» alderako desplazamenduak, behar espiritualak asetzen enpresa nola sartzan den bete-betean erakusten du. Bezeroei eskuratzen zaizkien produktuen ezaugarriek ez dute haien arreta erakartzeko balio. Haien interes banakoekiko komunioak eta haien emozioak goratzeak lortzen dute ekoizpen-kostuekin zerikusia duten morrontza materialetatik askatzen den lehiakortasun bat segurtatzea.

Antzeko beste lerro batean, filantropikismoaren goraldiaren lekuko ere bagara Filantropia enpresa-praktikei atxikitzen zaie lehiakortasuna sortzeko. Kasu batzuetan pertsona jakin batzuei oso lotuak<sup>16</sup>, jarduera mota hori barrendu egin da lehen munduko gizartearen. Izatez, egiazko korrante bat bihurtu da, batez ere mundu anglosaxoiari lotua, zeina indarrez azaleratzen dena «enpresa sozialaren» panoraman haren zentzurik zabalenean.

Hala, Bill Gatesek, adibidez, dio XXI. mendeko kapitalismoak «kapitalismo sortzaile» bihurtu behar duela, munduko txirotasunaren arazoak konpontzera deiturik dagoela. Fokatze hori Gates berak aurkeztu zuen 2008an Davoseko Mundu Foro Ekonomikoan. Ikuspegi horretatik, merkatuaren ahalmena da behar adina soberakin sor dezakeena txirotasunaren auziari ekiteko, negozio tradizionaletikiko neurri handi batean parez parekoak diren ekimen espezifiketatik. Korrante horrek beren negozioen bitartez fortuna handiak metatu dituztenen ego

<sup>16</sup> Kasurik ezagunena Bill Gates-ena izango litzateke, zeinek gaur egun Gates Fundazioaren bitartez, historiako filantropo handientzat hartzen baita Bill Gates beraren eta Warren Buffet-en ekimena ere aipa daiteke, Estatu Batuetako fortuna handiek beren aberastasunaren erdia kausa filantropikoetara ematera konprometi daitezen. Informazio gehiagorako: <http://givingpledge.org/>

pertsonalera jotzen du eta mundu hobearen zerbitzuetan haiek jar ditzaten ahalegintzen da. Nolabait esateko gizakiak bere barnean duen kontraesan bat ustiatzen du: egoismoaren bitartez besteei laguntzea.

Nahiz eta berriki ezagutarazi izan bada ere Matthew Bishop eta Michael Green-en (2008) liburuaren bidez, izatez ideia mota horiek Peter Drucker bezalako klasikoek aurretik planteatuak zituzten. Hurrengo epigrafean, Bigarren Sektoreari eskainitako horretan, beste jatorri baten aipamena egingo dugu fokatze horretarako, Tony Blair-ek mahai gainean jarri zuen «hirugarren bidea» deituarena.

### 3.4. Bigarren Sektorea

Azkenik, nahiz eta Hirugarren Sektoreari eta Lehen Sektoreari eskainitako aurreko epigrafeetan, Erakunde Publikoei buruzko aipamenak etengabeak izan diren, hemen ideia espezifiko batzuen ekarpena egin nahi dugu, gure argudiatzeari argi gehiago isurtzen diotela ulertzen baitugu.

Hartara, Erakunde Publikoetatik, zerbitzu sozialak hornitzea iraunkorra izan baita haren jardueran. Bere garaian ongizatearen estatua bilatzea lehen munduko gizarte aurreratuentzat izan zen hartan, Bigarren Sektorea gizarte garaikidearen aurrerapenari laguntzen saiatu da. Hala ere, Egia da ere Administrazioaren papera aldatuz joan dela denboran, batez ere XX. mendearen azken aldetik, enpresa pribaturik iritsi zaion efizientzia- eta lehiakortasun-paradigma beretu duen neurrian.

Arrakasta –ekonomikoa batik bat– erakunde-jarduerarako erreferentzia bezala bizitzako arlo guztietara hedatu da. Lurraldeek lehiakortasuna irabazi behar dute lankidetzara publiko eta pribatua integratzen duten planteamenduekin, non hezkuntza zimentarri bat izango den arrakasta-garaiera handiagoak bermatzeko, eta non sektore publikoak ez duen egingo pribatuak era eraginkorrean egin lezakeenik. Hala ere, ondo dokumentaturik dagoenez (Lipovetsky, 2007), gizarte aurreratuak ez dira derrigor zorionsuagoak. «Arrakasta ekonomikoaren» garaiera batzuk lortuta aurrerapen materiala ez dator bat beste aurrerapen mota pertsonalago edo espiritualago batekin.

Publikoa denaren jarduera-barruti tradizionala esternalizatuz joan da ekimen pribatuei bide emateko, zeinen bezeroa, aurrenik, Administrazioa baita, eta haren zerbitzuen hartzailetzat hiritarrak ditu. Administrazioaren barnea huste horrek –Naomi Klein-en (2007) adierazpidean Laugarren Sektorea irtetea eragin du. Aurrerago azalduko denez adibide sektorial batzuekin, publikoa dena nahastu egiten da zerbitzu pribatuak hornitzearekin baina osagai sozial indartsuak dituztenekin. Publikoak behar adinako eskaintza maila lortu ez duen tokian, pribatua agertzen da panorama osatzeko. Eta batzuetan merkatu bat sorrarazteko ere bai lehen ez zegoen tokian.

Hala ere, interesgarriak dira akimen publikoak lurraldea balioan jartzeko, beste aldagai batzuen artean, bizi-kalitatea talentua erakartzen duen faktore bezala. Hori, talentua, erakunde-politiken xede bihurtzen da: marketing-jarduera ohargarri bat garatu behar da hura erakartzeko, baina era berean egia da pertsonak balioetsi eta erakarriko dituzten zerbitzuen eskaintza erreal batean oinarriturik egon behar duela

Kontsidera daiteke planteatzen dena, funtsean, neurri ohargarriko aldakuntza bat dela gizartearen beraren kontzepzioan. Baliteke ez egotea aldakuntza azeleratuen une batean baizik eta benetako aldakuntza sistemiko batean. Estatu birkontzeptualizatu egiten da eta, adibidez, Tony Blair-ek «hirugarren bidea» deitu den horretan planteatzen diren bezalako fokatzek agertzen dira, merkatuaren eta esku-hartzearen fokatzek elkarrekin nahastuko lituzketen planteamendu-amalgama bat. Ez dago inolako zalantzarik fokatze oso sentiberak direla interpretazio desberdinekiko eta sozialdemokraziarekin, liberalismo progresista edo merkatuko Ekonomia Sozialarekin nahasten direla.

Gauzen beste sail batean, fokatze hautabidezkoak dituzten diskurtsoak ere sortzen dira, zeinek kasu askotan politikaren esentziara itzultzen saiatzen direnak gaurko garaian agian galdutako balio-berreskuratze batera bezala. Filopolitika nozioaren kasua da, adibidez, (Gutiérrez Rubí, 2010), non proposatzen baitzaigu balioen ikuspuntu hausnartuago eta sakonago bat, klase politikoa pertsona kudeatzaile soilak baino zerbait gehiago egingo duena, baizik eta zentzu helburuzko berri bat lortzen


duena, orekatuagoa eta lidergoaren zentzu berritu batekiko adi dagoena gaurko gizartean. Horrek erakundeen kudeaketa batera gidatzen du, zeinetan emozioek paper aktiboagoa jokatzen baitute, gaitasunek eta jarrerak jokatzen dutenaren parekoa. Hitz batean, bideak bilatzea da kontua gure politika demokratikoari haren ekintza eraldatzailea erraztuko duen trinkotasun moral eta etikoa hornitzeko. Planteamendu horiek hurbil daude Daniel Innerarity (2006) bezalako beste egile batzuek proposatzen dituztenetik gune publiko berri bat eraikitzeko.

Halaber, egia da gaur egun krisia faktore eragile bat bezala kontsideratu behar dela Erakunde Publikoen papera ulertzeko era berri batena. Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Behatokia, adibidez, gogoeta interesgarri bat proposatzen du politika publikoen aurreko kokamenduaz, Estatuari hau eskatuz: «tartean sartzeko eta paper aktiboago bat hartzeko erantzukizuna ESKa ezartzerakoan, esku-hartzezko eta sustapenezko arau batzuen konbinazioaren bitartez, enpresaren borondatezotasunetik harago arautuko dutenak». Hau da, publikoaren kontrol jakin bat behar dela Laugarren Sektorea irten dadin.

Era generikoan administrazioak sentiberagoak izaten hasi dira merkaturia egiteko era jakin baten beren bermatzaile-paperekin. Gero eta gehiago eskatzen zaie beren gain har dezatela paper hori legeriaren bitartez eta hura bete. Darin beharrezko neurriekin. Ildo horretatik aipa daiteke, EAEko barrutian, Eusko Jaurlaritzako 2008ko ekainaren 19ko 6/2008 Ebazpena, zeinen bitartez finkatzen baita irizpide sozial, ingurumeneko eta beste politika batzuk eransteko akordioa Administrazioa eta Autonomia Erkidegoa eta haren sektore publikoa kontratatzean eta Europar Parlamentuko 200/18/EE Zuzentaraua eta 200ko martxoaren 31ko Kontseilua, eta Sektore publikoko Kontratuen legea 30/ 2007 Legea (2008ko apirilaren 30etik indarrean dagoena) Europako erkidegoko zuzentaraua lekualdatzen duena.

Era berean, Europar Parlamentuko ebazpen bat onartu zen «merkataritza bidezkoa eta garapena» 2006ko ekainean (2005/2245 INI), zeinen bitartez dei egiten baitaie europar agintaritzei merkataritza bidezkoaren irizpideak ezar ditzaten beren lehiaketa publikoetan ( 22, 23 eta 24 art.).

## 10. Irudia. Kontratatzeko-errien kopuruaren bilakaera irizpide etikoekin



Iturria: IDEAS Erosketa Publiko Arduratsuaren Programa

Aurrekoaren adibide on bat da erosketa publiko jasangarriko irizpideak eranstea, izan ere gero eta gehiago eskatzen da Administrazioak bere kontratazioetan haiek ezartzea. Erosketa publiko mota hori «etiko» bezala definitzen da<sup>17</sup>:

*Erosketa Publiko Etikoak erreferentzia egiten die kontratu publikoei, zeinek sartzen baitituzte irizpide etikoak nazioarteko konbentzioak betetzeari buruz eta lan-baldintza duin, gutxieneko soldata, langileen eskubide, haurrek egindako lanaren aurkako borrokari buruzko estandarrak, lehentasuna emanaz beren erosketetan irizpide edo estandar zorrotzagoen aldeko apustua egiten duten hornitzaileei eta produktuei, nola diren merkataritza bidezkoaren estandarrak.*

Aurreko irudiko grafikoan nabarienez, erosketa publikoko datuei buruz IDEAS txostenetik ateratakoan, 2010eko Espainiako jasangarritasunaren txostena egitean, bilakaera baikorrek begibistakoa dirudi.

Era berean, EAEko barrutiko Administrazioak badirudi dagoeneko hasia duela «erosketa eta kontratazio publiko berdeko» bide bat. Aipagarri da *Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko Eskuliburu Praktiko* bat lantzea, dagoeneko eskura dagoena eta

17 Xehetasun gehiagorako, hemen kontsultatu egin: <http://www.com-prapublicaetica.org>



zeinean ingurumenaren jasangarritasuneko irizpideen ekarpena egiten den produktu/zerbitzu sorta bat erosterakoan<sup>18</sup>.

### 3.5. Aurrekarien laburpen txikia

Aurreko guztitik hau atera daiteke: Laugarren Sektorea irtetea «ezin daitekeela ez gertatu», zeren dagoeneko nolabaiteko errealitatea baita. Froga asko daude hiru sektore tradizionalak dagoeneko beren muga tradizionala gainditzera jotzen duten jarduerak erakusten ari direlako. Hirugarren Sektorea, gure aurkezpena gidatu duena, adibide ona izan daiteke zer irakite-egoeratan dagoen sozialki eta ekonomikoki jasangarriak izan nahi duten produktu eta zerbitzuen hornidura.

Aurrekariak korrante-aniztasuna erakusten dute, zeinak jartzen baitira abian hiru sektore klasikoetako edozeinetatik, eta zeinek bilatzen baitute, bakoitzak bere ikuspegitik, jatorriz joan litezkeena baino harago joatea haien sailkapen hertsiarri badagozkio Lehen, Bigarren edo Hirugarren Sektoreko erakunde bezala. Begi-bistakoa dirudi badagoela haien guztien topagune bat, ñabarduren gama zabal batekin, eta arreta batzuekin haiek interpretatzerakoan. Arrakastaren gizartearen nagusitasunak balioaren ekarpena egiteko era berriak etengabe bilatzera gidatzen du eta, argi dago, bai eta produktuen edo zerbitzuen hartzaila direnek era horretara hautemanaraztera. eta hori medioen hedatze handi batekin egiten da salbuespenik gabe hiru sektoreak bere baitan hartuz.

Aurrekarien kapitulu honen ondoren Laugarren Sektorea defini dezakeela uste dugunari buruzko gure proposamen teorikoa garatzera pasatuko gara. Horretarako, honako lerro handiak erabiltzen ditugu: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Ekintzailtza Soziala, negozio barne-hartzailak Piramidearen Oinarrian eta merkataritza bidezkoa.

18 Ingurumen Er-  
duzkotasuna Euskal Ad-  
ministrazio Publikoan  
Txostenean informazio  
gehiago, euskaraz eta  
gaztelaniaz hemen  
deskarga daitekeelarik:  
<http://bit.ly/jAdb8K>

## 4.

### LAUGARREN SEKTOREAREN ZUTABEAK

#### 4.1. Sarrera

Aurreko kapituluak kidekoak diren nozio batzuk jaso dira, eta haien inguruan irekitzen diren debateak, nolabait testuingurua edo substratua marratzeko, zeinen gainean planteatzen baita Laugarren Sektorearen irteera. Ez dira, ildo horretatik, Laugarren Sektorearen proposamenaren oinarriak, nahiz eta sektore tradizionalak bakoitzaren baitan debate jakin batzuk ibili dabilzan ibilbidea markatzen duten eta, neurri batean, konpontzen ari diren Laugarren Sektorearen postulatuetatik defendatzen diren irizpideak hurbileko fokatzek hartuz.

Ondoren aurkeztuko dugun kapituluak proposamen teorikoak jasotzen ditu, neurri handi batean dinamikoki birsortzen dituztelarik Laugarren Sektorearen premisa teoriko bezala alde aurretik identifikatuak izan diren oinarriko elementuak, hau da: «Erantzukizun Sozial Korporatiboa», proposamena «Ekintzailatza Soziala», eta «Piramidearen Oinarriko Negozio Barne-hartzaileak» proposamenak eta «merkataritza bidezkoarena».

Proposamen hauek desberdinak dira bateragune edo topagune batzuekin, baina fokatzeko oso desberdinekin eta garapen bestelako batzuekin. Dagoeneko sendotuak diren enpresa pribatuaren barrutitik datoz argi haiek batzuk, bai ekintza propioen ondorioei buruzko berrikuste batetik, edo nazioartekotze-apustu bezala, enpresa-jardueraren garapenean bertan helburu sozial eta ingurumenekoak integratzeko gai diren irizpideen gainean. Beste batzuek, hala ere, ekintzailatza berriak eta negozio-ereduak sortzearen noranzkoa erakusten dute, aurrez aipaturiko helburuak integratuko lituzketenak. Beste batzuk, azkenik, ez dira Lehen Sektoretik fokaturiko proposamenak soilik baizik eta markatu egiten baitituzte gizartearen garapenean parte hartzen duten eragile publikoen multzorako orientabide berritzaile eta sozialki konprometituenak.

Premisa desberdinetatik abiatuz ere, haien artean partekatu egiten dute eta Laugarren Sektorearen ideiarekin haren elementu definitzaile nagusietako bat: antolaketa-esperientzien izaera hibrido eta sektoreartekoa, zeinean hezur-mamitzen baita praktikan, hiru sektore tradizionalen arteko integrazioa eta lankidetzako formulen alde egiten duten eta haiek guztiek

parteka ditzaketen orientabide batzuk hornitzen dituzten neurrian. Guztiek beren baitan har ditzaketen orientabide sozialki berritzaileak diren beste horietatik, ekintzailtza-formula berriak sor litezke, aktore desberdinak (publikoak, pribatuak eta sozialak) integratzeko gai diren heinean eta helburu desberdinak (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak) izaera ekoizle-enpresako antolaera-estrategia beraren azpian, sendotzeko gai izango lirateke txosten honetan ezaugarritu nahi dugun Laugarren Sektoreko gune kontzeptualean.

## 4.2. Erantzukizun Sozial Korporatiboa

### 4.2.1. Sarrera

19 ASPEN INSTITUTE  
and W. K. KELLOGG  
FOUNDATION: «The  
Emerging Fourth  
Sector»

Laugarren Sektorerako planteatzen den definizioan<sup>19</sup>, behar sozial eta/edo ingurumenekoak asetzeko jarduera (nagusiki berritzaileak) garatzea duela helburu esaten da, negozioek berezkoak dituzten praktikak erabiliz. Ildo horretatik, negozioek berezkoak dituzten praktikak erabiltzeak etekina bilatzera eramaten du eta, ondorioz, Lehen Sektorearekin kidetuta daitekeen zerbait da. Aldiz, azken urteetan, enpresek, argi eta garbi etekinaren bila bideratutakoek ere bai, soziala denaz arduratzera jotzen dute, sozialarekiko sentiberatasuna gehitu egin da mundu-abagunearen fruitu bezala. Horrek eragin du enpresek Erantzukizun Sozial Korporatiboko Departamentuak garatu izana, sentiberatasun hori asetzera bideratuak hain zuzen.

Laugarren Sektoreaz hitz egiten denean, helburu sozial bat duten enpresez ari gara, behar sozial bat asetzen dutenez, horregatik Laugarren Sektore horretako zutabeetako bat Enpresa Erantzukizun Soziala da edo Erantzukizun Sozial Korporatiboa (aurrerantzean EES eta ESK hurrenez hurren), nahiz eta egia den horretara bakarrik ez dela mugatzen. Ildo horretatik, Lehen Sektore klasikoko enpresa batek, kontzientzia soziala duenak eta, zeinean EESak pisu handia duen, ez du esan nahi Laugarren Sektoreko enpresatzat hartua izatera pasa daitekeenik. Baina era horretara hasi dira Lehen Sektoreko enpresak laugarren Sektorera hurbiltzen, hau da, soziala denaz arduratzen hasita eta Enpresa Erantzukizun Soziala garatuz. Laugarren Sektorea plus bat da aspektu sozialetan EESarekiko, nahiz eta EESa Laugarren

Sektorearen zutabe bat dela kontsidera daitekeen irabazi handiko enpresek izan duten lehen hurbiltzea gertatzean soziala dena enpresa-mundura gerturatzerakoan.

#### 4.2.2. Hurbiltzea eta Aurrekariak

EESaren aurrekariak XIX. mendean daude Kooperatibismoaren eta Asoziazionismoaren esparruan, zeinek bilatzen baitzuen enpresa-eraginkortasuna demokraziaren printzipio sozialekin, autolaguntzarekin, erkidegoarentzako laguntzarekin eta justizia banatzailearekin adostea. XIX. mendean Europa eta EEBBetako industria-enpresaburu batzuek etxebizitzaz, ongizateaz eta beren enplegatuen karitateaz arduratu ziren. Aldi berean mugimenduak sortu ziren zenbait talderen aurka agertu zirenak, zeinek etikotasun gutxikotzat baitzeuzkaten gizartearentzat kaltegarriak ziren produktuez irabaziak egiten zituztelako, hala nola tabakoaren, alkoholaren eta abarren salmentaz. XX. mendearekin eta Ongizate Estatuaren garapenarekin, sentimendu filantropikoa irauli egin zen harreman formal integraletan erakundeen barruan; nahiz eta ordu arte enpresaren helburu bakarra produktibitatea eta etekin ekonomikoa gehitzea baizik izan ez zen.

Ekin diezaiogun hasieratik: non eta zertatik sortu zen enpresei erantzukizuna planteatzeko debatea eta eskaera soziala? Historia agortzaile bat egin nahi izan gabe, hasierako puntu bat adierazi nahi dugu gaurko planteamendua haren aurrean ulertzeko aukera emango diguna. Hartara, Erantzukizun Sozialaren inguruko trazatuaren jatorrizko sustraia 20. urteetan kokatzen da enpresa-filantropia deituarekin eta enpresa, bere gidarien ekintzaz harago, ohartzen hasten denean, bere jabeentzat etekinak eragiteaz gainera, baliabide sozialen administratzailea ere bazela eta, ondorioz, kontuan izan behar zituela bere erabakien ondorioak erasandako guztientzat. Aldi berean, karitatearekin zerikusia zuten auziak sortu ziren, enpresaburuaren beste betebeharrerako bat bezala, eta hori, nolabait esateko, fokatze asimilatzaile batetik edo zeharo akritiko batetik eransten zaio hasi berritako diskurtso hari.

Hala ere, 50. urteen hamarkada arte ez da gertatuko Erantzukizun Sozialaren inguruko lehen uholdea izenda dezakeguna. Haren ezaugarri nagusia enpresaren eta gizartearen

artean *elkarrekiko harremanaren* arazoa planteatzen hastean datza: hura gizartean okupatzen duen *lekuaz* galdezka hasten da eta, ondorioz, hari egin diezaiokeen *ekarpenaz*. Lehen uholde zehatz horrek dagoeneko ematen ditu txertaturik dagoeneko oinarritzko koordinatuak, ordudanik, eta orain arte Erantzukizun Sozialari buruzko debateak dituenak. Lau dira:

- Enpresa ez murriztea bakarrik eta eskusiboki bere funtzio ekonomikora.
- Enpresa-jardueraren barruko talde guztiei gero eta arreta handiagoa eskaintzea (barne-barrutian batik bat).
- Etxebizitza babestuen aldeko apustua, geroko eraikuntzaren %50 izango dena.
- Enpresa inplikatzeko arazo sozialak konpontzen.

Nahiz eta adierazpidea EEBBetan sortu zen 50-60 bitartean, 90 arte ez da garatuko Europan, Europar Batzordeak gizarte-kohesio handiagoa eragiteko enplegu-estrategia batean enpresaburuak inplikatzeko kontzeptua erabili zuenean. Hartara jotzeko argudio nagusia izan zen europar gizartean gero eta arazo gehiago zegoela iraupen luzeko enplegu-gabeziaren eta horrek zekarren eskusio sozialaren inguruan. Geroago 1999an NBEko idazkari nagusiak Davoseko Mundu Foro Ekonomikoan eskatu zuen giza aurpegidun balioak eransteko mundu-merkatuari. Kontua da laurogeita hamargarren urteetatik kontzeptu hori indarra hartuz joan dela eta etengabe eboluzionatuz joan dela, globalizazioa, jarduera ekonomikoaren azeleratzea, kontzientzia ekologikoa eta teknologia berrien garapena etorri eta gero.

Erantzukizunaren historiako oinarritzko mugari bat gure kontinentean Lisboako Europar Kontseiluak ezarri zuen, izan ere 2000ko martxoan enpresen Erantzukizun Sozialaren zentzuari ageriki dei egin baitzion. Harrezkero, begi-bistakoa da haren inguruko ardura eta kezka hazi besterik ez dela egin, eta barruti inplikatu guztietatik egin du: erakunde nazional, europar eta nazioartekoetatik, nola enpresa handietatik hala ertain eta txikietatik, sindikatuetatik, hiritar-antolakeretatik, GKEetatik, unibertsitateetatik eta, oro har, hiritar guztiengandik. Harrezkero, bata bestearen atzetik eta ugalduz etorri dira deklarazioak, itunak,

akordioak, foroak, lan-taldeak, argitalpenak, txostenak, bai eta negozio eskola nagusietan Erantzukizun Soziala curriculumetako ikasgai bezala sartzea. Jakina, enpresa handiak erreakzionatzen hasi dira Erantzukizun Sozialari buruzko auzientzat sail berezi bat eskainiz beren organigrametan. Ondoren deklarazio ETA printzipio esanguratsuetako batzuk jasotzen ditugu, kasu honetan erreferentziako ostertz bezala aurkezten direnak Erantzukizun Soziala kontzeptualizatzeko, bai eta enpresa-kudeaketan integratze-ataza horretan garatu beharreko lerroak eta neurri estrategikoak finkatzeko ere. Deklarazio horietako batzuen gai nagusia Erantzukizun Soziala da. Beste batzuek, ordea, era berehalakoan ekiten ez badiote ere ez dute soilik auresuposatu egiten baizik eta adierazle esentzialen ekarpena egiten dute haien lerro zentralak zehaztu eta nabarmentzeko.

Erantzukizun Sozial korporatiboa (ESK) Enpresa Erantzukizun Soziala (EES) ere deitua enpresen aldetik hobetze sozial, ekonomiko eta ingurumenekora ekarpen aktibo eta borondatezko bezala defini daiteke, oro har bere egoera lehiakor eta balioespenekoa eta bere balio erantsia hobetzeko xedearekin. Erakundearen baterako jardueraren ebaluazio-sistema ataza horietan emaitza hirukoitz bezala ezagutzen da.

Erantzukizun Sozial korporatiboa legeak eta arauak betetzeaz harago doa, haiekiko errespetua eta haiek zorrotz betetzea suposatutzat emanez. Ildo horretatik, lan-legeria eta ingurumenarekin zerikusia duten araudiak abiapuntu dira ingurumenaren erantzukizunerako. Oinarrizko arau horiek betetzea ez dagokio Erantzukizun Sozialari baizik eta bere jarduera burutzeagatik bakarrik edozein enpresak bete behar dituen betebeharrei. Nekez ulertu ahal izango litzateke enpresa batek EESeko jarduerak alegatzea bere jarduerarako erreferentziako legeria bete ez badu edo betetzen ez badu.

Administrazio eta management kontzeptu horren azpian praktika, estrategia eta enpresa-kudeaketako sistema sorta bat biltzen da dimentsio ekonomiko, sozial eta ingurumenekoaren artean oreka berri bat bilatuz.

Frantses-legearen 2001eko araudi ekonomiko berriari buruzko 116. artikulua izaera sozialeko bere ekintzei buruz informatzeko

betebehar juridikoa ezartzen die enpresei. Brasilen, Luis Ignacio «Lula» Da Silva ezkertiarra buru izan zuen koalizioa, zeinean enpresaburu askok parte hartu baitzuten ESKa sustatu zuen eta Erantzukizun Sozialako Legearen proiektu bat 2003ko urrian. Badira arau ofizialak ESKari buruz hala nola, SA 800 (Social Accountability Standard 8000) Council on Economic Priorities-ek sustatua eta SAI-k aplikatua, bai eta Foretikako SGE 21 araua, munduko arau bakarra globalki ziurtatzen duena ESKa haren barruti guztietan, efr enpresa ekimena Masfamilia Fundaziokoa erakunde baten «Barruti Sozial Barnekoa» deituko litzatekeenean bereziki eragiten duena, lan-adosteari buruzko arau berri bat hazkuntza handi bat izaten ari dena espainieraz mintzo den barruti guztian zehar.

#### 4.2.3. Kontzeptua

Erantzukizun Sozialak gaurko enpresa-munduan gorantz datorren dinamika bat adierazten du. Gero eta argiagoa den kontzientzia-tziaziotik sortzen da, mundu globalizatu honetan jarduera ekonomiko eta enpresakoak inplikatzeko dituen ezin saihestuzko inpaktuetatik. Enpresa-ehunari bere osotasunean erasaten dio, edo hobeki esateko, jardueraren bat burutzen duten erakunde guztiei, zeinahi delarik ere, inpaktu sozial edo ingurumenekoarekin.

Dagoeneko presente dago enpresa handi gehienetan (eta neke handiarekin aurrera eginez enpresa ertain eta txikiaren artean), hala ere, oraindik garabidean eta aldakuntza handien mendean dauden enpresa-baliabideak kudeatzeko modu bat inplikatzeko du. Esan liteke, printzipioz, Erantzukizun Sozialaren eta berrikuntzaren artean dagoen lotura askaezina emanik, bere izaera propioz definizio «oso eta behin betiko» baten mendean jar ezin daitekeena dela; aitzitik, derrigor dinamikoa da eta etengabeko modifikazio eta berregokitzera irekita dago. Haren irismen orokortuak, bestalde, zera inplikatzeko du, kontzeptualizazioa, definizioa, eta, batez ere, Erantzukizun Sozialaren inplementazioa erakundeek zehaztu egin behar dutela beren jarduera, tamaina, sektore, ezarpen-barruti, lokalizazio, eta abar motaren indarrez. Horregatik guztiarengatik, Erantzukizun Soziala zer den ezagutu



eta ulertzeko aukera emango diguten gako orokor eta ezinbestekoak orain eskaintzera mugatuko gara. Ikuspegi global eta generiko honetatik, ulertzen dugu ondoren haren esanahia nabarmentzera jo beharko litzatekeela enpresa bakoitzaren edo enpresa-armazioa bakoitzaren izaera desberdinari eta berezitasunei kontu eginez.

Beraz, lehenik esan daiteke dagoeneko topiko izatera iritsi den zerbait Enpresaren Erantzukizun Sozialaz hitz egitean; epigrafe honen hasieratik, hitz batean, dagoeneko adierazi den zerbait: gorantz eta dinamismo atergabean datorren errealitate bat delako, ez dago ahobatezkotasunik, eta irizpide eskuarki onarturik ere ez dago Erantzukizun Sozial kontzeptuari eta haren helburuei, funtzioei, elementuei eta irismenari dagokienez.

Ezin dugu ezkutatu batzuentzat moda bat besterik ez dela, beste batzuentzat «kosmetika» auzi bat; beste kolektibo batzuentzat kapitalismoaren aurpegi atsegina da, gizartearen eta kontsumitzaileen aurrean «ongile» bezala justifikatzeko balio duen mekanismoa eta horrela bere hazte-dinamikarekin jarraitzeko; kritikoenentzat «arduragabekeria» hutsa besterik ez da.

#### **4.2.4. Zergatik hitz egiten dugu ESKaz edo EESaz?**

Bada desberdintasun soutilbat Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) eta Enpresa Erantzukizun Sozialaren (EES) artean enpresa eta korporazioa bereizten dituzten artean, azken horrek erakunde guztiak enpresazkoak edo ez eta haien tamaina kontuan hartu gabe bere baitan hartzen dituelako, nahiz eta askorentzat bi adierazpideek gauza bera esan nahi duten.

EESaren edo ESKaren arteko desberdintasuna ahobatezkoa da. Erantzukizun Sozialaz ulertzen da hiritar guztiek, erakundeek –publikoek eta pribatuek– eta erakunde sozialek, oro har, duten konpromisoa tokiko eta munduan zeharreko gizarteak ongizatea gehitzen laguntzeko.

Beharrezkoa da esatea sarritan, hirurak desberdintasunik gabe laburtzen direla Erantzukizun Sozial Korporatiboa aipatzeko. Edozein kasutan ESA ez zaie konpainia pribatuei soilik aplikatzen. Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK) hedatu egin da gobernu-agentziak eta beste erakunde batzuk bere baitan hartzeko, bere lana nola egiten duten erakusteko interes argia baldin badute.

#### 4.2.5. Ees-arekin zerikusia duten erakundeak, antolaerak eta ekimenak

##### Nazio Batuen Global Compact (Mundu Ituna)

1999an sortu zuten Kofi Annan NBEko Idazkari nagusiaren eskariz eta erreferente behartua da maila kontzeptuarekin zerikusia duen guztiarekin eta Erantzukizun Sozialari aplikatzeko.

Konpromiso etiko argiko ekimen bat da, herrialde guztietako enpresek beren estrategiaren eta beren eragiketen atal integral bezala har ditzaten, hamar jokabide- eta ekintza-printzipio Giza Eskubideen, Lan Jardueratan eta, jakina, Ingurumenen.

Itunak estatu-plataformen bitartez jokatu du eta lan-sare integratu batekin funtzionatu du, zeinean NBEak, haren sektore-antolaerak, GKE eta batasun sindikalek haren printzipioak eta helburuak sustatzen baitituzte.

Dagoeneko aski erroturik badago ere, duen erronka nagusia hartara atxikitzen diren enpresek serio ki printzipioak betearaztea eta prozedura egokiz hornitutako, eta jakina, egiaztagarriak diren txostenen bitartez haiek bete direla jakinaraztea da. Izatez, Mundu Itunari egiten zaizkion kritika arruntenetako bat enpresei printzipioak betetzen eskatzen zaien konpromisoaren arintasuna da. Horregatik, baldintzak ezarriko zaizkiela iragarri da gardentasun informatiboa eta kontu bihurtzea eskatzeko enpresei.

Global Compact-aren hamar printzipioak honako hauek dira:

- ✓ Giza eskubideak
  - Enpresek lagundu eta errespetatu egin behar dute oinarrizko, nazioartean aitortutako giza eskubideak babestea, beren eragite-eremuan.
  - Enpresek ziurtatu egin behar dute beren enpresak ez direla konplize giza eskubideak urratzen.
- ✓ Lan-harremanak
  - Enpresek bultzatu egin behar dute afiliazio-askatasuna eta negoziazio kolektiborako eskubidearen aitortza efektiboa.
  - Enpresek lagundu egin behar dute ezabatzen behartutako

- edozein lan-era edo indarpean burutua.
- o Enpresek bultzatu egin behar dute haurren lana eraztea.
- o Enpresek lagundu egin behar dute enpleguan eta okupazioan diskriminazio-jarduerak ezeztatzea.
- ✓ Ingurumena
  - o Enpresek fokatze prebentibo bat mantendu beharko dute ingurumenari mesede egingo diona.
  - o Enpresek ingurumenarekiko ardura handiago bat bultzatuko duten ekimenak sustatu behar dituzte.
- ✓ Ustelkeriaren aurkako borroka
  - o Enpresek ustelkeriaren aurka lan egin behar dute beren haren forma guztietan, estortsioa eta eroskeria barne direla.

### **Lanaren Nazioarteko Erakundea**

Nazio Batuen erakunde espezializatu bat da lanari eta lan-harremani buruzko gaiez ardurazten dena. 1919ko apirilaren 11n sortu zen, Versaillesko Hitzarmenaren negoziazioen esparruan. Haren Konstituzioa, 1919an berretsia, 1944ko Filadelfiako Deklarazioak osatzen du. OIT-LNEk hiruko gobernua du, gobernuen, sindikatuen eta enplegatzaileen ordezkariak osatua. Haren organo gorena Nazioarteko Konferentzia da, urtero ekainean elkartzen dena. Haren administrazioa LNEren Administrazio Kontseilua da lau hilabetez behin elkartzen dena. Administrazio Kontseilua da LNEren organo betearazlea, eta urtean hiru aldiz elkartzen da Genevan. Eneko politikari buruzko erabakiak hartzen ditu eta programa eta aurrekontua finkatzen ditu, ondoren Konferentziari aurkezten zaizkionak onarpenerako. Berak hautatzen du Zuzendari nagusia. 2003an berrautatu zuten kargurako Juan Somavía txiletarra. Egoitza nagusia Genevan (Suitza) dago. 1969an LNE Bakearen Nobel Saria jaso zuen. 183 estatu nazionalak osaturik dago (2010).

1997ko azaroan LNEaren Administrazio Kontseiluak onartu egin zuen Enpresa Multinazionaleri eta Politika Sozialari buruzko Printzipioen Hiruko Deklarazioa. Deklarazioak izaera borondatezko duten printzipio-zerrenda bat dakar eta gonbit

egiten die Estatuari, langileen eta enplegatzaileen erakundeei, bai eta enpresa multinazionalari printzipio horiek betetzera.

Deklarazioak bere burua zuritzen du kontuan hartuz «enpresa multinazionalak zeregin oso garrantzitsua dutela herrialde gehienetako ekonomietan. Nazioarteko inbertsio zuzenenerako eta beste bitarteko batzuen bidez, enpresa horiek *funtsezko abantailak ekar diezazkiokete harrerako herrialdeari* eta jatorrizko herrialdeei, kapitala, teknologia eta lanaren erabilera eraginkorrago bati lagunduz. Oso *ekarpen handia egin dezakete ongizate ekonomiko eta soziala sustatzen; bizi-maila hobetzen eta oinarritzko beharrak asetzen*; enplegu-aukerak sortzen, nola zuzenean hala zeharka; eta *oinarritzko giza eskubideak sustatzen*, askatasun sindikala barne dela mundu guztian».

LNEeko hitzarmenetan dauden oinarritzko printzipioak abiapuntu onartua dira eta Erantzukizun Sozialako eredu, estandar eta arauen artean sartua. Nabarmentzekoa da Nazio Batuen Mundu Ituneko Programarekin duen lankidetzaren estua, bai eta lan-eskubideei erreferentzia egiten dien Mundu Ituneko lau printzipioak indartzeko eta sustatzeko egiten duen lana. Lankide dira, gainera, komunikazioko sareak eta jarduerak sortzen, ezagutza hedatzen eta gidariak prestatzen beren gaitasunak garatzeko Mundu Ituneko lan-printzipioak ezartzeko eta garatzeko.

### **Erantzukizun Sozialaren Liburu Berdea**

*Enpresen Erantzukizun Sozialaren Liburu Berdea: garapen jasangarriari egindako enpresa-ekarpen bat*, 2001ean Europar Erkidegoko Batzordeak aurkeztuak helburu hau du: «debate zabal bat hastea Europako Batasunak enpresen Erantzukizun Soziala sustatzeko duen moduz maila europarrean eta nazioartekoan, bereziki nola aprobeztatu ezin gehiagoraino dauden esperientziak, jarduerak berritzaileen garapena sustatu, gardentasuna gehitu eta ebaluazioaren eta baliozkotzearen fidagarritasuna areagotzeko». Dokumentu honek ulertzen du enpresetako Erantzukizun Sozialaren definizio gehienek honela ulertzen dutela kontzeptu hau:

*«Borondatzeko integratzea, enpresen aldetik, kezka sozial eta ingurumenekoak beren merkataritza-eragiketetan eta beren solaskideekiko harremanetan.»*

Definizio honetan enpresen gehiengoak duen ulerkuntza jasotzeko ahalegina egiten da kontzeptu horren inguruan, baina, nabarmendu daitekeenez, definizioa aski zabala da, bai eta anbigua ere, enpresa desberdinek integrazio hori har dezaten beren behar eta berezitasunetarik hartzea ahalbidetzeko. Definizio hori, halaber, eragile sozialei ezartzen zaie, Erantzukizun Soziala hartzearen oinarritzko ardatza baitira. Hori sentiarazi zen, hain zuzen, urtebete geroago Batzordearen Jakinarazpenean (2002 uztaila). Bertan jasotzen dira tarteko diren eragile desberdinen iritziak eta agerian jartzen dira, era argi eta garbian, eragile horiek lehenesten dutenaren inguruko desberdintasunak.

### **Giza Eskubideei buruzko arauak gizarte transnazionalentzat**

NBEko Giza Eskubideen Sustapen eta babeserako Azpibatzerdeak 2003ko abuztuko saioan hartu zituen «Gizarte transnazionalen eta beste enpresa batzuen Erantzukizunari buruzko arauak Giza Eskubideen gaian» deituak. Tarteko diren eragile desberdinei egindako kontsulta zabalaren fruitu dira: gobernuak, enpresak, sindikatuak eta GKE.

Arau hauek lehen dokumentu integral eta baimendu kontsideratzen dira, zeinean era esplizituan aipatzen baitira enpresek Giza Eskubideak errespetatzen, sustatzen eta betetzen dituzten erantzukizunak. Gobernuen lehentasuna mantentzen jarraitzen da GG.EE.en barrutian, baina era zuzenekoan eta lehen aldiz, erantzukizun hori enpresetara hedatzen da, bereziki nazioartean erroturik daudenetara: horiek, beren jardueraren eta eraginaren eremuan betebeharrak ere badituzte.

Ez dira berriak haietan jasotzen diren edukien ikuspuntutik, zeren eta Azpibatzerdeak aitortu eta onartu egiten baititu nazioartean dauden akordio eta konbentzio garrantzitsuenak: Nazio Batuen Mundu Ituna, OCDE/ELGERen Zuzentarauak, LNEaren Enpresa Multinazionalen eta Politika Sozialari buruzko Printzipioen Hiruko Deklarazio

Gainera, Erantzukizun Sozialaren dimentsioak eta eragin-eremuak diseinatzerakoan kontuan hartzen diren ohiko sailetan sailkatzen dira gainera: aukera-berdintasunerako eta

ez-diskriminaziorako eskubidea, pertsonen segurtasunerako eskubidea, langileen eskubideak, burujabetza nazionala eta giza eskubideekiko errespetua oro har, etab.

Legez ez dira lotesleak eta haiek hartzea enpresen borondatez kotasanaren mendean dago. NBEko Estatu Kideek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sinatu izana ez da baldintza nahikoa gobernuek enpresei arau horiek hertsiki betetzea eskatzeko. Aurrera joan eta beste pauso bat ematea beharko litzateke, oraingoan agian behin betikoa, jarraipenean, kontrolean eta ez betez gero dagokion zigorrean.

Hala ere, batzuentzat, GKE batzuentzat bereziki, enpresa multinazionalak duten, edo hobeki, izan behar duten Giza Eskubideekiko jokabidea erregularizatu eta kontrolatzeko nazioarteko zuzenbidean haren iritziz gertatzen den hutsunean betetzeko lehen urratsa da. Edozein kasutan, aurrerapen nabarmena da *Global Compact*-eko printzipioen deklarazio hutsarekiko.

### **Ekuatorreko Printzipioak**

Ekuatorreko Printzipioak (2003ko Ekaineko Nazioarteko Akordioa) Finantzazio-proiektuek ingurumenean eta garapen sozialean, batez ere, garabideko erkidegoetan eta gorantz datozen merkatuetan duten ezin saihestuzko eragina islatzen dute.

Erakunde finantzarioek, batez ere finantzatze-proiektu handietan, lagundu egin dezakete beren jarduerekin, ingurumen osasungarri bat, kultura-ingurune egoki bat preserbatzen, bai eta garapen soziala eta erkidego behartsuenak hobetzen lagunduko duten proiektuak burutzea erraztuz.

Printzipio horiek jarraibideak ematen dituzte ingurumen-arriskuak, eta sozialak neurtzen, ebaluatzen eta kudeatzen, jakina, arrisku ekonomiko eta finantzarioak neurtu eta balioestez gainera.

Garabideko erkidegoetan proiektuak finantzatzea ez da etekinak lortzeko aukera soil bat; halaber aukera garrantzitsuak eskaintzen ditu balia bideak inbertitzeko pertsonen eta ekosistemen bizitza, osasuna eta segurtasuna hobetuko duten gune, giro eta lekuetan. Printzipio horiek hartzea, beraz, segurtatu eta bermatu

egin nahi du proiektuak era sozialki arduratsuan finantzatuak izatea eta ingurumenerako jarduera mesedegarriak lortuz. Horregatik etekin esanguratsuak ematen dizkiete nola finantza-entepresei beraiei hala bezeroei eta beste stakeholderrei, batez ere garabideko erkidegoei.

Alde batetik, arriskuak ebaluatzea ahalbidetzen du gai sozial eta ingurumenekoan eta, bestetik, lagundu egiten dute finantza-erakundeak aktiboki konprometitzen ingurumena zaintzen eta proiektuak finantzatzen diren erkidegoen baterako garapenean. Gutxitu egiten dute ingurumenaren arriskua haren kudeatze kontziente baten bitarte zeta garapen sozialari laguntzen diote.

Egituraetaoinarrikerkideahornitzen dute praktikak, prozedurak eta estandar ingurumeneko eta sozialak inplementatzeko jarduera finantzarioetako industria-sektore globalizatuetan.

«Behatu» egiten dituzte finantza-erakundeak kontuan izatera eta arretaz berrikustera finantzazioa eskatzen duten erakunde eta/edo norbanako guztien beharrak eta helburuak. Printzipio horiek betetzeak prozesu eta praktika sozial eta ingurumenari dagokionez arduratsuak betetzeko baldintzatan ez dauden edo gai ez diren eskatzaileei finantzazioa ez mailegatzera gidatzen ditu erakundeak.

Printzipioak definitzearen bitartez, erakunde finantzarioek sailkatu egin ditzakete beren proiektuak hiru kategoriatan desberdinetan proiektuaren mota, leku, sentsibilitate eta proiektu-eskalaren arabera, bai eta haren inpaktu potentzial sozial eta ingurumenekoaren izaeraren eta tamainaren arabera ere.

Kategoriak ingurumenean eta burutuko diren erkidegoetan proiektuek izan dezaketen arrisku potentzialaren arabera determinatzen dira: arrisku potentzial handi bat kalte atzeraezin balizkoak, talde zaurgarri eta gutxiengo etniko, edo kulturaguneentzat ondorio ezkorrak dituztenetatik hasi eta ingurumen-inpaktu oso txikia edo ez kaltegarria dutenetaraino.

Ingurumen fisiko, sozial eta kulturean inpaktu ezkor edo ezin itzulizkoak aurreikusgarriak dituzten proiektuak badira, berrikusi egin behar dira haiekin egingarriak diren hautabideak, «hautabide eza» barne dela, eta gomendatu egin behar da zer neurri hartu behar diren inpaktu kaltegarriak konpentsatu eta ingurumenean

jarduera arduratsua inplementatzeko. Ekuadorreko Printzipio hauetan jasotako kontsiderazioetatik hauek dira kontuan hartu beharreko aspektuak, adibidez:

- Abiapuntuko baldintza sozial eta ingurumenekoak.
- Proiektua burutzen den herrialdeko erregularizazioak eta bertan nazioarteko akordioak eta hitzarmenak.
- Garapen jasangarria eta energia berriztagarriak erabiltzea.
- Giza osasuna, kultura-jabetzak eta bioaniztasuna babestea arriskuan dauden espezieak eta mehatxupeko ekosistemak barne direla.
- Gai arriskutsuen erabilera.
- Kalte nagusiak.
- Osasuna eta lan-segurtasuna.
- Inpaktu sozioekonomikoak.

Mundu Bankuak aplikagarritzat dituen gutxieneko estandarrak ere kontuan hartzekoak dira, kutsadura prebenitu eta murrizteko Zuzentarauak eta Garapen Bankuarenak

Hori bezalako akordioek adierazten dituzte finantzatze-politiketangertatzen ari diren aldakuntzaren adibiderik argienetako batzuk. Gero eta globalizatuagoa eta elkarrekin erlazionatuagoa dagoen mundu batean, etekin ekonomikoa ateratzea jadanik ez da helburu bakarra; eskaera sozialak eta, zehatzago, erkidegoen eskaerak erasanak agertzen dira finantzaturiko proiektuen aldetik, ingurumena errespetatzera behartzen ari dira erakunde handiak, garapen jasangarriarekin lankide izatera eta gehien behar duten sektoreei hazten laguntzera. Finantza-erakundeek justizia sozialari lagundu eta garapen jasangarri bat mantentzen lagundu dezakete eta lagundu behar dute. Horren baitan dago norberaren jasangarritasuna eta, jakina, haren legitimitate soziala.

#### **4.2.6. Nola ezartzen da Erantzukizun Soziala?**

Enpresak konbentziturik egon daitezke era sozialki arduratsuan dihardutelakoaz, bai era borondatezkoan edo behartuan. Baina edozein kasutan, auzitan jartzerik ez dagoena hori *nola* egin behar duten jakitea da. Bistan dago enpresek neurtu ahal izan behar dutela beren ohiko jardueran Erantzukizun Soziala ezartzearen inpaktu



erreala. Horregatik, badira jardute-estrategia bat baino gehiago Erantzukizun Soziala ezartzera, modu eraginkorrean, iristeko mekanismoak aurkitzea ahalbidetzen dutenak. Beharrezkotzat jotzen diren ekintzetan, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Hobeto jakinarazi enpresetan eta gizartean Erantzukizun Sozialaren inpaktu baikorra, nola European hala munduaren gainerakoan, batez ere garabideko herrialdeetan.
- Esperientzia eta praktika onen trukea sustatu Erantzukizun Sozialaren gaian enpresen artean.
- Kudeatze-gaitasunen garapena sustatu Erantzukizun Sozialaren barrutian.
- Erantzukizun Sozialeko praktikak hartzea sustatu eteen artean.
- Erantzukizun Sozialeko praktiken eta tresnen bat etortzea eta gardentasuna erraztu.
- EBean foro aldeaniztun bat sortu barruti horretan.
- Erantzukizun Soziala erkidegoko praktiketara integratu.

Horrekin batera, baterako ekintza-lerroak proposatzen dira, zeren eta desadostasun handia baitago, eta batez ere, akordio baten gabezia Erantzukizun Soziala ezartzeko moduei buruz. Baterako jarduera bat marrazterakoan, honako aspektu hauek adostea iradokitzen da:

- Praktika gardenak burutzea.
- Erreferentzia-irizpide argi eta egiaztagarriak finkatzea.
- Datuak egiaztatzea eskatu eragile independenteen aldetik.
- Zedarritu eskuratu behar den informazio mota.
- Txostenak aurkezteko formatuak adostu.
- Ebaluatze-prozeduraren fidagarritasuna bermatu eta auditoretzak finkatu.

Zailtasuna nabaria da. Barnetiko zailtasun bat da Erantzukizun Sozialaren barrutik bertatik sortzen dena. Haren izaera global eta globalizatzaileak, inplikatzeko dituen aspektuen aberastasunak eta haien izaerak oso zail bihurtzen dute haren praktikak neurtu, kuantifikatu eta ebaluatzea emaitza-kontuetan. Erantzukizun Sozialari buruzko praktikak ezartzeak «ukiezin» izendatzen direne-

kin du zuzeneko zerikusia, adibidez: ondasun immaterialak, arriskuaren kudeaketa, barne-prozesuak, solaskideekiko harremanak, elkarrizketa soziala sustatzea, eta batez ere, pertsonen zuzeneko kudeaketarekin du zerikusia, oso bereziki, langileen kudeaketarekin enpresa-politikek gehien inplikatzan eta erasaten dituzten parte bat bezala langileen kudeaketa. Oraindik gehiago zehaztu nahirik ekintza zehatzak mugatzen dira truke aberasgarriak komunikazioan jartzen eta sustatzen saiatzen direnak inplikaturako estamentu desberdinen artean. Esaterako, honako hauek:

- *«Praktika onak» trukatzeko beharra Erantzukizun Sozialaren gaian:* ez dago zalantzarik enpresa bat konbentzitzeko modurik hoberena Erantzukizun Soziala bere gain hartzea inbertsio ona dela, adibide gisara, erakunde batean errotzea erakustea dela, zer irabazi duen horretan. Besteen esperientziatik ikasi egiten da, bereziki kidekoen esperientziatik. *Praktika on* horien arriskua prozesuetan eragin handiagoa izatea da emaitzetan eta ondorioetan baino, eta gehienetan kasuistika hutsetik harago joaten ez diren ekimenen zerrenda soil batean geratzen dira, beti aldagarria izaten ez dena kontsiderazio «ereduzkoen» ispiluan bere buruari begiratzen dioten enpresetara.
- *Gogoeta-foroak sortzea:* nola tokikoak hala nazionalak eta europarrak, funtsezkoa da oraindik azaleratzen ari den auzi honetan kezkak partekatzea, iritziak kontrastatzea, inoren gogoetak entzutea, debate irekiak sortzea, hitz batean, elkarrengandik ikastea.
- *Inbertsio Sozialeko Funtzak gehitu eta hobetzea:* funts mota horren errentagarritasuna erakustek bide ezin hobe ematen du sozialki arduratsuak diren ekintzak praktikatzera animatzeko, enpresa-arduradunengandik harago.
- *Erantzukizun Sozialaren gaian kudeatze-gaitasunen garapena sustatu:* erabat ezinbestekoa da kudeatzaileak prestatzea Erantzukizun Sozialeko kudeatze-eredua ezartzeko behar diren gaitasun haietan guztietan. Hura ezartzea gizartearen, merkatuen eta enpresa-munduaren eraldaketak bultzatzen du eta hori antzeko eraldaketa bat eskatzen ari da enpresa-kudeatzaileetan.

- *Enpresen, agintari publikoen eta instalazio akademikoen arteko kanal egonkorrak sustatu, batez ere ikerkuntzaren barrutian.* Erantzukizun Soziala bezalako auzi batean beharrezkoa da elkarrekin erlasionaturik dauden barruti guztiak lotzea. Erantzukizun Soziala ez da inoren ondar eskusiboa eta haren alde askotarikoek fokatze desberdinetatik lantzea eskatzen dute. Tratamendu diziiplina anitzekoa eskatzen duen auzi baten aurrean gaude.

Nabari denez, auzi asko konplexua da enpresen baterako, gizarte zibileko eragileen, zentro akademiko eta ikerkuntzakoen partaidetza koordinatua eskatzeko, bai eta estatuen eta gobernuena ere. Funtsezkoa da estrategiak bateratzea, tarteko diren eragile guztien ekintzak koordinatzea eta guztiek partekatze moduko irizpideak aurkitzea.

Gai hau kezka-iturri da ez bakarrik europar barrutian. Nazioartean ere auzi garrantzitsua da eta Erantzukizun Sozialeko praktikak hartzea sustatzeko ekimenak, nola izaera publikoa dutenak hala pribatukoak, testuinguru batean baino gehiagotan gertatu dira: NBE bezalako nazioarteko erakundeak, erakunde independenteak *Global Reporting Initiative* bezalakoak jasangarritasuneko txosten korporatiboak garatzera bideratuak, Erantzukizun Sozialeko ezartzeko prozedurak artikulatzearen beharraz gero eta kezka handiagoa dagoenaren azalpenak dira.

Ondoren, Erantzukizun Soziala ezartzeko tresnak gauzatzen dira, zeren eta, termino orokorretan, Erantzukizun Sozialaren eremu horretan eragin eta oihartzun handienekoak baitira

### **Global Reporting Initiative**

Global Reporting Initiative (GRI) 1997an eratu zen Coalition for Environmentalaly Responsible Economies (CRERES) GKE estatubatuarraren baterako eta Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren ekimen bezala <sup>20</sup>.

GRI ezinbesteko erreferentzia da nazioartean eta oraindik gehiago da europar enpresentzat europar erakundeen aldetik erakutsitako laguntzarengatik Enpresen Erantzukizun Sozialaren Liburu Berdean. Izatez, metodologikoki, Liburu Berdearen gomen-

<sup>20</sup> Ikus informazioa  
hemen:  
([www.globalreporting.org](http://www.globalreporting.org))

dioak GRIk egindako proposamenak aipatzen ditu. Haren helburua, jasangarritasunaren barrutian, inbertitzaileen erabakiei fidagarritasuna eta kapitalen merkatuei segurtasuna emateko oroitidazki finantzarioek duten konparagarritasun-maila lortzea da.

Horretarako *Jasangarritasunaren Oroitidazkiak Lantzeko Gida* landu eta hedatzen da, erabilera borondatezkoa duena beren jarduera, produktu eta zerbitzuen aspektu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialei buruz informatu nahi duten erakundeentzat

Erakundeek eta haien atal interesatuei lagundu nahi die «garapen jasangarriari mota horretako txostenak egiten dituzten erakundeen ekarpenak artikulatzen eta ulertzen».

### **European Foundation for the Quality Management (EFQM)**

Kalitatearen Kudeaketarako Europar Fundazioa (EFQM) irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da antolaerek eta enpresek eraturia, 1988an sortua hamalau europar enpresak. Honako premisa honetan oinarritzen da: «Bezeroen eta Enplegatuen poza, eta Sozietateen Inpaktuak Lidergo baten bitartez Politika eta Estrategia, erakundeko pertsonak, Aliantzak eta Baliabideak eta Prozesuak Bikaintasuna lortzera erakundeko emaitzetan bultzatzea lortzen du». Premisa hori bederatzi irizpidetan gauzatzen da: Lidergoa, Politika eta Estrategia, Pertsonak, Aliantzak eta Baliabideak, Prozesuak, Emaitza Bezeroengan, Emaitzak Pertsonengan, Emaitzak Gizartean eta Emaitza Gakoak.

### **Social Accountability 8000 (SA8000)**

Social Accountability International (SAI) izaera ongilea duen giza eskubideen aldeko erakunde bat da eta lantokiak eta erkidegoak hobetzea du helburu estandar sozialki arduratsuak garatu eta inplementatzearen bitartez.

Erantzukizun Sozialeko SAI sistema sinesgarritasunean, egiaztapenean eta gardentasunean oinarriturik dago. 1996an SAI-k stakeholderren nazioarteko Batzorde Aholkulari bat sortu zuen Social Accountability 8000 (SA8000), garatzeko, ILO (International Labour Organization) eta giza eskubideen beste

konbentzio batzuetan oinarritutako lantokietarako borondatezko estandar bat. Haren egiaztatze-metodo independenteak ISO arauen kalitate-kudeaketako ziurtatze-sistemen elementu gako asko hartzen ditu bere baitan.

SA8000 eskuarki mundu guztiko enpresek eta gobernuek erabiltzen dute eta aitorturik dago sindikatu eta gobernuenak ez diren erakundeen aldetik lan-barrutian ezarritako estandar garrantzitsuenetako bat bezala.

### **CSR Europe: SME KEY**

Europar Batzordeak 2002ko uztaileko Erantzukizun Sozialari buruzko bere Adierazpenean jarduera sozialki arduratsuak burutzen interesatutako eteei laguntzeko tresnak garatu eta hedatzearen alde egin zuen. Erronka horri erantzun bezala, CSR EUROPEk abian jarri du «The SME Key – Unlocking responsible business», deitutako proiektu bat, negozioaren ezaugarriekin hobeki bat egiten duten jarduera sozialki arduratsu mota hautatzen laguntzeko diseinaturiko gida bat eteei eskaintzen diena.

Gidak aukera ematen dio enpresari bere lehentasunak finkatu eta jarduera-lerro komenigarrienak hautatzen. Hiru arlotan antolaturik dago:

- *Identitatea, misioa eta balioak*: Erantzukizun Sozialarekiko bere jarrera propioa definitu eta identifikatzen enpresari laguntzeko diseinatua.
- *Inpaktu ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa*: enpresaren inpaktu desberdinak determinatzeko aukera ematen du tokiko, erregioko eta nazioko barrutietan, aberastasun-sortzaile, gizartearen integratzaile eta baliabide naturalen erabiltzaile gisara.
- *Erantzukizun Sozialeko estrategia bat garatzeko ideia bat*: Erantzukizun Sozialari buruz enpresaren asmoak jakinarazteko eta haren negozio-planarekin bat egiten duen estrategia batean sartzeko diseinatua.

#### **4.2.7. Kritikak Erantzukizun Sozial Korporatiboari**

Erantzukizun Sozialak paper garrantzitsua izan dezakeen bezala enpresa pribatuak mundu sozialago batera hurbiltzerakoan, ezin

dezakegu ahaztu kritika handiak jaso egiten dituela. Erantzukizun Sozial Korporatiboaren mundua inguratzen duen eztabaidaren osagai diren kritikak, txosten honetan alboraturik utzi ezin genituenak.

Izatez gaur egun ESKaren inguruan dagoen debatean Michael Porter eta Mark Kramer pentsalari handiak daude inplikaturik. Horiek Enpresa Erantzukizun Sozial kritikatzearen aukera egin dute eta *balio partekatua sortzeaz* hitz egiten hasi dira, gaurkotasuneko gaia dena eta The Economist aldizkarian eta iruzkina izan duena. EESri egindako erasorik berriena EEBBetako multinazional handietako goi-gidariekin Kramerrek izandako bilkuraren berri ematean dator eta bertan honako hau bezalako bitxi bat dator:

*«Eskema hau «Erantzukizun Sozial Korporatibo» tradizionala ez bezalakoa da, zeina sarritan erregulazio sozial eta ingurumenekoak betetzearen, enpresaren ospea hobetzearen eta askotan negozioarekin zerikusirik ez duten kausa askotara desfokaturiko dohaintzen inguruan eraikitzen baita».*

Hori lagin bat besterik ez da ESKari egin lekizkiokeen kritikena, erregulazioen betetze hitz, ospea bilatze bat, filantropia bat... bezala ikustean.

Honako txosten honen helburua ez da Erantzukizun Sozialari buruz kokatzea, haren atzealdeaz edo hartaz arduratzera enpresak eraman ditzaketen helburuei buruz. Aldiz, errealitatearekin zintzoak izateko, badela hura kritikatzeko duen korrante bat islatu nahi izan dugu sail honetan.

#### **4.2.8. Azken ondorioak**

Analisiak ondorioztatzen du fokatzeen aniztasunak, zehaztasunik ezak, irizpide bateraturik ezak, eta batez ere, Erantzukizun Soziala «kosmetika» hutsezko auzian bakarrik geratzeko arriskua parte batez bederen, enpresa-politikak sostengatu eta akuilatu behar dituen atzealde etikoari behar adinako arretarik eskaini ez izateak eraginik dagoela.

Bada kezka ia esklusibo bat ekintzei darizkien ondorioen inguruan. Erabat beharrezkoa da ondorioen alderdia eta

ondorio horiek neurtzeko beharrezkoa da ezartze eta ebaluatze eraginkorreko mekanismoak eta tresnak izatea.

Ondorioetara bildutako arreta hori mugatzeak sortzen ari da oso oinarrikoak diren auzietan. Hala, adibidez, atzealde etikoaren gogoia badagoela konstatatzen da, baina oso gutxi lan egin dela noranzko horretan; gehiago sustatu da kanpo-dimentsioa, barnekoari jaramon egin gabe eta hori egiten denean eskuarki beste helburu batzuk direla eta egin ohi da. Erantzukizun Soziala tankan itxiriko konpartimenduetatik ikusten da enpresakudeaketaren gunearen osagai izatera iritsi gabe, enpresaren ikuspuntu dualista batetik, hura egiazki integratzera iristeko aukerarik ematen ez duelarik.

Gure tesia honako hau da: kontua ez dela erakundeen esparruan erantzukizun bat edozein preziotan proposatzea. Erantzukizunera dei egiteak, auzitan jartzera eraman beharko gintuzke, lehenik, hura aipatzen dugunean, bai barruti sozio-politikoan edo ekonomikoan, dena ez dela balioko. Erantzukizunaren postulatu laguntzen duten garaiek argi eta garbi utzi dizkigute praktikak, zeinek haren izenean beste asmo batzuk mozorrotzeko arduratsuak izatetik oso gutxi edo batere ez zutenak. Horregatik, nahiz eta oraindik konstatatu leku batzuetan erantzukizunerako deiak sortzen dituen deserosotasuna eta mesfidantza, solidariotasun eta justiziazko konpromiso handi bat inplikatzeko duen heinean, hura sustatzera bideratutako ekimen guztiak, kontuan izan beharko lukete, zinez, gertaerak eta ondorioak epaitzea bakarrik ez dela kontua, baizik eta ekintza laguntzen duten kausak eta arrazoiak auzitan jartzea ere bai.

Zalantzarik gabea da enpresek beren ekintzen ondorioez jabetu beharra dutela, baina hori bezain egiazkoa da enpresa-eragileek ondorio horiek, konbentzimenduz, bere gain hartzera eraman dituzten ekintzei buruz gogoeta egin ahal izan behar dutela. Horregatik, ekintzak babespean hartzen dituzten arrazoiak planteatu eta auzitan jartzea beharrezkoa da. Garrantzitsua bada enpresa sozialki arduratsuak nolako izan daitezkeen galdetzea, ez da garrantzi gutxiagokoa enpresa batek zergatik izan behar duen sozialki arduratsua gaiari ekitea eta zein diren enpresa batek era arduratsuan jokatzeko erabakitzeko arrazoiak.

#### 4.2.9. Laugarren Sektorerako galderak

##### Erantzukizun Sozialetik

Erantzukizun Sozialak eskakizunak inplikatzeko dituzte, gizartera hedatzen direnak stakeholderren edo interes-taldeen bitartez, zeinengan eragina duen enpresak, jabeek harago. Beste aspektu batzuen artean giza eskubideekiko errespetua hartzen du bere baitan lan-baldintza duinen bitartez, aberastasunaren banaketa bidezkoago bat edo ingurumenarekiko errespetua. 2001ean Europar Erkidegoen Batzordeak argitaratutako liburu berdean honetara definitzen da:

Enpresen Erantzukizun Soziala, funtsean, kontzeptu bat da, zeinen arabera gizarte hobe bat eta ingurumen garbiago bat borondatez lortzen laguntzea enpresek erabakitzen duten [...] Erantzukizun hori langileen aurrean adierazten da, eta oro har, enpresako solaskide guztien aurrean, eta haiek, bestalde, eragina izan dezakete haren arrakastan.

Hau da, erantzukizun horrek enpresen asmo sozial bat asetzen du. Ildo horretatik, Laugarren Sektore sortu berria elkartuko liratekeen erakundeekin oinarritzeko ezaugarrietako batera hurbiltzen dela dirudi. Baina, aski al da hori?

Gaur eguneko bezala oso lehiakorra den merkatu batean, enpresek irudi sozial bat behar dute bezeroen aurrean ospea emango diona eta horri lagunduko dioten jarduerak dakartza berekin horrek. Hau da Erantzukizun Sozialaren kritiketako bat, kosmetika hutsa izan daitekeelako posibilitatea. Baina kritika posible horretaz harago, badira azterlanak enpresen emaitza-kontuan Erantzukizun Sozialaren eragin baikorra frogatzen dutenak. Hori Laugarren Sektoreko erakundeekin beste zutabeetako baten frogatzea da, emaitza-kontuetan eragina izango duten enpresamethodoak erabiltzea.

Erantzukizun Sozialaren gaiaren azpian galdera asko daude:

Benetan enpresek giza eskubideak eta ingurumena errespetatzeak gutxienezko bat izan beharko al luke, oroitidazkietako azterlanen fruitu izan beharko ez lukeena?, zer puntutaraino Erantzukizun Sozialak plus baten ekarpena egiten dio? pertsona bezala gutxienezkotzat jo behar dugunari erakundeekin aldetik, aski da Lehen Sektore klasikoko erakunde bat Erantzukizun



Sozialeko politika on bat izateaz arduratzea Laugarren Sektore kontsideratzeko, lagundu egiten al du Erantzukizun Sozialak aurpegi gizatiarragoko ekonomia bat sortzen, zer inpaktu sozial erreal du Erantzukizun Sozial horrek, Erantzukizun Sozialak Lehen Sektoreko enpresa klasikoen hurbiltze-aurrekari bat ezarri al du Ekonomia Sozialeko mundurantz eta haien arteko bateratzerantz, Laugarren Sektore deituko dugun hibridatze-gunea bat sortzera ere bai, zer puntutaraino lagundu du Erantzukizun Sozialak Laugarren Sektorea eragiten duen hibridazio-gunea sortzen?

Laugarren Sektoreranzko lehen hurbiltze honetan sortzen direnak dira galdera horiek guztiak. Pablo Angulo Bárcena, Innobasqueko Programa Zuzendariak BBK-ko Gizarte Ekintzarren aldizkarirako elkarrizketa batean<sup>21</sup>:

*«Laugarren Sektoretik aurpegi gizatiarragoko ekonomia bat bultzatzea, kapitala saritzeak pisua galduko duen enpresekin. Barruti publikoan, emaitza-kontuak ezartzeari mesede egingo dio, eta horrekin ezabatu egingo dira inefizientziak eta inefikaziak. Eta Hirugarren Sektorean profesionalizatzeko handiagoa bultzatuko du. Berrikuntza Soziala, neurri handi batean, sektore 'klasikoen' arteko mugak lausotuko dituzten erakunde hibridoak agertzearen mendean dago, eta gero eta gehiago dago Laugarren Sektorean oinarritua, negozioek bereak dituzten baina asmo sozial bati aplikatuak erabiltzen dituzten erakunde talde bat bezala hura ulertzen delarik.*

21 Ikus informazioa  
hemen: ([www.globalreporting.org](http://www.globalreporting.org))

### 4.3. Ekintzailtza soziala

#### 4.3.1. Sarrera

*Ekintzailtza soziala* kontzeptua gero eta gehiago lantzen ari dira azken urteotan esparru askotan, lan-munduan, unibertsitatean eta politika- eta gobernu-alorrean. Prestigio handiko unibertsitateak (Harvard, Stanford eta Oxford, besteak beste), eragin handiko nazioarteko fundazioak (Ashoka, Schwab, Skoll...) eta herrialde pobre nahiz aberatsetako ezin konta ahala eragile instituzional eta sozialek interes handia dute era askotako espektatiba zabala eragin duen kontzeptu horri buruzko ezagutza eta esperientzia praktikoa sortzeko. Batzuentzat negozioak egiteko molde berria besterik

ez den kontzeptu hori helburu ekonomiko eta finantzarioak eta gure egungo gizarteetan gizarte- eta ingurumen-alorrean premia bizikoak ditugun helburuak behin betiko bateratu ahal izateko giltzarria da beste batzuentzat. Hala, pobrezia, bazterketa sozialari, ingurumenaren hondatzeari eta politika publikoek gizartearen behar berrien aurrean erakusten duten malgutasun ezari aurre egiteko bide egokitzat hartzen da ekintzailtza soziala.

Testu honen helburua esparru horretan egun dauden eztabaida aberats bezain interesgarrien berri ematea ez bada ere, testuinguru horren baitako eztabaidari jarraiki *ekintzailtza soziala* kontzeptuak biltzen dituen bi kontzeptuak —ekintzailtza eta helburu sozialak— ikuspegi berri batetik berrikusi beharrean gaude.

#### 4.3.2. Ekintzailtza

Frantsesezko *entreprene*, ingelesezko *entrepreneur* eta alemanezko *unternehmen* hitzak ditugu gaztelaniazko *empres* hitzaren oinarrian, eta zerbaiti «ekitea» esan nahi du, hitzez hitz. Ez dago «ekintzailtza»-ri buruzko definizio unibertsalik baina hitz hori definitzeko garaian «ekintzaileak» hartu behar ditugu gogoan, bi terminoak ere elkarren osagarriak diren aldetik.

*Ekintzaile* terminoak XVI. mendean du jatorria. Frantses milizian lan egiten zuten esploratzaileak ziren *entreprene*ak, eta lan arriskutsuak egiteko kontratatzen zituzten berariaz. Garaiko frantses ekonomialariek kontzeptua hedatu eta gauza berriak eta hobeak egiteko helburuz arriskua eta ziurgabetasuna jasateko prest zeuden pertsonak izendatzeko erabiltzen hasi ziren, Jean-Baptiste Say buru zutela, beharbada. Hitz nola sortu eta finkatu zen argi samar badago ere, haren erabilerak ugarituz joan dira, eta horren ondorioz dugu egungo nahasmena hitz hori kontzeptualizatzeko garaian.


Lexikografia abiapuntutzat hartuz gero, eta Oxford English Dictionary hiztegira jotzen badugu esaterako, ekintzaileen definizioan oinarritzko bi alderdi uztartzen direla ikusiko dugu: arriskuak hartzea eta berrikuntza. Azken kontzeptu horri dagokionez, Schumpeter-en teoria klasikoak (1975) abiapuntu egokia dira ekintzailtzari buruz teorizatzen. Egiteko moldeak,

negozio-ereduak, zerbitzuak eta produktuak zaharkituta uzten dituen suntsiketa kreatiboko prozesu bati lotuta ulertzen du garapen ekonomikoa autore horrek. Ekintzaileak dira aldaketa-prozesuak gauzatzen dituztenak, hain zuzen ere, produktu, prozesu eta merkatuen berrikuntzen bidez sortzen diren abantailen baliatzen diren antolakunde bidez. Gure garaiko ekonomia aztertzeko eta merkatu-ekonomiarako funtsezkoak diren bi nozio aurkeztu zituen Schumpeterek (1934): ekintzailearen irudia eta berrikuntza. Azken hori hurrengo idazpuruan aztertuko dugu.

Berrikuntzan oinarritutako ikuspegiaren aldean, «austriar ikuspegia» proposatzen du Cassonek (2005), merkatuko arbitraje-aukerei (merke erosi eta garestiago saldu) etekina atera nahi dieten enpresaburuen irudia azpimarratuz. Ikusmolde horri jarraiki, ekintzailetza sozialari buruzko eztabaidaren oinarrian dauden funtsezko hiru elementuak aipatzen dituzte Nicholls eta Chok (2006): berrikuntza, merkaturako orientazioa (lehenago aipatu dugun austriar ikuspegia laburbiltzen duena eta jarduera finantzatzeko eta haren iraunkortasuna bermatzeko behararekin lotzen dena) eta xede soziala.

Autore horientzat, helburu sozialak dituen antolakunde oro 1. grafikoan mugatutako espazioko koordinatuen barruan kokatzen da. Horrenbestez, antolakunde batzuk berritzaileak dira eta xede sozial batera bideratuta daude, baina ez dute merkatura zuzendutako orientazio berezirik. Beste antolakunde batzuek merkatuari eta gizarteari begiratzen diote, baina lehendik dauden molde eta ereduak errepikatzen dituzte eta ez dira, beraz, berritzaileak. Azkenik, antolakunde batzuk berritzaileak dira eta merkatura zuzendutako orientazioa dute, baina ez dute argi definitutako helburu sozialik. Ildo horretan, bere logika definitzen duten koordinatuek mugatzen duten ekintzailetza sozialaren esparrua. Baliabide mugatuko testuinguru batean aldaketa soziala eragin nahi duten eta gizartean ahalik eta inpakturik handiena lortu nahi duten gizarte-antolakundeak identifikatu ahal izango ditugu esparru horren barruan.

## 11. irudia. Ekintzaitza sozialaren dimentsioak



Iturria: Nicholls eta Cho (2006)

22 Gregory Dees

Stanfordeko Zerbitzu Publikoetako eta Duke Unibertsitateko Fuqua Enpresa Ikasketen Fakultateko Ekintzaitza Sozialeko katedraduna da, eta Center for the Advancement of Social Entrepreneurship-eko zuzendaria.

Gregory Dees<sup>22</sup> (1998) ekintzaitza sozialaren ezinbesteko erreferentzia dugu eta eztabaidagai berri bat mahaigaineratzen du: ekintzaitza negozioak sortzearekin lotzea terminoaren aplikazio azalekoegia dela dio, ñabardura historiko eta esanguratsu asko galtzen direlako, bere ustez. Peter Drucker<sup>23</sup> adituaren eragina sumatzen da Deesen tesietan *Ekintzaitza* kontzeptua zabaldu zuten Druckerek, *aukera* kontzeptua azpimarratuz.

Peredo eta McLeane (2006) dioten moduan, Sayren baliosorkuntza eta Schumpeteren berrikuntzari buruzko nozioak hartzen ditu Deesek, Druckerek aipatutako aukera berriak hautemateko eta erabiltzeko ahalmena azpimarratzen du eta, azkenik, Stevensonen asmamen kontzeptua bereganatzen du, zerbaiti ekiteko garaian baliabide-mugek ezarritako murrizketak gainditzeko tresna lagungarri gisa.

Aurreko oinarriak abiapuntutzat hartuta, honako hauek dira ekintzaitza sozialaren zutabeak Deesentzat:

- Aukera berriak hautematea eta etengabe bilatzea, balio soziala sortzeko misioa sustatzeko.
- Etengabe parte hartzea berrikuntzan eta aldaketa-prozesuetan.

23 Austrian jaiotako abokatu eta saiakeragile honek mundu osoan zabaldutako lan ezagunak idatzi ditu antolakundeen kudeaketari, informazio-sistemei eta ezagutzaren gizarte-iruzuruz.

- Ekintza ausarta egitea, baliabide-mugak ezarritako murrizketak gaindituz.

#### 4.3.3. Ekintzailletza soziala

Beharbada, Seelos eta Mairek (2005) ederki azpimarratzen duten moduan, ekintzailletza soziala definitzeko garaian aurkitzen dugun erronkarik handienetakoa *sozial* hitzarekin adierazi nahi dugunaren mugak zedarritzea izango da. Izan ere, ezinbestekoa alderdi hori ondo zedarritzea ekintzailletza sozialak, «soziala» delakoaz duen ikuspegi berezia dela eta, ekintzailletzaz bestelako ikas-eremua dela argudiatu ahal izateko, ekintzailletzak ibilbide akademiko luzea baitu (eta berez alderdi soziala bere baitan biltzen du, gizartean gauzatzen den jarduera den aldetik).

Zentzu horretan, Peredo eta McLeanek (2006) honako argudio hauek aipatzen dituzte ekintzailletza soziala definitzeko arrazoiak:

- Lehenik eta behin, beste ekintzailletza-molde batzuetatik bereizi ahal izateko. Deesek dioenez (1998) ekintzailletzaren barruan ekintzaile sozialek talde berezia osatzen dute.
- Gizarteko beharrei erantzuteko etorkizun oparoko molde berriztat hartzen badugu terminoa, definizio zehatzagoa ematea komeni da, hura sustatzeko egokiagoak diren lege-esparrua eta politika sozialak garatu ahal izateko.

Ekintzailletza «negozio txiki bat abian jartzea» gisa definitzen duen ikuspegi minimalista hartuko bagenu, helburu sozialak dituen negozio bat antolatzen duen edo gidatzen/zuzentzen duen pertsona izango da ekintzaile soziala, besterik gabe.

*Business method* ikuspegia hartzen badugu, berriz, komunitateari zerbitzuak eskaintzeko misioa betetzeko garaian enpresari lottutako metodoak oinarritutako ikuspegi (berritzaile) batekin arituko gara, eta horrek ez du negozio-molde berriak sortzea esan nahi beti.

Nolanahi ere, bi ikuspegiei zehaztasuna eta doitasuna falta zaie, eta unibertitate-mundua hasia da ekintzailletza sozialari buruzko definizio zehatzagoa eskatzen. Zentzu horretan, *ekintzailletza soziala* kontzeptuarentzat antolakuntza-eredua ez

ezik beste alderdi hauek ere funtsezkoak dira: zerbaiti helburu sozial batekin ekiteko jarduna bera, ekintzaileen ezaugarriak eta izaera eta ekintzak sortzea eta arrakastatsuak izatea ahalbidetzen duten baldintzak.

Ekintzailletza sozialaren ikuspegiari lotutako lau alderdi zehatz nabarmendu nahi ditugu hemen: banakako gizabanako pragmatiko, lider eta bisionarioei ematen die garrantzia, eta ez hainbeste antolakundeei; arazoei aurre egiteko soluzio berritzaileak bilatu eta berrikuntza sozialeko prozesuak gidatzen dituzten pertsonak dira enpresari edo ekintzaile sozialak; errepikagarritasuna azpimarratzen da, eskala handiko inpaktuari; eta, azkenik, enpresari sozialak eta ekintzailletza sozialeko prozesuak edozein sektoretan eta edozein antolakuntza-eredutan agertu daitezke eta, beraz, sektore pribatuan (ohiko enpresetan) nahiz publikoan.

Jende gehienaren iritziz helburu sozialak —komunitatearen ongizatean laguntzeko nahia adibidez— izaten dira ekintzailletza-jardueren helburua. Helburu sozial horiek ekintzailletza-jardun beraren baitan duten lekua zehazteko garaian sortzen dira desadostasunak (Peredo eta McLean, 2006).

Batzuen ustez (Dees eta Emerson, 2002), ekintzaile sozialak helburu sozialak izan ditzake bakar-bakarrik eta halako jardueren bidez sortutako aberastasunak bitartekoa izan daitezke soilik, baina ez helburu. Ekintzailletza soziala bermatzeko merkatura jotzeko beharra ukatu egiten du ikuspegi horrek, eta irabazi-asmorik gabeko sektorean bakarrik ulertzen da ekintzailletza soziala.

Beste ikuspegi bat dute Northland InSTITUTEk eta Duke Unibertsitateak, besteak beste: enpresa sozialekin lotzen dute ekintzailletza soziala, eta diru-sarrera batzuk sortzea beharrezkotzat jotzen dute. Bide horretatik jotzen duten irabazi-asmorik gabeko antolakundeak «hibrido»tzat jotzen dira batzuetan, irabazi-asmoko sektorearen eta irabazi-asmorik gabeko sektorearen ezaugarriak nahasten dituzten eragatik, eta batzuetan laugarren sektorera hurbiltzen dira, Aspen InSTITUTEk definitutako moduan behintzat. Edonola ere, errentagarritasun ekonomikoak errentagarritasun sozialaren mende egon behar du beti.

Helburu sozialak dirua irabazteko konpromiso argi bati lotuta dauden kasuak aurkitzen ditugu beste muturrean. Errentagarritasun ekonomikoari garrantzia ematea ekintzailtza soziala balio gabetu egiten duela diotenak dauzkagu, batetik, eta aurkako diotenak, bestetik. Azken horien artean sartzen da Harvardeko Enpresa Ikasketen Fakultatea<sup>24</sup>. Azken ikuspegi hori onartuz gero, *ekintzailtza soziala* kontzeptua gehiegi zabaltzeko eta edukiz husteko arrisku nabarmena daukagu.

Ekintzailtza soziala kokatu daitekeeneko *continuum*eko zenbait puntu nabarmendu ditugu honako irudi honetan, kontzeptuari buruzko ikuspegien arteko aldeak argitzeko.

24 Helburu sozialak erakundeen ildo estrategikoen azken lerroetan agertzen badira ere eta benetako bokazio sozial bategatik baino markairudi ona lortzeko lantzen badira ere, halakoak ekintzailtza sozialaren barruan kokatzearen aldekoak dira.

## 12. irudia. Ekintzailtza soziala *continuum* bat da

<i>Place of Social Goals</i>	<i>Role of Commercial Exchange</i>	<i>Example</i>
<b>Enterprise goals are exclusively social</b>	No commercial exchange	<i>NGOs</i>
Enterprise goals are exclusively social	Some commercial exchange, any profits directly to social benefit ('integrated') or in support of enterprise ('complementary')	<i>Grameen Bank ('integrated'); Bangladesh Rural Advancement Committee printing press, cold storage, garment factory ('complementary'), Newman's Own</i>
Enterprise goals are chiefly social, but not exclusively	Commercial exchange; profits in part to benefit entrepreneur and/or supporters	<i>Missouri Home Care, Ciudad Salud</i>
Social goals are prominent among other goals of the enterprise	Commercial exchange; profit-making to entrepreneur & others is strong objective	<i>Ben &amp; Jerry's</i>
Social goals are among the goals of the enterprise, but subordinate to others	<b>Commercial exchange; profit-making to entrepreneur &amp; others is prominent or prime objective</b>	<i>'Cause-branding'; social-objectivities undertaken by corporations such as banks</i>

Iturria: Peredo eta McLean (2006)

Ekintzailtza soziala antolakunde mota jakin batera (hirugarren nahiz bigarren sektoreko antolakundeetara) mugatzeko nahia auzi nahasi eta lausoa dela ikusten dugu goiko irudian, eta, Nicholls eta Chok (2006) dioten moduan, «Erabilitako antolatze-mekanismoak ez du ia batere garrantzirik: ekintzaile sozialek berdin lan egiten dute sektore publikoan, pribatuan nahiz

sozialean, eta berdin erabiltzen dituzte irabazi-asmoko, irabazi-asmorik gabeko antolaketa-ereduak nahiz eredu hibridoak (edo hiruon arteko konbinazioak), balio soziala sortu eta aldaketa bultzatzeko.

#### 4.3.4. Berrikuntza soziala

Ekintzaitza sozialari buruzko aurkezpen honen hasieran azaldu dugunez, berrikuntza dugu kontzeptuaren ezaugarri bereizleetro bat. Zentzu horretan ekimen sozialak, alor sozialaz duten ikuspegia dela eta, gaur egun berrikuntza sozialari buruz egiten diren eztabaidetako gai bat bihurtu dira.

Sistema kapitalistak sortutako merkatu-akatsi aurre egiteko eta Estatuak gizarteko arazo gero eta korapilatsuago eta ugariagoi erantzuteko ezintasunari erantzuteko sortu zen berrikuntza soziala hasiera batean, eta «ekoizpen- eta banaketa-sistemetan justizia soziala berriro sartzen joateko» tresna bihurtu zaigu (Moulaert, 2005).

Morales Gutiérrezek (2009) lau faktore aipatzen ditu berrikuntza sozialak pizten duen interes gero eta handiagoa azaltzeko.

- Batetik, Estatuak ulertzeko modua aldatzen ari da ongizate-estatuaren krisiaren (aurrekontuetan, eraginkortasunean eta are zilegitasunean ere) nahiz Administrazioako antolakuntza-aldaketen ondorioz.
- Merkatua aldatzen ari da, eta gero eta jokamolde jasangarriagoa aurkitzen dugu eskaria osatzen duten eragileen aldetik (enpresen erantzukizun sozialeko jardunbideak bultzatuz horri esker). Eskaintzan ere lehiako enpresetatik bereizteko estrategia berrien premia sumatzen da, merkatu tradizionalak agortzen ari diren egungo testuinguruan.
- Gizartea aldatzen ari da: gizarte zibila protagonismoa eskuratzen ari da eta eragile berriak agertu dira ekiteko esparru berrietan.
- Hirugarren sektorea ere aldatzen ari da. Goian aipatu ditugun hiru puntuek jarduera-eremu berria sortu dute, eta eremu berri horretan eragileen arteko lankidetzarako molde eta tresna berriak beharko dira, eta beharrezkoa izango da



sektoreen baitako mugak gainditzea eta sektoreen arteko hibridaziorako aukera berriak zabaltzea).

Bueno et al.-ren (2011) arabera, berrikuntza sozialaz hitz egiten denean ez dugu kontzeptu horri buruzko definizio argi eta unibertsalik izaten, aztergai dugun kasuaren araberrako hurbilpenak baizik. Hona, Buenok hiru ikuspegitatik heltzen dio kontzeptu horri:

- Berrikuntza sozialaren xedearen arabera, hau da, gizarteko arazo bat konpontzea. Beharbada horixe da nagusitzen den ikuspegia berrikuntza soziala kontzeptualizatzen saiatzen garenean. Enpresaren esparruan, berriz, berrikuntza ekintzaitzarekin lotzen da, gizartean aldaketak sortzea izanik horren helburua. Schumpeterentzat berrikuntza ezinbestekoa da garapena lortzeko, eta haren ustez oinarri sozialagoa duen ikuspegia behar dugu sistema ekonomikoari buruz. Jasangarria izatearekin batera inpaktua sortzeko gai den antolakuntza-egitura baten bidez gizarteko arazoak konpontzeko molde berritzailea garatzeko/bultzatzeko gaitasunarekin lotzen ditu ekintzaile sozialak Bill Drayton Ashokako<sup>25</sup> fundatzaile eta Lankidetzako Asturiasko Printzea saria eskuratu berriak.
- Berrikuntza sozialeko prozesuak norik bultzatzen dituen galderari erantzuten saiatzen den subjektuagatik. Prozesu horiek hirugarren sektoreko antolakundeen baitan gertatzen direla uste dutenen eta, laugarren sektorearen argudio-ildoari jarraiki, merkatuaren, Estatuaren eta hirugarren sektorearen arteko elkarlanaz hitz egiten dutenen artean eztabaidak sortzen dira hemen.
- Metodoagatik. Giza harremanetan jartzen da pisua, berrikuntza soziala enpresaren kapital sozialarekin lotzen duen ikusmolde zabalarekin bat eginez.

Ildo horri jarraiki, nabarmentzekoa da Europar Batzordeak berrikuntza sozialari buruz ematen duen definizioan *zer* eta *nola* alderdiak azpimarratzen dituela: «merkatuak edo sektore publikoak behar bezala asetzen ez dituen behar sozialei erantzuteko

25 1980an sortutako irabazi-asmorik gabeko antolakundea da Ashokak, eta ekintzaitza sozialeko ekimenak bultzatuz gizarte-aldaketak sustatzea du helburutzat. Elkar elikatzen duten hiru mailatan egiten du lan Ashokak: Batetik, banakako laguntza ematen die ekintzaile sozialei; bigarrenik, bestelako ekintzaile-komunitateak sortzen saiatzen da, eskalagarritasuna bilatu eta jardunbide egokiak partekatuz; hirugarren eta azkenik, berrikuntza-prozesuak modu jasangarrian gauzatzeko esparru egokia izango den finantza-sistema eta azpiegitura eraikitzen saiatzen da.

molde berriak bilatzen saiatzen da berrikuntza soziala, eta bilaketa horretan herritarrak gaitu eta gizarte-harremanen eredu berriak eta lankidetzaren eredu berriak sortzen ditu».

Morales Gutiérrezen (2009) ere nabarmentzen du *berrikuntza soziala* kontzeptua zedarrizteko ikusmolde desberdinak aurkituko ditugula (batzuk bat datoz zenbait alderditan baina beste batzuetan ez) gaiari heltzeko abiapuntutzat hartzen dugun jakintza-eremuaren arabera, eta honela definitzen du berrikuntza soziala: «zerbitzu baten prestazioan edo ondasun baten ekoizpenean egindako aldaketa original/berritzaile baten bidez, eta orokorrean sare-sistema baten bidez jardunez eta errepikatua izateko potentziala izanik, emaitza batzuk lortzen dituen gizarte-aldaketarako ekintza endogeno edo esku-hartze exogenoa».

Nolanahi ere, berrikuntza soziala definitzen duten ezaugarri bereizleak batzuk aipatuko ditugu hemen:

- Originalak dira, eta izaera berritzaile eta berria biltzen ditu.
- Ukiezinekin egiten dute lan bereziki eta, askotan, zeharlerrotasunean oinarritutako ikuspegia izaten dute.
- Eskalagarriak, besterengarriak eta kopiagarriak dira.
- Gizarteko arazoak konpontzera bideratuta daude eta herritarren onarpena dute.
- Intentsiboak dira kapital sozial-erlazional aldetik.

Atal hau amaitzeko, berrikuntza sozialtzat jo ohi diren zenbait ekimen jaso ditugu taula batean.

**13. irudia. Berrikuntza mota desberdinak**

Berrikuntza mota	Berrikuntza	Adibideak	Berrikuntzaren ezaugarriak
Antolakuntza-arlokoa	Profesionalki diharduten boluntarioak biltzen dituzten erakundeak	Mugarik gabeko medikuak	Profesionalen eta nazioarteko lankidetzaren arteko lotura
	Merkatuaz kanpoko truke-sistemak	Denbora-bankua	Truke-sistema estandarizatuak
Finantza-arlokoa	Mikrokredituak	Grameen bankua	Kreditu txikiak, genero-politikarekin eta burokrazia gutxirekin
Merkatu-arlokoa	Bidezko merkataritza	Fair Trade, Body Shop	Bitartekarien gehiegikeriak mugatzen dituen merkataritza-jarduera, irabaziak jatorrizko ekoizleekin banatzen ditu
Ingurumen-arlokoa	Birziklatzea	Emaús Taldea	Lan-munduratzeta eta ingurumena babestea
	Nekazaritza ekologikoa	Sekem	Baliabide endogenoen ustiaketa eta garapen lokala
Metodologikoa (kudeaketa publikoaren arlokoa)	Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak	Porto Alegreko esperientzia	Arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzeta udal-jarduerarako

**Iturria: Morales Gutiérrez (2009)**

**4.3.5. Ekintzailtza soziala Espainian**

Global Entrepreneurship Monitoring (GEM)<sup>26</sup> proiektuak ekintzailtza sozialeko jarduerak neurtzeko adierazle berri bat aurkeztu zuen 2009an: Social Entrepreneurship Activity (SEA).

Nahiz eta *ekintzailtza soziala* nozioa<sup>27</sup> lehenbiziko aldiz 2009ko txostenean agertu, kapitulu honetan jasotzea egokia iruditu zaigu nazioarteko alderaketak egiteko abiapuntu egokia


<sup>26</sup> GEM ekimena 1999an jarri zuten martxan London Business School eta Babson College unibertsitateek, herrialde etako

ekintzaitza-ekimenen ebaluatzeko asmoz. Hasiera batean hamar herrialde hartu zituzten aztergai, eta orduz geroztik kopurua igotzen joan dira mundu osoko egungo 59 herrialdeetara iritsi arte. Ekimen honi buruzko informazio gehiago: <http://www.gemconsorium.org/>.

delakoan, txosteneko ikerketa-jarduerak hainbat lurraldetako ekintzaitzari buruzko ebaluazio bateratu batean oinarritzen diren aldetik.

Txosteneko ondorioetan ikusten denez, nolabaiteko korrelazio positiboa dago herrialdeen garapen-mailaren eta ekintzaitza sozialeko jardueren artean, nahiz eta Espainiak balio baxu samarra izan horretan. Biztanle helduen %0,53k bakarrik parte hartzen dute ekintzaitza sozialeko ekimenen batean. Danimarka dugu gai hauetako erreferentziazko herrialdea %5,4rekin, bera baita esparru honetan baliorik altuena duen herrialdea (Yemen eta Tongaren atzetik, baina bi herrialde horiek ez dira adierazgarriak ondorioak estrapolatzeko garaian, biok ere berezkoak dituzten ekintza sozialeko beharrak direla eta).

#### 14. irudia. Ekintzaitza sozialeko jarduna guztira. 2009ko emaitzak, herrialdeen arabera




Iturria: GEM (2010)

Ekintzaitza sozialeko prozesuak ekimenen hasierako faseetan gertatzen dira gehienbat. Bi interpretazio egin ditzakegu hemen. Batetik, ekintzaitza soziala ondo hartzen dela gizarteko arazo eta erronkei aurre egiteko tresna gisa, mundu-mailako finantza-

krisiaren ondorioak arazo horiek areagotu egin dituela ikusita, gainera. Bestetik, aurrekoa bezain baikorra ez den ikuspegiak ekintzaitza sozialeko ekimenek bizirik irauteko dituzten zailtasunak aipatzen ditu, eta horri egozten dio enpresak egonkortu ahala ekimen haiek gutxitzen joateko joera.

### 15. irudia. Ekintzaitza sozialeko jardunaren ehunekoa ekintzaitza-ekimenak dauden fasearen arabera, Espainian, 2009 urtean



#### Iturria: GEM (2010)

Azkenik,, ekintzaileen profil sozio-demografikoari dagokionez, hauek dira haien ezaugarri nagusiak: gizonak (%66), 25-34 urte bitartekoak eta erdi-mailako ikasketa dunak. 18-24 urte bitartekoan eta goi-mailako ikasketadunen parte-hartze urria nabarmentzen da datuotan, *innovation driven* diren beste herrialde batzuetan ez bezala. Dena den, oraindik goizegi da jokamolde berezitu horren gainean ondoriorik ateratzeko, eta, beraz, pixka batean itxaron beharko dugu alderdi horiek aurrerago aztertu arte.

#### 4.3.6. Ekintzaitza sozialak laugarren sektoreari zuzendutako galderak

Lan honetan laugarren sektorera aurkeztean azaldu dugunez, berrikuntza sozialak berebiziko garrantzia dauka.

Gure gizartearen oinarrian egon diren hiru sektore tradizionaletan aldakuntza-sintomak sumatzen dira. Sektore

27 *Ekintzaitza soziala* terminoa definitzeko dagoen hutsune akademikoa ikusita, terminoak biltzen dituen ikuspegi guztiak biltzeko bezain zabala den definizioa proposatu du GEM proiektuak. Hala, hauxe da ekintzaileen definizioa GEMen arabera: «lehentasuneko xedea soziala duen ekintzaitza-jardueraren batean diharduen edozein pertsona».

publikoa, ongizate-estatuaren krisiari eta Administrazioaren beraren barruko antolakuntza-aldaketei erantzunez, gizarte-arazoei sektore pribatuko logikatik erantzuten hasia da. Sektore pribatua, berriz, ahalik eta etekin ekonomikorik handiena eskuratzeko helburu tradizionalaz gain kezka sozialak eta ingurumen-arlokoak barneratzen hasi da estrategikoki. Azkenik, hirugarren sektoreko zenbait erakundek enpresari geroz eta lotuagoa dagoen jardunbidea hartzen eta tradizionalki beren jarduera-eremutik kanpo egon diren esparruetan jarduten hasi dira.

Laugarren sektorearen ikuspegitik, eszenatoki berria sortzen da horren guztiaren ondorioz, eta eszenatoki berri horretan, gomendagarria gertatzen da sektoreen arteko mugak gainditzen dituzten lankidetzeta-metodo berriak garatzea eta ondo ikusia dago hiru sektore tradizionaletako estrategiak eta berezitasunak uztartzeko gai diren antolakuntza-ereduak lantzea, gizarteko erronkei behar bezala erantzuteko.

Gorago esan dugunez, berrikuntza sozialeko prozesuak edozein sektoretan eta antolakuntza-moldeetan garatu daitezke eta, hortaz, prozesu horien bidez balio soziala sortzen denez, dagokien arreta eskatzen dute laugarren sektorea eraikitzeko garaian.

Emaitzetara bideratutako jarduera sozial eta ekonomiko handia piztuz enpresak, enplegua eta aberastasuna sortzen laguntzen dute ekintzailtza sozialeko prozesuak bultzatuko ditu laugarren sektoreak, bere aldetik.

Azkenik, kontuan izan behar dugu ekintzailtza soziala ezin dela berez sortzen den gertakarizat hartu, pertsona batzuk baitaude haren oinarrian dauden dinamikak bultzatzen: balio soziala sortzeko aukera berriak bilatzeko eta hautemateko, berrikuntza sozialeko prozesuei heltzeko eta, alternatibak proposatzeko garaian, baliabide-urritasunari aurre egiteko gai diren ekintzaile sozialak eta beren ekintzailtza-prozesuak, hain zuzen ere.

Ekintzailtza soziala ulertzeko dauden ikuspegiaren artean (gorago aipatu ditugu), diru-sarrera batzuk sortuz iritsiko gara laugarren sektorera, errentagarritasun ekonomikoa

errentagarritasun sozialaren mende egon arren. *Hibridazio*-prozesuak sortuko dira, horrela.

#### **4.4. Negozio barne-hartzaileak piramidearen oinarrian**

##### **4.4.1. Jatorria**

*Piramidearen oinarria* kontzeptua eta negozioetan izan duen eragina 1999an sortu ziren. «Strategies for the Bottom of the Pyramid: Creating Sustainable Development» txostena argitaratu zen urte hartan, eta «The Fortune at the Bottom of the Pyramid» geroxeago, 2002an, Michiganeko Unibertsitateko C.K. Prahalad-ek eta Cornell Unibertsitateko Stuart L. Hart-ek idatziak biak ere.

Bi autore horien arabera, enpresa pribatua oraindik barneratu ez zen ezkutuko merkatu bat dago. Eguneko lau dolar baino gutxiagorekin bizi den biztanleriak osatzen du merkatu hori, hau da, 4.000 milioi biztanle, gehienak ere Txinan, Indian, Latinoamerikan eta Afrikan bizi direnak.

Artikulu hark kritika asko jaso zituen munduko pobreei gauzak saltzeko zekarkien ikusmolde berria zela eta, baina kontzeptua garatuz joan da eta «piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileak» esaten zaio gaur egun. Era horretako negozioak munduko pobrezia aurre egiteko tresna eraginkor gisa taxutzen dira normalean, eta sektore pribatua zuzenean murgiltzen dute zeregin horretan, ordura arte gertatzen ez zen moduan.

Sektore pribatua munduko pobrezia ezabatzeko erakartzeko asmoz, piramidearen oinarrian negozioak sortzeko orientazio horrek antz handia dauka aurrekarien kapituluan azaldu ditugun beste ikuspegi batzuekin. Dena den, piramidearen oinarriaren ikuspegiak biztanleria-sektore izugarri handi horiek merkatu potentzialtzat hartzea proposatzen du zuzenean, haien behar espezifikoerantzen saiatzeko asmoz. Filokapitalismoaren tankerako beste ikuspegi batzuetatik aldentzen da, beraz. Azken honek karitaterako erabili nahi ditu soberakin diren zenbait baliabide, baina 4.000 milioi gizaki horiek osatutako merkatu berria negozioaren definizioan bertan sartu gabe.

Enpresa pribatuak negozioak piramidearen oinarria bideratzeko garaian, beren produktu eta prozesuak berritzeko

28 Innobasque (2011)  
«La Base de la Pirámide  
bajo el prisma de  
Euskadi. Diagnóstico  
sobre el potencial de  
Innovación en la Base de  
la Pirámide».

aukera gisa egiten dute askotan, horrela erabateko berrikuntzak egiteko ohi dutenaz bestelako bezero batzuei zerbitzua ematearen bidez. Innobasquek gaiari buruz argitaratutako dokumentuan<sup>28</sup> aurkituko duzue horri buruzko informazio gehiago.

*La fortuna en la base de la pirámide* liburuan piramidearen oinarri horretan kontzienteki edo ia erdi-kontzienteki lan egiten duten enpresa pribatuen adibide onak biltzen ditu Pralahad-ek. Esperientzia horiek emaitza desberdinak utzi dituzte, baina negozio barne-hartzaileen printzipioak garatu eta gizarteari eta ingurumenari garrantzia ematen ziotenak izan dira arrakastarik gehien izan dutenak. Ikuspegiak garatuz joan dira eta gaur egun enpresa pribatuek proaktiboki jokatzeko dute, ikuspegi horietarantz jotzen saiatuz. Joera horrexen adibide ditugu Scheider eta BIP BOP programa eta BSHren PROTOS berogailua.

#### 4.4.2. Stuart Hart-en eta C.K. Pralahad-en jardunbideen arteko aldeak

Alde nabarmena dago Stuart L Hartek eta C.K. Pralahad-ek kontzeptua ulertzeko duten moduan, eta piramidearen oinarriaren ikuspegia praktikan aplikatzeko garaian aldaerak agertzea eragin dezake horrek.

Stuart L. Hartek jasangarritasun edo iraunkortasunaren ikuspegitik heltzen dio terminoari, berak idatzitako argitalpenetan agerian gelditu denez. Gorantz doazen merkatu berrietan erronkei erantzuteko garaian ingurumena babestu beharra dagoela esaten du argitalpenotan, gure planetan ingurumen aldetik dagoeneko bizi duen krisia aintzat hartzeko. Horretarako, sektore pribatuak ere parte hartu behar du pobrezia-arazoei aurre egiteko garaian, oro har, eta ingurumen-arazoei aurre egiteko garaian, zehazkiago, arazo horietako asko gorantz doazen herrialdeetan kokatzen dira eta. Ingurumen-arazoen murrizketa enpresen lehiakortasun handiagoarekin lotzea da oinarrian datzan ideia. Ez da lan altruista bakarrik, merkatu-ikuspegi bat baizik. Lehiakortasuna hobetzeko jasangarritasuna edozein merkatu-ikuspegiren zeharlerrotzat hartu beharra daukate ezinbestean, eta etorkizunean are beharrezkoagoa izango da hori. C.K. Pralahad-ek enpresen lehiakortasunaren ikuspegitik heltzen dio gaiari, lehiakortasun ongi puzteko merkatu berriak bilatzeko asmoari jarraiki.



Negozioen paradigma garapen jasangarrirantz aldatu beharra zabaldu zuen Gary Hamelekin batera. Ezagutza kulturantz eskuratu eta barneratzeko eta lankidetzan jarduteko eta gauzak partekatzeko ideiarantz jotzen hasi zen pixkanaka. Guztia ere paradigma-aldaketa benetakoa eta eraginkorra izan dadin eta enpresek herrialde horietan duten jardunbidea aldatzeko, bai negozio-ereduei beraiei dagokienez, bai prozesuetan, logistikan, marketinean... eragina duten alderdi zehatzei dagokienez ere.

Dena den, bi autoreek ere antzeko eboluzioa izan dute gorantz doazen merkatuek biongan pizten duten interes handian ikusten denez, merkatuok duten berritasuna berrikuntza-iturri izan daitekeela uste baitute. Herrialde garatueta oso bestelako testuinguru kulturalak eta lehen munduan ohikoa ez den gabezia-testuinguru batean garatzen direlako gertatzen da hori. Ildo horretan, herrialde hauek dituzten erronka espezifikoak begiratu behar zaie: produktuen dosifikazio askoz doituagoa, ekipok argindar mugatuarekin funtzionatzeko baldintzak, produktuak berrerabiltzea haien balio-bizitza luzatzeko, etab.

Piramidearen oinarriko negozioak oso ezagun egin ziren 2005ean, hizpide ditugun bi autoreek idatzitako liburu banagatik: *The Fortune at the Bottom of Pyramid* (C.K. Prahalad) eta *Capitalism at the Crossroad* (Stuart L. Hart). Urte berean, «Piramidearen oinarriaren lehen protokoloa» argitaratu zuen Hartek beste autore batzuekin batera, eta piramidearen oinarriko negozioak sortzeko oinarriak finkatu zituen bertan. Merkatu berrietan hutsetik piramidearen oinarriko negozioak garatzeko lehen metodoa aurkeztu zuen liburuan.

Urtebete lehenago, piramidearen oinarriko ikaskuntzarako lehen laborategia sustatu zuen Ipar Karolinako Unibertsitatean. Laborategia Cornell Unibertsitatean eraman zuten aurrerago, eta hantxe du egoitza orain. Urte batzuk geroago mundu-mailako piramidearen oinarriko laborategien sarearen sorkuntza bultzatu zen unibertsitate horretatik, era honetako negozioei buruzko ikaskuntza bultzatzeko asmoz.

Laborategi-sare horrek hamabost laborategi ditu gaur egun, Bartzelonan duten webguneko informazioaren arabera. Amerikan, Afrikan, Asian eta Europan daude laborategiok eta

garapen ekonomikoko eta enpresa-estrategiako 40 adituk lan egiten dute bertan. Lan hau idazteko garaian munduan zeuden laborategien mapa agertzen da beheko irudian.

### 16. irudia. Piramidearen oinarriko laborategi-sarearen mapa



Iturria: [www.basedelapiramide.net](http://www.basedelapiramide.net)

Laborategi horietako etengabeko ikaskuntza bilduta, piramidearen oinarriko negozioentzako protokoloaren bigarren edizioa idatzi zuen 2008an Stuart L. Hartek Erik Simanisekin batera. Bigarren protokoloan era honetako negozioak sortzeko hiru etapa bereizten dira: tokian bertako prestakuntza, prestaketa-prozesua eta negozioaren mailaketa. Etapa horietako bakoitzean balioa sortzen da eta ikaskuntza partekatua egiten da parte hartzen duten alde guztien artean.

Bai Hartek bai Simanisek aipatzen dute sektore publikoak eta pribatuak parte hartzeko beharra eta tokian bertan lan egiten duten antolakunde sozialak aintzat hartzeko beharra. Bi sektoreek elkarlanean jardun behar dute piramidearen oinarriarentzat eta

piramidearen oinarriak partekatutako proiektuak sortzeko. Horiek horrela, eragileen arteko «bat-egitea» topatzen dugu. Bakoitza sektore batetik dator, baina laugarren sektorearen estrategia osatzen dute guztien artean. Gerta liteke errealitate espezifikoko bat azaleratzea, baina, era berean, hiru aldeek elkarlanean jardun dezakete piramidearen oinarriko negozioak gauzatu ahal izateko.

C.K. Pralahadek ez dio garrantzi handirik ematen tokian tokiko komunitatean lan egiteari hasiera batean. Stuart L. Hartek, aldiz, funtsezko pausotzat jotzen du tokian tokiko komunitateen jabeakuntza negozio jasangarriak sortu ahal izateko. Denborak erakutsi duenez, bigarrena zen zuzen zebilena, printzipio horiek betetzen ez dituzten enpresa askok porrot egiten baitute piramidearen oinarriko negozioak martxan jartzean eta balioa beste batzuekin batera sortzeko eta tokian tokiko komunitateen parte-hartzea eta jabeakuntza bultzatzeko bidetik jo behar izaten dute arrakasta lortzeko.

Bi autoreek ere gorantz doazen merkatuek eskaintzen duten aukera garrantzitsu bat aipatzen dute: enpresek beren produktuak probatu ditzakete han, beren merkatu tradizionalak arriskuan jarri gabe. Eta gorantz doazen merkatuen behar espezifikoei emandako erantzunek alderantzizko esportazioa ere eragin dezaketela nabarmentzen dute: herrialde haietatik berrikuntzak esportatu daitezke lehen mundura. Arazoen gaineko fokua enpresek normalean lantzen dituztenez bestelako eskakizunak dituzten merkatuei erantzuteko zabaltzen denean, berrikuntza-ildo berri bat garatzen da, eta ildo horrek onurak eragin ditzake merkatu tradizionaletan ere.

C.K. Pralahadek India jotzen du piramidearen oinarriko negozioen esperimentazio-esparru nagusitzat. Hiru arrazoi aipatzen ditu horretarako, merkatu zehatz horren potentziala agerian utziz:

- Hango biztanleria handia.
- Komunikazio-erraztasunak, ingelesaren erabilera handiari esker.
- Indiarren ekimen handia.

Piramidearen oinarriko laborategietan egindako etengabeko

ikaskuntzari jarraiki, pobrezia ezabatzearen tankerako helburu bat hizpide ditugun negozioen jasangarritasun ekonomikoaren helburuarekin batera, gizartean eta ingurumenean duten inpaktua ere kontuan hartuta aztertzen dira, eta, hala, enpresaren emaitzak neurtzeko garaian, galera-irabazien kontu hirukoitza erabiltzen da orain, aurrekarien kapituluan azaldu dugun moduan.

Piramidearen oinarriko kideak beraiek aktiboki parte hartzen dute negozio barne-hartzaileek beren komunitatean inpaktu handiagoa izan dezaten eta proiektuak jasangarriagoak izan daitezten. Prahaladen eta Harten hasierako ideien eboluzioa eragin du horrek. Horrenbestez, piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileei buruzko bi ikuspegiak uztartu egin daitezke gaur egun.

#### **4.4.3. Piramidearen oinarriko merkatuen ezaugarriak**

Munduko Bankuaren Institutuak piramidearen oinarriko kontsumo-sektoreen erradiografia osatu zuen 2008an egindako azterketa batean. Piramidearen oinarriko pertsona gehienak landa-inguruneak dira Asian eta Afrikan eta hirietakoak Latinoamerikan eta Ekialdeko Europan. Berezitasun hori oso garrantzitsua da produktu eta zerbitzuen banaketa egiteko garaian.

Piramidearen oinarriko jende gehiena Asian bizi da nagusiki, hantxe baitaude India, Txina eta Indonesia, munduko lau herrialde populatuenetako hiru, eta denen artean piramidearen oinarriko merkatu handia osatzen dute.

Munduko Bankuaren Institutuaren ikerketa horren arabera, eros-ahalmenari dagokionez, elikagaiek osatzen dute biztanle hauen gastu nagusia. Dena den, telekomunikazioak eta garraioa ere azkar-azkar igotzen ari dira. Bi merkatu natural handiren hazkuntza ekar lezake horrek: lehen mailako beharrei lotutako merkatu bat izango genuke, batetik, eta gure garaiko gizartearen antzeko ezaugarriak dituen beste merkatu bat, bestetik.

Bestalde, hango merkatuetan ekonomia informala da nagusi eta banaketa ez-efizientea eta ez-lehiakorra izaten da gehienetan (prozesuok lehen mundutik begiratzen dituenaren begietara, behinik behin). Halako aukeretan oinarrituta sortu da Frogtek,

esate baterako. Merkatari txikiei beren izakinak hobeto kudeatzen laguntzen zaie ekimen honen bidez, smartphonerako aplikazioak erabiliz. Era honetako soluzioek agerian uzten dute zer-nolako produktu eta zerbitzuak diren erabilgarriak halako merkatuetan:

- Azpiegitura handirik gabeko negozioei zuzentzen zaizkie.
- Euskarri eskuraeraz eta erabilerrazen bidez eskuratzen da informazioa.
- Informazioa jatorrian sortu eta komunikazio digitalak eskaintzen dituen aukerak erabiltzen ditu, informazio hori beste leku batean tratatzeko.
- Beren negozioaren eguneroko alderdiei buruzko erabakiak hartzeko lagungarria zaien informazioa itzultzen die erabiltzaileei. Informazio horrek beren salmenten gaineko ikuspegi orokorra ere ematen die eta zer eta zenbat erosi erabakitzen eta zenbat salduko duten aurreikusten laguntzen die, halaber.

Informaltasuna, finantzaziorik eza, azpiegitura eskasak eta ezagutza- eta gaitasun-maila apalak dira piramidearen oinarriko negozio bati ekin aurretik edozein enpresak aintzat hartu beharreko zenbait oztupo (aukera eta erronkatzat ere jo daitezkeenak, bide batez). Era berean, lanean jardungo duen biztanleriak bizi duen pobrezia-zirkulu partikularra ezabatzeak negozio-aukera berriak sustatuko ditu piramidearen oinarrian.

#### **4.4.4. Hiru sektoreen parte-hartzea piramidearen oinarriko negozioetan**

Piramidearen oinarriko negozioen bideragarritasunak berritasun bat dakar, nazioartera zabaltzeko ekimen tradizionalen aldean: ekonomiako hiru sektoreen ezinbesteko parte-hartzea. Zein zentzutan da beharrezkoa eta zein paper jokatu behar du? Lehen azalpen bat emango dugu aurrena.

Sektore publikoak arau espezifikoak bultzatu behar ditu era honetako jarduerak bultzatzeko. Gai honetan diharduten herrialdeek (gorantz doazen ekonomiak nahiz ekonomia aberatsak izan) lan bateratua egin behar dute sektore pribatuari eta antolakunde sozialei aukera emateko guztiak ere lankidetzan

jarduteko pobrezia ezabatzeko helburuarekin. Gainera, gorantz doazen herrialdeetako toki-administrazioek nazioarteko politikako ildo nagusi horiekin koordinatu beharko lirateke, gogoan izanik azken horiek nazioz gaindiko erakundeen hitzarmen eta gomendioak bete beharko dituztela.

Hirugarren sektorea da, tokian bertan diharduten eragile, GKE eta antolakunde sozialekin batera, pobrezia-zirkuluak eta irisgarritasun- eta eskuragarritasun-oztopoak ongien ezagutzen dituztenak eta, hortaz, oso aproposak dira enpresa pribatuaren eta piramidearen oinarriko biztanleen arteko zubi-lana egiteko. Gainera, ahalik eta eskulan gehien behar duen zeregin baterako boluntarioak erakartzeko gaitasunik gehien duten erakundeak dira horiek.

Sektore pribatua, bestalde, era honetako negozioen benetako akuilua izango litzateke, merkatuan eraginkortasunez jarduteko eta beharrezko eskalagarritasuna sortzeko duen gaitasunari esker. Edonola ere, jardun guztiz gardena garatu beharko lukete eta, behar izanez gero, erakunde autonomoen ikuskapena onartu beharko lukete, jardun horren oinarri etikoa ziurtatzeko. Gai korapilatsua da hau, merkatuen lehiakortasuna lortzearen irabazi ekonomikoa kostuak murrizteko bide gaitzesgarrien bidez sortzen dituzten neurriak hartzen direlako askotan. Nolanahi ere, sektore pribatua dugu piramidearen oinarriaren ikuspegi honetako eragile nagusia eta, izatekotan, merkatuaren jardunak beharrezko kontrol soziala izateko bitartekoak jartzean dago gakoa.

Ekimenak sustatzeko estrategia komunak sortu behar dira hiru sektoreen artean, bai egitura formalen bidez, bai proiektu zehatzak bultzatzeko hitzarmen sinpleen bidez. Sortutako ekosistemak gai izan beharko luke eragile bakoitzaren indarguneak eta guztien motibazioak osatzeko, eta gai izan beharko luke, halaber, horiek guztiak behar bezala neurtu eta, haien funtzionamendua galarazi beharrean, jarduteko dituzten gaitasunak ugaritzeko.

Ekosistema horrek malgua izan behar du proiektu globalaren abiadura desberdinetara egokitzeko, eta oreka dinamiko bati eutsi behar dio. Beharbada hasierako faseetan gaudenez, ez dago piramidearen oinarriko merkatuei heltzeko garaian hiru sektore tradizionalen arteko elkarlan globalean oinarritzen den

esperientzia askorik oraindik. Halere, lehiakortasuna sortzeko molde berri bat sortzear egon liteke laborategietako lanari eta enpresa multinazional batzuek bultzatutako ekimen zehatzei esker.

#### **4.4.5. Piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileen eskalagarritasuna**

Piramidearen oinarriko negozioek izan ohi duten arazoetako bat eskalagarritasunari dagokiona da. Negozio horietako asko herri-mailan sortzen dira eta zenbait oztopo gainditu beharra dago eskalagarritasuna lortzeko. Oztopo horietako batzuk hauek dira:

- Beharrezko erosketak egin ahal izateko diru lokala eskuratzeko ziurgabetasuna. Horrek finantzazio-teknika berritzaileak edota erabileragatiko ordainketak hedatzea ekarri du. Izan ere, mikrofinantzazioa, banku etikoak, P2P ereduko finantzazioa eta antzekoak biltzen dituen segmentu oso bat sortzen ari da.
- Merkatua eta beharra nahastea, arriskua dagoelako piramidearen oinarriko pertsonak behar dutena benetan erosten dutenarekin nahasteko. Hori dela eta, merkatuan eskaria sortzeko garaian, beharra hartu behar da oinarrian, baina erreala izan behar du eta tokian tokiko berezitasunei erantzun behar die.
- Zailtasunak salmentak sortzeko eta banaketak egiteko. Lehendik dauden sareak erabili beharko litzateke beharbada, norberaren sareak sortzen tematu gabe, azken horiek besteak bezain eraginkorrak ez izatea gerta baitaiteke, tokian tokiko merkatuetan elementu kulturalak aintzat ez hartzearen ondorioz.
- Barreiatuta dauden hornitzaileak, hauek areago zailtzen baitute ekoizpena, banaketa egokia izateko aukeretan duten eraginaren ondorioz eta, baita ere, beren produktu edo zerbitzuak entregatzeko bitarteko arinik ez duten ekoizle txikiak koordinatu behar izanik merkaturatzeko denborak (*time-to-market*) luzatu daitezkeelako.
- Ase gabeko behar asko. Askotan elkarri lotuta daude behar

horiek eta merkatuaren gaineko ikuspegi globala izatea galarazten dute askotan.

Berriki egindako ikerketek —Beth Jenkinsek eta Eriko Ishikawak Nazioarteko Finantza Korporaziorako egin duten ikerketan hamalau negozio barne-hartzaile ikertu dira— agerian utzi dutenez hazkundea da era honetako negozioen sorreran aurkitzen dugun ezaugarri komuna. Hamalau negozio horietako seik enpresen erantzukizun soziala ere nabarmentzen zuten, hiruk arriskuen murrizketa eta beste hiru lege-alorreko alderdiak.

Aipatu dugun ikerketa horretan piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileen eskalagarritasunean azaleratu diren eredu komun batzuk azpimarratzen dira:

- Pobreek produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago izateko moduko aukera ekonomikoak garatzean oinarritzen da era honetako antolakundeen onura. Hauek dira aukera horiek: alternatibak ekoizle eta ekingizailerantz hainbat sektoreen (nekazaritzan, banaketa-arloan, produktuen txikizkako salmentan...) hornitzaile gisa jarduteko.
- Era berean, merkatuaren barreiaketa ikusita, merkatu hori konektatzeko sare eta plataforma teknologikoak behar dira. Hori bereziki egokia da landa-inguruneke herrixka urrunetan bizi diren bezeroengana iristeko.
- Finantzazioa balio-kate osoan egiten da, bai erosleekin, bai banatzaileekin, bai hornitzaileekin, eta eragile guztiek oinarritzko finantzazioa eskuratzeko aukera dute horrela, salerosketak ez oztotatzeko moduan. Horretarako finantzazio-formula egokiak sortu behar dira, hala nola, mikroredituak, erabileragatiko ordainketak...
- Ez dago merkaturik berez eta sortu egin behar da, errentagarria izan dadin. Hiru eragileek egon behar dute merkatu horretan: saltzaileek, bezeroek eta ekoizleek. Bezeroak zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta errazagoa izango da merkaturia sortzea, produktu eta zerbitzuen erabilgarritasuna ikusiko baitute. Ekoizleek zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta kalitate, fidagarritasun eta kostu hobea izango dute produktuek. Eta banaketa hobetuz gero errazagoa izaten



da produktuak eskuratzea.

#### 4.4.6. Finantza etikoak

Ondorioen idazpurua gehitu aurretik, finantza etikokoak aipatuko ditugu berariaz, gaur egun hartu duten garrantzia kontuan hartuta. Korapilatsu samarra da gaia, eta oso eskaintza zabala dago, baina kontuz aztertu beharreko ñabardura asko ditu.

Oro har, irizpide bakartzat errentagarritasuna eta arriskua ez dituzten finantzazio-zerbitzuek osatzen dute banka alternatiboa, terminoaren adiera zabalean. Banku-eredu honen bereizgarri nagusia alderdi «etiko» izaten da askotan. Termino konplexua da hori eta era askotara interpretatu daiteke, baina, halere, piramidearen oinarriko negozioei lotuta azaltzen zaigun irizpide «sozial»era hurbiltzen den neurrian erabiliko dugu.

Finantza etikoen eskaintza oso zabala da gaur egun, baina bi multzo nagusi bereizi ditzakegu: erabiltzaileak jabe ere badiren erakundeak eta sozietatearen kapitalean parte hartzen dutenak bakarrik jabe diren erakundeak. Lehenbizikoak kreditu-kooperatiben egitura izaten dute askotan. Era honetakoak dira Fiare eta Coop57, esate baterako. Bigarren multzoan Triodos Bank daukagu, adibidez.

Oso, egoera konplexua daukagu dauden aukera ugariak direla eta. Grameen Banken kasua da aipatzen ari garen eruedetatik ezagunen egin dena, beharbada. Muhammad Yunus Nobel saridunak sortutako banku horrek mikrokredituetan oinarritzen du bere jarduna, eta izan duen oihartzun eta eragin handiari esker merkatu-txoko espezifikoa bat sortu da mikrokredituen inguruan. Hasiera batean mikrokredituak baliabide urriak dituzten landa-inguruneko komunitate jakin batzuei zuzentzen zizkien banku horrek izan du kritikarik. Mikrofinantzazioaren sektore zabalagoan sartzen dira mikrokredituak, pobrezian dauden kolektiboak zuzendutako produktu gehiagorekin batera.

Alternatibak ez dira horretara mugatzen ordea. Askotan informazio- eta komunikazio-teknologiak eskaintzen dituzten aukerak oinarritzat hartuta aipatzeko moduko ekimenak sortzen dira. Mundu-mailan hedatzen ari den *sharing* erako truke-aukerak aipatu ditzakegu, esate baterako. Trukatzen dena merkatu

ekonomia batean dauden objektu fisikoak izan daitezke (autoak dira adibide argi bat), edo eduki intelektualak nahiz dirua trukatu daitezke. Diruaren kasuan, Goteo ekimena aipatu behar dugu: finantzazio banaturako sare soziala<sup>29</sup>.

29 Informazio gehiago:

<http://www.youcoop.org/goteo>.

Ildo horri jarraiki sortutako *crowdfunding*-ekimenak ere asko ugaritu dira Interneten. Gero eta gehiago jotzen da «jendetza»-rengana zuzendutako eskaeretera, dirua biltzeko helburuz. Dagokion kausarako ekarpenak egiteko «maila» desberdinak egoten dira aukeran, normalean. Dirua jarri nahi duen edozein erakunde edo pertsonari finantzazioan laguntzeko aukera izaten da helburua, eta ekarpenak Internet bidez egiteko aukera eskaintzen da. Eduki sozial handiko proiektuak finantzatzen (edo laguntzen) dira horrela. Wikipedia dugu eredu horren adibide bat.

30 Zentzu horretan oso interesgarria da Michel Bauwensek koordinatzen duen

<http://p2pfoundation.net/webgunea>.

*Peer-to-peer* ereduak eskaintzen dituzten aukerek eszenatoki berria osatzen dute. Eta P2P Economy<sup>30</sup> izena asmatu dute dagoeneko, eredu kapitalista tradizionalaz bestelakoak diren finantzazio-alternatiba horiek guztiak izendatzeko.

Finantza etikoaren esparrua oso zabala da, beraz, eta etengabe ari da aldatzen. Piramidearen oinarriko negozioek halako zerbitzuak erabili ohi dituzte eta beren jarduerak era askotakoak diren heinean, tradizionalaz bestelako finantza-zerbitzu alternatiboen aukera zabala behar dute.

#### 4.4.7. Piramidearen oinarritik laugarren sektoreari zuzendutako galderak

Frogatua gelditu denez, arrakasta izan duten piramidearen oinarriko negozio gehienak barne-hartzaileak zirenean eta negozioaren beraren balio-kateko kide zat hartzen zituzten piramidearen oinarriko kideak, eta ez erosletzat besterik gabe. Gainera, negozio horientzat beharrezkoa da hiru sektore tradizionalak –publikoa, soziala eta pribatua– biltzen dituzten ekosistemak sortzea, sektore bakoitzaren funtsezko ekarpenak aintzat hartuta. Sortutako ekosistemen bidez hitzarmenak eta estrategia komunak adostu dira sektore bakoitzeko eragileen artean. Piramidearen oinarriko negozioak abian jartzeko, arrakasta izateko eta inpaktu handiagoa izateko moduan haien eskalagarritasuna lortzeko hiru sektore

tradizionaletako eragileek parte hartu behar dute, garatutako negozioaren arrakasta bermatzeko, gatazkarik sortuko ez duten helburu komun argiak finkatuta.

Piramidearen oinarrian sortutako ekosistemei esker, lausotu egiten dira sektore bakoitzeko eragileen gaitasun eta betebeharren mugak, eta lehen lantzen ez zituzten beste sektore batzuetan jarduten hasten dira. Era berean, ekosistema horiek sortzeko sareak inoiz baino indartsuago eta zabalagoak dira, eta ordura arte erakutsi gabeko gardentasuna izaten dute.

Lan-epeak luzeak direnez, epe luzerako errentagarritasun ekonomikoa bilatzen duten baina, aldi berean, errentagarritasun soziala eta ekologikoa nahi duten kapitalak bilatu behar dira. Tesi horixe berresten dute finantza etikoen ekimen desberdinek ez ezik, ikuspegi hori duten arrisku-kapitaleko funts sortu berriek ere. Gainerako diru- eta banku-erakundeek nola eboluzionatzen duten eta inbertsioak zer-nolako gardentasunez egiten dituzten ikusi arte itxaron beharko dugu joera honen martxa ebaluatu eta laugarren sektoreko proiektuak finantzatzeko metodoak aurkitu arte.

Piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaile hauek laugarren sektorearen barruan kokatzen dira, eta enpresa pribatuak nazioartera zabaltzeko estilo berria taxutzen dute, helburu ekonomiko eta sozialak eta ingurumenari lotutako helburuak izanik, eragileen artean harreman berriak eratuz eta munduko talde pobrenei aurrera egiten laguntzeko soluzioak eskainiz. Baina, horrekin batera, aukera ematen du gure inguruko enpresa sozialek nazioartera zabaltzeko erabakiak modu konprometituagoan egin dezaten, beren balio, esperientzia eta ezagutzak nazioartean zabalduz.

#### **4.5. Bidezko merkataritza**

Ingurumena babestuz eta irizpide sozialak zainduz lan egiten duten enpresen artean, batzuek 50 urtetik gora daramate konpromiso horrekin. Lankidetzaren inguruan zebiltzan pertsonak bultzatu zituzten hasiera batean, eta urterik urte beren filosofiari eustea eta zuten inpaktua handitzea jakin dute, beraiek jarduten duten bi arloetan nagusiki. Batetik, ekoizleei dagokienez, merkaturatutako

produktuen aukera eta bolumena handitu dituzte. Bestetik, kontsumitzaileei dagokienez, pixkanaka handituz joan den kontsumo egonkorrean eragin dute eta sentsibilizazio-lana egin dute.

#### 4.5.1. Eboluzio historikoa eta definizioa

Bidezko merkataritza merkataritza tradizionalaren alternatiba da eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko lankidetzan eta haien artean eratzen den itun sozialean oinarritzen da. Piramidearen oinarriko negozio barne-hartzaileen kasuan ez bezala, bidezko merkataritzako kontsumitzaileak ahalmen ekonomiko handiagoa duten eta produktuak inportatu, banatu eta jendeari saltzeko egitura ekonomikoak dituzten herrialdeetan bizi ohi dira. Kasu horietan, beren marjinak murrizteko prest egoten dira inportatzaileak, ekoizlearen mesedetan.

Mugimendu hau Holandan sortu zen 1960ko hamarkadan, Hegoaldeko herrialdeetan garapen-proiektuak garatzen ari ziren antolakunde batzuk irabazi-asmorik gabeko inportazio-ekimenak abian jartzearekin batera. 1964an, NBEren Merkataritzari eta Garapenari buruzko Konferentziak herrialde pobreei zuzendutako laguntza ez ekonomikoa bultzatzea eta, horren ordez, eros-ahalmen handiko herrialdeetako merkatuak herrialde haietako produktuetara zabaltzea erabaki zen.

Urte berean Intermón Oxfam sortu zen Belgikan. Bidezko merkataritzako munduko lehen antolakundea izan zen eta pixkanaka beste antolakunde asko sortzen joango zen. Handik gutxira bidezko merkataritzako lehen denda ireki zuten Holandan, gizartea kontsumoaren bidez aktiboki kontzientziatu eta sentsibilizatzeko lanari ekinez. 1967an, herrialde pobretu askotako artisauproduktuak inportatzen hasi ziren, katalogoko salmenta-sistema baten bidez.

1973an, lehen elikagaiaren inportazioa hasi zen: kafea zen elikagai hori. Bidezko merkataritzako kafe hori Guatemalanekoitzia zen «Indio Solidarity Coffee» markarekin. Ordura arte hutsaren parekoa zen merkataritza hori nazioarteko merkataritzaren aldean, baina gero eta pisu eta garrantzi handiagoa hartzen hasi zen. Era honetako merkataritza hedatzearekin eta arauak areagotzearekin

batera hobetu egin zen produktuen kalitatea, eta estandar haiek beste produktu batzuetara hedatu ziren.

Espainian, 1986an hasi zen bidezko merkataritza, orduan irekin baitziren bidezko merkataritzako lehenbiziko bi dendak. Emaús Gizarte Fundazioa izan zen aitzindaria EAEn, eta Sandino kooperatiba (IDEAS gaur egun) Andaluzian. Europa baino bi hamarkada beranduago hasi izanak eragina izan zuen bidezko merkataritzak Espainian duen atzerapenean.

Bidezko merkataritzako nazioarteko antolakundeek (FLO, IFAT, NEWS, EFTA)<sup>31</sup> nazioarteko FINE sarean bilduta, merkataritza-eredu horren definizio hau adostu zuten 2001n.

*Bidezko merkataritza hauxe da: merkataritzako elkarte bat, elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritua, nazioarteko merkataritzan zuzentasun edo ekitate handiagoa lortu nahi duena Garapen iraunkorra lortzen laguntzen du, merkataritzako baldintza hobek eskainiz eta ekoizle nahiz langile baztertuen eskubideak bermatuz, Hegoaldean bereziki. Bidezko merkataritzako erakundeak, kontsumitzaileen laguntzarekin, nazioarteko ohiko merkataritzaren arauak eta jardunbideak aldatzeko, ekoizleei lagundu, sentsibilizazioa landu eta kanpainak antolatzen dituzte.*

Hauek dira bidezko merkataritza bultzatzen duten irizpide nagusiak:

- *Soldata eta lan-baldintza duinak* Hegoaldeko ekoizleentzat. Hauek funtzionamendu demokratikoko elkarte, kooperatiba eta taldeetan antolatzen dira.
- *Pertsonen oinarritzko eskubideen babesa.*
- *Berdintasun* emakume eta gizonen artean.
- *Ekoizle-taldeek* komunitate osoaren *garapena* bultzatu behar du.
- *Haur-esplotaziorik ez.*
- *Kalitatezko produktuak* egitea, *ingurumena* kaltetzen ez duten jardunbideak erabiliz.

<sup>31</sup> EFTA (Merkataritza Alternatiboaren Europako Federazioa) bederatz herraldeetako hamaika erosketazentralek osatzen dute eta 550 inguru ekoizletalderekin egiten du lan. NEWS, berriz, Europako bidezko merkataritzako dendak biltzen dituen koordinakundea da eta bere baitan ordezkatuta dauden herrialdeetako denda-taldeak antolatzen ditu bidezko merkataritzako mugimendua gisa indarra bildu eta Europa-mailan presio politikoa egiteko. IFATEk (Merkataritza Alternatiboaren Nazioarteko Federazioa) mundu osoko berrogei herrialde ordezkatzen ditu eta ekoizleak eta inportatzaileak koordinatzeaz eta eztabaidarako gune bat eskaintzeaz arduratzen da. FLO: bidezko merkataritzako produktuentzako nazioarteko bermezigilua.

#### 4.5.2. Bidezko merkataritzako ziurtagiriak

Bidezko merkataritzako eragile guztiak beren produktuak ziurtatzearen alde ez badaude ere, ziurtagirien bidez produktuak bidezko merkataritzaren oinarrizko irizpideak errespetatuz ekoitziak direla frogatzeko beharrezko informazioa eskaintzen zaie kontsumitzaileei.

Gaur egun bi berme-sistema daude nazioartean, eta, horrekin batera, bidezko merkataritzan diharduten antolakundeek beren produktuen errespetagarritasun eta gardentasuna frogatzeko prozedura ugari dituzte.

#### FLO zigilua

1998an, «Solidaridad» izeneko bidezko merkataritzako antolakundeak bultzada nabarmena eman zion bidezko merkataritzari, beren zigilua zeramaten produktuek lan-baldintzei eta baldintza ekologikoei zegozkien betekizunak betetzen zituztela bermatzean. Zigilua kaferako erabili zen lehenik eta behin, eta beste produktuetara hedatzen joan zen. Zigilu haren atzetik beste zigilu batzuk etorri ziren, harik eta, 2002an, bidezko merkataritzako produktuetarako zigiluen nazioarteko erakundeak FLO-FAIRTRADE zigilua aurkeztu zuen arte. Gaur egun horixe da erabiltzen den zigilua.



FAIRTRADE zigiluari esker, kontsumitzaileek supermerkatu tradizionaletan eros ditzakete bidezko merkataritzako produktuak, baldintza kontrolatu batzuk beteaz ekoitziak izan direneko bermearekin (zigiluak produktua bermatzen du bakarrik, ez haren merkaturatzea). Gaur egun, FAIRTRADE zigilua 19 produktukategoriatarako erabiltzen da: kafea, tea, azukrea, kakaoa, fruta freskoa, bananak, fruitu lehorrak, fruitu lehortuak, arrosa, soja, eltzekariak, ezti, ardoa, fruta-zukuak, kinoa, espeziak, loreak, kotoia eta futbol-baloiak.

Oso garrantzitsua da nabarmentzea FLO zigilua produktuei ematen zaiela bakar-bakarrik, gero produktu haiek merkaturatzen dituzten enpresa eta antolakundeei buruzko inolako baloraziorik egin gabe. Horrela ulertzen da multinazional handiak bidezko merkataritzako zigilua duten produktuak merkaturatu ahal izatea,

nahiz eta beste alor batzuetan dituzten jardunbideak bidezko merkataritzaren filosofiarekin bat ez etorri.

Gorago esan dugunez, antolakunde guztiak ere ez datoz bat FLO ziurtagiriarekin. Estatu-mailan diharduten erakundeek zigiluaren alde eta aurka emandako arrazoiak laburbildu ditugu ondorengo koadroan.

FLO zigiluaren alde	FLO zigiluaren aurka
Konfiantza- eta sinesgarritasun-irudia ematen zaie kontsumitzaileei	FLO zigiluak ez ditu aintzat hartzen bidezko merkataritzako katean parte hartzen duten beste eragile batzuk
Gehiago ezagutzen dira bidezko merkataritzako produktuak	FLO zigilua marketin-tresna hutsa izatera mugatzen da
Merkataritza-kateko eragile gehiagok parte hartzea lortzen da	Ziurtagiria lortzeak kostu handiak ditu, eta finantza-ahalmen nahikorik ez duten ekoizle txikiek ezin diote horri aurre egin
	FLO zigilua ez izan arren, bidezko merkataritzakoak diren beste produktu batzuk diskriminatzen dira

**Iturria: Emaús Gizarte Fundazioa eta Setem (2008).**

**Antolakunde sozialentzako gida, bidezko merkataritzako lanari buruz**

### IFAT marka

FLOk produktuak ziurtatzen duela esan dugu. IFATek, berriz, prozesuak ziurtatzen ditu eta bidezko merkataritzaren gaineko ikuspegi holistikoa bultzatzen du horrela. Sistemak hiru fase biltzen ditu:

1. Autoebaluazio-fasea: bidezko merkataritzako antolakunde bakoitzak bere jokamoldea aztertzen du.
2. Bazkideen arteko informazio-trukea, bi norabideetan (erosleengandik saltzaileengana eta alderantziz).
3. Kanpo-egiaztapena, antolakunde independenteen eta gobernuz kanpoko antolakundeen aldetik.



### Beste sistema batzuk


Produktuak bidezko merkataritzakoak direla bermatzeko gorago aipatu ditugunez bestelako bide bat sortu da berriki: **Berme Sistema Parte-hartzailea (BSP)**. Sinesgarritasuna sortzeko tresna hauek bidezko merkataritzaren filosofiaren baitan errotuta daude eta ekoizle-talde batek edo erakunde batek ekoizpen- eta merkaturatze-baldintza bidezko eta solidarioak errespetatzen ote diren ongien bermatu dezaketenak haien ingurune sozial eta ekonomikoa direneko printzipioan oinarritzen dira. Alegia, zein hobeto ekoizleak eta haien inguruko merkaturatze-erakundeak baina erakunde horiek bidezko merkataritzaren funtzionamenduaren arabera jarduten dutela ebaluatzeko?

#### 4.5.3. Bidezko merkataritza Espainian eta EAEn. Zenbakiak

Bidezko merkataritza haziz joan da urtetik urtera. Espainiako Estatuko Bidezko Merkataritzaren Koordinadoraren 2009ko datuak erabiliz Setemek egindako txostenaren arabera, 2007an 17 milioi euro inguruko salmentetara iritsi zen bidezko merkataritza. Urte horretan iritsi zen salmenta-kopururik handienara, krisi ekonomikoaren ondorioz.

Salmenta-bolumen horretatik, EAEk salmenta guztien %8 besterik ez du hartzen. Kopuru hori askoz txikiagoa da Kataluniakoa eta Madrilgo Erkidegokoa baina, biek ere %20tik gorako puska hartzen baitute.



**17. irudia. EAEko salmenta-kopurua, urtearen arabera**

Iturria: *El comercio justo en España 2009, Setem-Cej*

Azken txosten horretako datuen arabera, 2008ko salmentak honela banatu ziren: elikagaiak %55,9, artisautza %36,4 eta gainerako produktuak %7,8. Gehien saltzen diren produktuak kafea eta kakaoa dira, besteak beste. Bidezko merkataritzako kafea ohikoa bihurtu da gure etxeetan ez ezik, kalean ere, bulego askotan ikusten ditugun bidezko merkataritzako kafe-makinek erakusten dutenez.

Bidezko merkataritza elikagaien sektorea aldatzen ari da, baina ez kafearekin, kakaoarekin eta azukrearekin bakarrik, oihalgintzan ere urrats handiak eman dira eta. Azken urteotako zenbait ekimen dira horren lekuko, izan ere, bidezko merkataritzaren irizpideen araberako moda-bildumak aurkeztu dira eta SETEM-ek bultzatutako Ropa Limpia [arropa garbia] kanpainaren bidez urrats gehiago ematera bultzatzen ari dira oihalgintza-sektorea. Beren diseinuetan bidezko merkataritzako arropa berriak sustatzen ari diren pertsona eta diseinatzaileez gain, azken aldian beren bilduma osoa bidezko merkataritzako irizpideak errespetatuz kaleratu dituzte zenbait enpresak, Intrépida Muk esate baterako.

**4.5.4. Etorkizunera begira EAetik**

FAIR TRADE zigilua bidezko merkataritzako eragileak koordinatzeko lehen esperientzia bat izan zen. Ekoizleak eta

kontsumitzaileak bildu zituen mugimenduak are hedadura handiagoa hartu zezan eta lotura gehiago sortu daitezen bidezko merkataritzako eragile guztien artean. Hori dela eta, harreman eta lotura horiek sustatzeko irudi berriak bultzatzen ari dira. Ekimen horien artean daude Merkataritza Alternatiboaren Nazioarteko Federazioa (IFAT ingelesezko siglan), Fair Trade Resource Network eta European FairTrade Association, esate baterako.

Espanian eta EAEn Espainiako Estatuko Bidezko Merkataritzaren Koordinadoraren (CECCJ gaztelaniazko siglan) inguruan koordinatzen dira bidezko merkataritzako antolakunde asko, eta bertan biltzen dira bidezko merkataritzari buruzko ikuspegi-desberdintasun eta joera ugariak. Setemek eta CECCJk prestatutako urtekariak honela dio:

*Ekoizpenari buruzko irizpideen batura hutsa izatera edo ekoizitako produktuak merkaturatzera mugatu beharrean, bidezko merkataritzak mugimendu heterogeneo, konplexu eta dinamikoa osatzen du eta era askotako eragileak biltzen ditu bere baitan, etengabeko joan-etorria osatuz Iparretik Hegora, baserritik saskira, nekazari eta artisauetatik kontsumitzaile eta herritar arduratsuengana.*

Egoera hori ikusita, normala da desberdintasunak aurkitzea bidezko merkataritza ulertzeko moduan, eta ikuspegi-ugaritasun horri zor zaio, hain zuzen ere, antolakunde hori egotea. Gure ingurune hurbilean, Europako herrialdeetan ez bezala, bidezko merkataritzaren mugimendua sortu zenean ez zegoen haren aldeko sentsibilitate berezirik edo haren izateko arrazoen gaineko ezaguera handirik (Martínez-Orozco,2000). Hori dela eta, mugimenduak ezaguera hori gizartean zabaltzeko erronkari erantzun behar dio. Hala, tokian tokiko antolakunde bakoitzak, ezaguera hori sustatzeko modu desberdina dauka. EAEn bidezko merkataritzan diharduten zortzi erakunde dauzkagu gutxienez: Mercadeco, Kidenda, Intermón, Setem, Cáritas, Medicus Mundi, Adsis-equimercado eta Emaús Gizarte Fundazioa.



## 5.

ELKARRIZKETA ETA AZTERTUTAKO KASUAK

### 5.1. Ohar metodologikoa


Laugarren sektoreari buruzko bibliografia aztertuz gero, argi gelditzen da kontzeptu berri samarra dela eta, ondorioz, ez dago hari buruzko hausnarketa teoriko askorik. Lan honetan esplorazioan eta deskribapenean oinarritutako teknikak uztartzea erabaki dugu, beraz. *Esplorazio-teknikak* erabiliko ditugu, honakoa atariko edo aurretiazko ikerketa berritzailea delako EAEn, adituei egindako elkarrizketetan eta antzeko beste kastu batzuen azterketan oinarritzen dena. *Deskribapen-teknikak*, berriz, laugarren sektorea zer den kontzeptualizatzen saiatu beharrean, hura definitu dezaketen ezaugarri komun batzuk identifikatzen saiatuko garelako.

Deskribapen-tekniken barruan, *sakoneko zehar-azterketa* (*ikerketa kualitatibo* gisa ere ezagutzen dena) da ikerketa-lan honen beharretara ongien erantzuten diona, gure aztergaiaren, laugarren sektorearen, argazkia eskaini nahi dugun heinean.

Hemen jasotako pertsona eta erakundeak gure ikerketa-taldeak antolatutako lan-saio ugarietako barne-eztabaidetan aukeratu ditugu. Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateko MIK Koop. Elk. ikerketa-zentroak osatzen dute ikerketa-taldea.

*Brainstorming*-teknikak erabiliz, *a priori* eta Aspen Institutuaren dokumentuko definizioaren arabera, laugarren sektorekoak lirakeen zenbait erakunde aipatu ziren. Lehen fase horren ondoren, eta erakundeetako asko hirugarren sektorean kokatu izan direla ikusita, ikertutako kasuak aukeratzeko garaian sektore publiko eta pribatuko erakundeetara jo genuen.

Elkarrizketatu beharreko adituak aukeratzeko ere prozedura bera jarraitu genuen, eta 23 pertsona proposatu genituen guztira. Horietako %82 elkarrizketatu ahal izan genuen azkenean.

**18. irudia. Laginaren osaera****Iturria: geuk osatua**

Lagina aukeratutakoan, eta aztertu nahi ditugun datuak objektiboki neurgarriak ez direla eta zenbakietan laburbildu ezin direla jakinik, elkarrizketa erdi-egituratuak egiteko bi gidoi prestatu genituen (elkarrizketetan erabilitako gidoietarako ikus 1. eta 2. eranskinak). Galdera irekikoak ziren elkarrizketak eta luzeak ziren (ordu erditik gorakoak). Aztertu beharreko adituei eta aipatutako ekimenetako sustatzaileei bidali genizkien gidoiak. Elkarrizketa horien bidez ez genituen erantzunak kuantifikatu nahi, aztergai genuen fenomenoak hobeto ulertu eta ideiak atera baizik.

Ikerketa honetan aztertu ditugun pertsona eta erakundeen izenak agertzen dira jarraian. Xehetasun gehiago 3. eta 4. eranskinetan.

### 19. irudia. Elkarrizketatuen zerrenda (hurrenkera alfabetikoan)

Izena	Antolakundea	Ezagutza-eremua
Alfonso Carlos Morales	ETEA	Ekonomia soziala
Daniel Bianchi	ESOP Chicago	Nazioarteko kooperatibismoa
Edgar Barki	Getulio Vargas Fundazioa	Brasilgo Piramidearen Oinarria
Fernando Fantova	Eusko Jaurlaritzza	Gizarte-zerbitzuak
Iñigo Blanco	Ashoka Changemakers	Berrikuntza soziala
Jose M <sup>o</sup> Guibert	Deustuko Unibertsitatea	Etika eta erantzukizun soziala Berrikuntza
Juan Rosas	Bankinter Fundazioa	Berrikuntza
Karlos Askunze	REAS eta Gizatea	Ekonomia solidarioa
María Calvo	Ashoka	Berrikuntza soziala
Miguel Nonay	Viajeros sin límite	Ekintzaile soziala
Nazrul I Chowdhury	Grammeen Bank/ ICO	Mikrokredituak
Pablo Sánchez	Pompeu Fabra Unibertsitatea	Espainiako Piramidearen Oinarria
Pablo Villoch	Glocalminds	Hego Afrikako Piramidearen Oinarria
Patricia Sáez	Universidad Oberta –UOC-	Ekintzailetza soziala
Peru Sasia	Fiare	Ekonomia solidarioa
Rafa López de Aróstegui	EDE Fundazioa	Hirugarren sektorea
Txema Franco	Lantegi Batuak	Ezgaitasuna eta enplegua
Zahid Torres	Inspiris	Hego Afrikako Piramidearen Oinarria

**Iturria: geuk osatua**

20. irudia. Aztertutako erakundeen zerrenda  
(hurrenkera alfabetikoan)

		
	 <p>Gizarte Berria Eraikitzen Nuevo Estilo de Relaciones</p>	
		
		
		
		



## 5.2. Adituei egindako elkarrizketen ondorioak

19. irudian zehazten diren adituen hainbat elkarrizketa egin eta gero atera ditugun ondorioak jaso ditugu kapitulu honetan (elkarrizketetan erabilitako gidioa 1. eranskinean aurkituko duzue). Ikuspegi eta ikusmolde desberdinak jaso ditugu, adinaren, herrialdearen, lan-esperientziaren eta lanbidearena arabera. Entzun dugunaren arabera, ikusi dugu *laugarren sektorea* kontzeptuak, orain duen egoera nolabait ere gainditu nahi duen beste edozein kontzeptuk bezalaxe, denbora behar du onartua izan eta adostasuna lortzeko. Gaur egun, oso zaila izaten da muga argi batzuk finkatzea kontzeptu horri buruz aritzen garenean. Esparru sortu berria da eta oraintxe ari da azaleratzen; beraz, ez da adiera bakarreko erabilera orokortua duen kontzeptua.

Laugarren sektoreaz hitz egitea gauza berri-berria da aztertu ditugun erakunde eta pertsona askorentzat. Hala ere, elkarrizketa batzuetan onartzen dute sektore tradizionaletatik datozen jarduerak biltzen dituen esparru hibrido eta zeharkakoa sortzen ari dela. Hori guztia kontuan hartuta, mugan zeharreko esparru porotsu gisa definitu dezakegu, eta gizartearen aurrean agertu eta haren parte izan nahi duten erakundeen jokabidea markatu dezake.

Kasu gehienetan ere, adituen diotenez, unean uneko errealitatea ziztu bizian aldatzen da eta erakunde berriek arazo berriei erantzun behar diete, hiru sektoreetako bakar batek bere kasa egiterik ez daukan moduan.

Aditu bakoitzaren profil, adin eta ogibidea desberdina bada ere, entzun dugun guztia biltzen duen esparru komuna aurkezten saiatuko gara. Horretarako, dagoeneko laugarren sektoreak hitz egiteko garaia dela uste duten adituen ideiak azalduz hasiko gara. Horren aurka daudenen edo ikuspegi kritikoa dutenen iritzia jasoko ditugu gero eta, azkenik, aurre guztitik ateratzen diren zenbait muga aipatuko ditugu.

### 5.2.1. Laugarren sektorea, dagoeneko baden errealitate gisa

Elkarrizketatu ditugun adituetako batzuen iritziz laugarren sektorea errealitatea da dagoeneko. Ñabardurak ñabardura,

iruditzen zaie, gizarte-egituran gertatzen ari diren aldaketak, ekonomiaren globalizazio gero eta handiagoa eta irabazi ekonomikoan gehiegi zentratzen diren enpresa-ereduentzako alternatiben premia bizia ikusita, justifikatuta dago laugarren sektore batez hitz egitea dagoeneko.

Termino berria izan arren, laugarren sektore berri honen ezaugarri eta jardunbide egoki batzuk aipatzen dituzte:

- *Espazio hibrido eta irekia dela.* Hiru sektore tradizionalak bat egin eta, beraz, hiru sektore klasikoek arteko mugak ezabatzen direneko espazio hibrido gisa aurkezten dute laugarren sektoreaz Esparru horiek orain artekoak baino malguagoak, irekiagoak eta porotsuagoak dira, funtsean. Era berean, pertsonak eta ingurumena gehiago errespetatzen duten eta humanoagoak diren eredu sozioekonomikoak bilatzeko garaian, pertsona nahiz erakundeei elkarrekin jarduteko, lankidetzan aritzeko eta elkarlana garatzeko aukera ematen dien esparru irekia osatzen du laugarren sektoreak haien iritziz. Elkarrizketatutako batzuek, xede soziala duten negozioak sortzeko benetako aukerak daudeneko ideia sendotu beharra azpimarratzen dute, adibidez. Beste batzuen iritziz, mugarik gabeko ekosistema bat da, hau da, zedarritu gabeko zerbaiten oinarritzen da eta, haien iritziz, garrantzitsua da adierarik zabalenean xede sozial eta ekonomikoak dituzten erakunde berriak sortzea. Eragileen arteko lankidetzarako esparru soiltzat hartzen dute laugarren sektorea zenbaitek, eta beste batzuen iritziz esparru bat sortu beharra dago (gaur egun ez dagoena) baliabideak bateratu, euskarri juridikoak eskaini eta lankidetzaz-moldeetan aurreratzeko.
- *Bertan dihardutenen parte-hartzea eta egitura horizontalagoak.* Laugarren sektoreko antolakuntza-egiturak horizontalagoak direla azpimarratu duten zenbait adituk. Bertan lan egiten dutenek erakundearen emaitzetan duten parte-hartze eta inplikazioa ere batek baino gehiagok nabarmendu dute. Azaldu digutenez, jarduera ekonomikoak egiteko esparru humanoagoa eskaintzen die erakundeei laugarren sektoreak. «Enpresa-munduari lotutako lan-ereduekin gizarteko arazoak erakunde bidez konpontzeko jardunbide berri»

- gisa definitu dute sektore hori.
- *Ekintzailletza sozialarekiko erlazioa eta ekintzaileen betekizun garrantzitsua.* Elkarrizketatutako batzuen iritziz, laugarren sektorea osatzen duten erakundeen adibide eta jardunbide egokien zati handi bat ekintzaile sozialek bultzatutako ekimenetatik datoz. Bai duela hamarkadak martxan dauden proiektuen kasuan, bai azken urteotan sortu diren proiektuen kasuan, xede sozial batekin jarduten duten ekintzaileek —bai dagoeneko lanean diharduten erakundeen barruan, bai erakunde berriak sortuz— erakunde-mota berri bat eratzen bukatzen dutela ikusi da. Ekintzaile horien betekizuna oso garrantzitsua da gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko.
  - *Gardentasuna.* Gardentasuna behin eta berriro aipatu da gure garaiko gizartearen erronka handien artean, eta, ildo horretan, laugarren sektorea erantzun egokia litzateke hemen. Gardentasuna nonahi eskatzen da gaur egun, bai erakundeen barruan, bai gizarte osoan. Herritarrek jakin nahi dute erakundeek zer egiten dute eta haien jarduerak zer nolako ondorioak dituzten ingurumenean, zein beste alor batzuetan. Gardentasuna emaitza ekonomikoetan aplikatu beharko litzateke, halaber, eta dirua zertarako erabiltzen den azaldu beharko litzateke. Nafarroako Aurrezki Kutzaren kasua eta banku etikoei lotutako mugimendu berriak aipatu dira herritarrekin hartu-emanen jarduteko esparru berriak bilatzen ari den sektore tradizional baten adibide gisa.
  - *Pertsona konprometituak.* Elkarrizketatuetako askok nabarmendu dutenez, gauzak egiteko beste eredu batzuekin konprometituta egonik, gauzak aldatzeko gogo bizia duten pertsonak bultzatzen dute laugarren sektorearen sorrera. Aurreko idazpuruan aipatu ditugun ekintzaile sozialekin du zerikusia horrek, baina kasu honetan, indarrean dauden eredu nagusien alternatibak aurkezteko mugimendu batean elkartzen diren gizarteko talde handiagoez ari dira. Laugarren sektorea esparru korala da, eta beren kontzientzia soziala erakunde-mota berri honen bidez garatzen duten pertsonen arteko lidergo partekatu sendoa nabarmentzen da bertan.
  - *Gizarteari, ekonomiari eta ingurumenari lotutako xedeak.*

Elkarrizketatutakoak bat etorri dira irabazi ekonomikoak, gizartearen gaineko inpaktua eta ingurumenaren zaintza orekatu beharra azpimarratzeko garaian. Laugarren sektoreko erakundeen estrategien funtsezko ezaugarria da oreka hori. Irabazi sozial eta ekonomikoen arteko harmoniarekin batera, inguratzen gaituen ingurumenarekin harmonian bizitzea ahalbidetuko diguten jardunbide egokiak aplikatu behar dira ingurumenean. Joan den mendeko garapen ekonomikoari buruzko iritzi kritikoa azaldu dute adituek, gure planetako natur baliabideetan eragindako hondamen nabarmenaren ondorioz. Hori ikusita, garapen jasangarrian oinarritutako eredu baten alde egin beharko luke laugarren sektoreak.

- *Ilusioa pizten duten proiektu erakargarriak.* Zenbait elkarrizketatuk adierazi dutenez, ilusioa pizten duten proiektuen bidez talentua erakartzea da laugarren sektorearen giltzarrietako bat. Garatzen dituzten proiektuekin identifikatuta sentitu behar dute pertsonak, inoiz baino gehiago, eta horrek gizartean errotuago egotea dakarkie erakundeeri ordainetan. Aldaketa hori lortzeko esparru berriak sortu behar dira: jendeak eroso sentitu behar du bertan eta gustura lan egin behar du, bere asmoak betetzeko aukera izanik. Elkarrizketatu gazteen artean bereziki oso garrantzitsua da ezaugarri hori. Egiten duten horretan benetan sinesten duten, ondo pasatzen duten eta beren burutik eta gizarte osotik onena ateratzen duten pertsona-taldeak osatzea funtsezkoa da haientzat.
- *Lokala eta globala.* Laugarren sektoreak ikuspegi globala dauka bere jarduerak bultzatzeko garaian (helburu unibertsalak dituzte sektore honetako erakundeek), baina ikuspegi lokala aplikatzen dute jarduera horietan. Gaur egun esparru komun batean bizi gara. Mugak eta distantziak desagertu egin dira eta, aldi berean, gure txokokoak harrotasunez betetzen gaitu. Halere, dakigunez, planetako mutur batean egiten denak zuzeneko nahiz zeharkako eragina izan dezake handik milaka kilometrora. *Globalitatea* da laugarren sektoreak bere jarduereri heltzeko duen modua izendatzen duen terminoa.
- *Internet eta web soziala.* Laugarren sektoreak Internet erabili

behar duela (bereziki web soziala) azpimarratu duten zenbait elkarrizketatuk, gazteenek eta teknologia berriak gehien erabiltzen dituztenek gehienbat. Informazioaren eta teknologien gizartean bizi gara eta, hortaz, laugarren sektoreko edozein proiektuentzat esparru naturala izan beharko luke Internetek. Web sozialaren bidez komunikaziorako eta elkarrizketarako kanal indartsu bezain merkea garatu daiteke. Sare sozialen formatu berriekin era askotako proiektuak sortu daitezke, eta gero testu, bideo, *podcast* eta argazki digitzalez osatutako formatu aberatsetan zabaldu daitezke. Internetek proiektuei eskaintzen dizkien aukerak ez genituzke alde batera utzi beharko. Elkarrizketatutako batzuek adimen kolektiboa, berrikuntza irekia, *crowdsourcing* eta *crowdfundinga* aipatu dituzte Internetek eskaintzen dituen tresnen artean. Blog, twitter eta facebook bidezko komunikazioa milioika lagunengana iristen da gaur egun. Tresna horiek guztiak erabilgarriak zaizkigu laugarren sektoreko proiektuak bultzatu eta sendotzeko.

- *Sarean lan egitea eta lankidetzan jardutea.* Gaur egun, gero eta gehiago dira sarean lan egin, lankidetzan jardun eta gauzak sortzen dituzten pertsona eta erakundeak. Horregatik, laugarren sektoreko erakundeek beren betiko egiturak zabaldu eta aukera eman beharko lukete sektore tradizionaletako erakundeen muga tradizionaletatik haratago jotzeko. Munduko leku desberdinetako pertsonen arteko lankidetzaren kostuak izugarri murriztu dira. Hori ikusita, lankidetzan oinarritutako lana berezko ezaugarritzat duen esparrua bihurtu beharko luke laugarren sektoreak.
- *Lidergo partekatua.* Laugarren sektorearen sorrera eta garapena lidergoa gauzatzeko molde berriekin lotu dute elkarrizketatutako batzuek. Gaur egungo liderrak ez dira lehen bezain karismatiko eta indibidualak, partekatu eta banatuagoak baizik (ekintzaile sozialek funtsezko betekizuna ahaztu gabe, noski). Zenbait erakundek, bestalde, jarduteko eredu berria bultzatu duten entzute handiko liderrak dituzte, gainera. Dena den, taldean diharduten pertsona konprometituen indarra da aldaketa dakarrena. Gure

garaiaren ezaugarri bihurtu den paradoxa bat antzematen da: Indibidualismoa balio partekatuetan oinarritutako ekintza kolektiboaren indarrarekin batera.

### 5.2.2. Laugarren sektoreari buruzko ikuspegi kritikoa

Aurreko puntuan jasotako iritz eta erantzunez gain, elkarrizketatutako batzuen iritziz ez da egia laugarren sektore bat sortzen ari denik, eta, hortaz, ez zaie egokia iruditzen izendapen hori erabiltzea. Iritzi hori dutenetako batzuen iritziz, «negozio sozialak» eta «negozio barne-hartzaileak» terminoek jasotzen dute balizko laugarren sektore hori dagoeneko. Gainera, terminologia berriak eta berezko lege-esparrurik ez izateak egungo egoera argitu baino areago nahasi dezakeela uste dute batzuek.

Sektore berririk sortzen ari ez dela pentsatzen badute ere, sektore tradizionalen artean hartu-eman handiagoa behar duenik ere bada multzo honetan. Horretarako, sektore horien arteko harremanen kalitate eta kopurua handitu beharko litzateke haien ustez, arazo sozioekonomiko berrientzako konponbideak bilatzeko. Hiru sektore tradizionalen arteko lotura handiagoa gorabehera, ez zaie iruditzen, gauzak gaur egun dauden bezala, laugarren sektore bat sortzen ari denik. Sektore berri batek okerrerako ikuspegia eta mugak eta oztopoak ekarri ditzakeela uste dute.

*Laugarren sektorea* izendapena sortzearen alde ez daudenen iritziz esparru anbiguo, nahasi eta lausoegia da hori. Beste batzuek nahiago dute egungo kontzeptuak eguneratzea, baina beren jatorriaren ezaugarriak galdu gabe. Ekonomia sozialak, adibidez, bere bidea egina dauka eta nahikoa ezaugarri berezile ditu termino berri bat asmatzen ibili behar izan gabe. Termino berri horrek irabazi ekonomikoak (kostu apalekin) herritarren gehiengoari onargarria zaio irudi sozial batekin uztartuta lortzeko beharrari erantzuten diola eman lezake. Hori guztia kontutan hartuta, ez dute uste laugarren sektoreak aurretik dauden hiru sektore tradizionalak osatzen edo gainditzen duen esparrua osatzen duenik gaur egun.

Gauzak horrela, hiru sektore tradizionalak esparru biziak direla eta pentsatzen dute batzuek, eta normala dela hartu-

emanak izatea haien artean, denek elkar aberasteko moduan, baina laugarren sektorerik osatu gabe. Ez diote zentzu handirik ikusten beren bidea egina duten eta ondo identifikatuta dauden kontzeptuak izendatzeko termino berriak asmatzeari. Era berean, ez zaie iruditzen dinamika interesgarriagoak laugarren sektore horren balizko forma juridiko berri batera egokitu behar direnik. Pertsona hauen iritziz, laugarren sektore bat ez da beste sektore bat eta ez da beharrezkoa inongo erakunderen izendapena aldatzea esparru berri baten baitan. Aitzitik, ekonomia solidarioko erakundeek, boluntarioez osatutako erakundeek, sektore publikoak eta zenbait enpresa pribatuk, erlazionatzeko bestelako eredu batean oinarrituta, proiektu eta politika berriak abian jartzen dituzteneko esparrua izango litzateke sektore *berri* hori.

Interpretazio horiei jaramon eginez gero, terminoak muga batzuk dituela ikusten dugu. Ikuspegi horretatik arrazoi garbiak ematen dira: badaude izen egoki askoak, hala nola, *negozio sozialak*, *negozio barne-hartzaileak*, *ekonomia soziala* eta *ekonomia solidarioa*.

Halere, pertsona hauek onartzen dute negozioak egiteko modua aldatzen ari dela. Kosta ahala kosta eta bakar-bakarrik irabazi ekonomikoa bilatzen ez duen eredu berria aurkitzean datza aldaketa, elkarrizketatu ditugun aditu horientzat. Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko oreka ahalbidetzen duten esparruak sortu behar dira. Horrek ez luke sektore baten sorrera ekarriko, hiru sektore tradizionalak hartu-eman arinagoen bidez jardun ahal izango luketen ekosistema batzuk sortzea baizik.

Hortaz, sektore tradizionalak antolatu eta kudeatzeko jardunbide berriei *laugarren sektore* izena ematearen aurka daude batzuk. Azkeneko eta azkenaurreko puntuan jaso ditugun iritzia hobeto ulertzeko, beheko taula osatu dugu.

## 21. irudia: Adituek laugarren sektorearen agerpenari buruz emandako iritzien alderaketa

Laugarren sektorerik ez dagoela baieztatzeko aipatzen diren ezaugarriak	Laugarren sektorea agertzen ari dela baieztatzeko aipatzen diren ezaugarriak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Terminologia berriak lagundu baino nahasi egin dezake.</li> <li>- Gizartean onartuta dauden izendapenak daude laugarren sektorekoak litzatekeen jarduera askotarako.</li> <li>- Gaur egun ez dago sektore hori osatzen duten antolakundeei zuzendutako lege-esparrurik.</li> <li>- Ez dago sektore berririk, hiru sektore tradizionalen arteko lotura berriak eta lotura gehiago baizik.</li> <li>- Espazio lausoegia da.</li> <li>- Ez du berezko izaerarik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazio hibrido eta irekia da.</li> <li>- Lidergo partekatua.</li> <li>- Bertan lan egiten dutenen, interes-taldeen eta gizartearen parte-hartzea eta konpromisoa du era honetako antolakundeeekin.</li> <li>- Antolakuntza-egitura horizontalagoak.</li> <li>- Harreman estua ekintzaile sozialekin eta ekonomia sozialarekin, zentzurik zabalenean.</li> <li>- Ikuspegi globala: bai globala, bai lokala.</li> <li>- Pertsonak funtsezko erreferente gisa.</li> <li>- Gardentasuna jardueretan eta emaitzetan.</li> <li>- Sarean lan egiten dute eragile desberdinen artean.</li> <li>- Helburu sozialak, ekonomikoak eta ingurumen-arlokoak.</li> <li>- Ilusioa pizten duten proiektu erakargarriak.</li> <li>- Internet eta web sozialak erabiltzea.</li> </ul>

### Iturria: geuk osatua

#### 5.2.3. Laugarren sektorea kontzeptuaren inguruko mugak

Elkarrizketatutako adituen emandako ikuspegiak laburbilduz, ikusten dugu mugak daudela terminoa argitzeko garaian. Hona hemen muga horietako batzuk:

- *Terminologia eta etiketak.* Gure garaiko gizartean hain ohikoa den moduan, moda baten aurrean egon gintezke, etengabeko aldaketa itxura duena, baina azkenerako inolako fruiturik ematen ez duena. Horrela begiratuta, uneko hizkerako termino berri bat besterik ez litzateke *laugarren sektorea*, eta desagertu egin da jardunbide berriak sortu ahala hura zokoratuko duten beste termino berri batzuen eraginez. Batzuen ustez etiketa berriak sortzen ibiltzea kaltegarria gerta liteke beren jardueretarako, efektu erredukzionista eragiten



duelako haiengan.

- *Ego pertsonalak.* Laugarren sektorea garatzeko eta aurrerapausoak lortzeko aukera handia mugatuta gelditu liteke prozesua bereganatu nahi duten pertsonen egoen ondorioz (erakundeak ere aipatu beharko genituzke hemen, erakundeen «egoaz» hitz egiterik balego).
- *Lidergo-arazoak.* Kontzeptu berri bat garatzeko garaian, adibide adierazgarriak aipatu ohi dira, eta adibide horiek «lider» edo bide-erakusle gisa hartzen dira. Dena den, kasu hauek korapilatsuak izaten dira eta argi-ilunak izaten dituzte, eta hortaz ez dago hain garbi onuragarriak ote diren «eredu» gisa.
- *Enpresa-erakundeen irudi-garbiketa.* Elkarrizketatutako batzuek azpimarratu dute kontuz ibili beharra dagoela enpresek ez dezaten laugarren sektorea erabili beren irudia hobetzeko tresna gisa, elementu soziala beren salmentak eta bezero kopurua ugaritzeko aitzakiatzat hartuta. Gai delikatua da hori, gizartearen konfiantza gutxitu baitezake.
- *Muga fisiko eta tenporal oso lausoak.* Zenbait adituren iritziz muga garbiak ez izatea eragozpena izan daiteke. Ekosistema lauso hori nahasgarria izan daiteke jende askorentzat, eta sektore independentetzat hartua izatea galarazi dezake. Terminoaren berritasunak, antolatze molde berrien hedapenak eta horrek gizartean duen eraginak neurketak egitea eskatzen du, horren guztiaren emaitzak zenbaterainokoak diren ikusteko.
- *Sektore tradizionalak inbaditzeko eta desegituratzeko arriskua.* Beren «betiko» irabazi-helburuak lortzen jarraitzeko, laugarren sektoreko erakunde gisa mozorrotzen diren erakunde handien eraginez, hirugarren sektore tradizionala zokoratua geratzeko arriskua aipatu dute hainbatek.
- *Lege-esparrurik eza.* Laugarren sektorearen inguruan dagoen hutsune legal eta juridikoa nabarmendu duten zenbait adituk. Erakunde juridiko desberdinek eta nahasgarriak gertatzen diren antolakunde-ereduek bat egiten dute edo bat egin dezakete esparru honetan. Bestalde, lege-esparruak beraiek ere esparru berri honek eskatzen dituen hartu-emanetarako

oztopo burokratikoak bihurtzeko arriskua aipatu dute beste batzuek.

### 5.3. Aztertutako kasuei buruzko ondorioak

Aزتتutako kasuak (ikus 2. Eranskinean elkarrizketetan erabilitako gidoia eta 4. eranskinean kasu bakoitzaren laburpen zehatza) sakon berrikusi ondoren, hainbat ondorio eman dezakegu laugarren sektoreak EAEn egun duen egoerari buruz.

Horrekin batera, laburpen moduko irudi bat osatu dugu aztertutako enpresa bakoitzean laugarren sektoreko zein ezaugarri aurkitu dugun zehaztuz. Hori egitean ez dugu deskribapen zorrotzik egin nahi izan, aurrerago egiten diren ikerlariei tresna bat eskaini baizik, gairen bat sakondu nahi izanez gero zein erakunde jorratu beharko luketen identifikatzen laguntzeko, loratzen ari den ikerketa-ildo hau aberasten jarraitu ahal izan dezaten.

Lehenik eta behin, landa-ikerketa honi heldu aurretik pentsatzekoa zen ondorio bat: ez dago laugarren sektoreari lotutako izaera edo nortasun argirik. Alegia, elkarrizketatu ditugun erakundeak ez dira naturalki kokatzen esparru ekonomiko berri horretan, baina bai hiru sektore tradizionalak batean. Gainera, hirugarren sektorea da laugarren sektoreko ekimenik gehien garatzen duena, baina sektore pribatuan ere esparru horretako esperientzia interesgarriak aurkitu ditugu (enpresen erantzukizun sozialeko programetan bereziki). Dena den, esparru publikoan zailagoa izan zaigu laugarren sektorekotzat jotzen diren proiektuak aurkitzea. Ideia berri hauek guztiak errotzea nahi izanez gero nondik hasi beharko genukeen eta, ere berean, sektorea loratzeko etorkizun hurbilean hedapen-ahaleginik handienak non egin behar ditugun erakusten digu aurreko guztiak.

Aزتتutako ekimen guztietan bi ezaugarri errepikatzen dira behin eta berriro. Batetik, elkarrizketatutako erakunde guztien azken helburua osatzen duen xede soziala dugu. Xede horri lotutako esparruak asko eta asko dira: adinekoak, ezinduak, baliabide gutxiko edo arriskuan gelditzeko arriskuan dauden pertsonak, etab. Horiekin batera, beste kezka batzuk sortzen ari dira, hala nola, enpleagarritasuna, ekintzaitzat, kultura, hezkuntza, etab. Nolanahi ere, ez zaigu iruditzen kezka horiek direnik aurkitu

dugun gauzarik azpimarragarriena, eragile ugari aspaldi baitabil esparru horietan lanean. Benetan deigarria gertatzen dena ez da *zer* lantzen den, *nola* lantzen den baizik, hau da, xede soziala duten erakundeak garatzen ari diren metodo enpresarialak beren burua antolatzeko eta denboran irauteko helburuz.

Hala, berrikuntza soziala, negozio-eredua, plan estrategikoa, marketina, etab. ohiko terminoak bihurtu dira lehen guztiz debekatuta zeuden ingurune batzuetan. Dena den, eredu hibrido honetan osatzen zailak diren hutsune asko eta asko aurkitzen dugu oraindik. Adibidez, ekimenok erabiltzeko forma juridikoa daukagu. Xede soziala dutenez beren geneetan baina enpresamunduari lotutako espiritua beren jokamoldean, ez dira ondo egokitzen erakunde gisa eratzeko legeak aurreikusita dauzkan aukeretan. Egoera horren aurrean, soluzio konplexuak eskaintzen dira: bi erakunde edo gehiago eratzea aldi berean, bakoitza balantza sozial/enpresarialaren alde banatan eta biak koordinatzea, bipolaritasun hori kaotikoegia gertatu gabe, adibidez. Laugarren sektoreko ekimenak errazago egokitzeko aukera ematen duten forma juridiko berriak garatzeko ekimenak martxan jartzea aurrerapauso handia litzateke.

## 22. irudia. Laugarren sektorearen ezaugarriak, enpresaren arabera

	Xede Soziala	Enpresa-munduko metodoak	Jabetza barne-hartzalea	Stakeholderen gobernantza	Bidezko ordainsaria	txurazko itzulkinak	Erantzuk. soziala eta ingurumenekoal	Gardentasuna	Baliabide babestuenak
Emaus									
Flare									
EDE Fund.									
Matia Fund.									
Peñascal Fund.									
Garum Fund.									
GBE-NER									
Goiztiri									
Koopera									
Lan Ekintza									
Lant. Batuak									
Mundukide									
Olabide Ikas.									
SSI									
Sirimiri									
Sport Mundi									
Ulma									

Iturria: geuk osatua

Aztertutako ekimenetan behin eta berriro agertzen diren bi alderdi hauek dira: jabetza barne-hartzailea eta *stakeholderen* gobernantza. Lehenbizikoari dagokionez, zentzuzkoa iruditzen zaigu aztertutako erakunde askoren jabetza eta erabakimena erakundeko kide eta langileen esku egote. Kooperatibek EAEn duten presentzia handiari zor zaio hori, munduko kooperatibatalderik handienetako bat —Mondragon Taldea— gurean baitago. Izan ere, hemen azaldutako ekimenetako batzuek kooperatiben erregimen juridikoa dute eta beste batzuek erregimen hori ez izan arren, eredu horien eragin nabarmena dute. Era berean, aztertutako erakundetako batzuetan bidezko ordainketa bermatzeko prozedurak aurkitu ditugu.

Nolanahi ere, jabetza barne-hartzaileko irizpidea esparru ekonomiko eta juridikotik haratago iristen da, eta eragin handia dauka giza baliabideen motibazio eta jabekuntzan. Parte-hartze handiagoan oinarritutako egitura horizontalagoak izanik, pertsonen autonomia-maila ere handitu egiten da eta horrek haien konpromiso eta inplikazioa handiagoa eragiten du ondorioz. Horrek guztiak proaktibotasun handiagoa, ezagutza partekatzeko gaitasuna, berrikuntza, elkarren arteko ekintzailtza, etab. ekartzen digu, ondorioz. Era berean, eskuratu ditzaketen kanpotiko sariengatik beharrean langileen barnetik sortzen da motibazioa eta testuinguru horretan grina nagusitzen da lanean.

*Stakeholderen* gobernantza ere kontuan hartzeko osagaia da aztertu ditugun enpresa gehienetan. Erakunde hauek konpondu nahi dituzten arazo sozialak era askotakoak dira eta, hortaz, era askotako eragileak behar dira arazo horiek konpontzeko. Horri lotuta dago *stakeholderen* gobernantzaren irizpidea. Izan ere, soluzio edo konponbide batera iristeko *stakeholder* horiek aintzat hartu beharra baldin badago, soluzioak identifikatu, diseinatu eta garatzen hasten garen lehen unetik bertatik jo beharko dugu haiengana. Hala, erakunde hauek beste erakunde askorekin —GKEak, erakunde publikoak, erakunde erlijiosoak, enpresak, ikastetxeak, etab.— aritzen dira elkarren ondoan lanean. Ildo horretan, lankidetzarako testuinguruak sortzen eroso sentitzen diren erakunde irekiak dira, eta beste erakunde eta pertsona batzuk erakartzen dituzte, denek norabide berean aurrera egiteko.

*Lehia* hitzak ez du zentzurik hemen, konpondu beharreko arazoan munta dela eta nahi duen guztiak bere ekarpentxoan egin dezakeeneko esparruak egonik, ez da eragileen arteko lehiarik sortzen.

Modu batera edo bestera erakunde hauen kudeaketa-ereduan egon arren, beraiekiko kezka espliziturik sortzen ez duten beste hiru ezaugarri hauteman ditugu: Gardentasuna, itxurazko itzulkinak eta baliabide babestuak.

Agerikoa denez, erakundeek oso gardenak izan nahi dute beren xede sozialak duen inpaktua dela eta. Baina, ikusi dugunez, gardentasun horri ez zaio hainbesteko garrantzirik ematen beren jarduera, prozesu, finantza-alderdi eta halakoei dagokienez. Gardentasunak, ordea, ez du zerikusia emaitzekin edo xedeekin bakarrik, emaitza horietara iristeko baliabideaketa moduak agerian uztea ere garrantzitsua baita. Egia da aztertutako proiektuetako batzuek web sozialari lotutako teknologia berriak erabiltzen dituztela beren jardueraren berri etengabe «zabaltzeko», baina ekimen horiek hastapenetan daude eta erakundearen barruan gertatzen denaren zati txiki-txiki bat baino ez dute erakusten. Dena den, puntu hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu laugarren sektoreko erakundeek gizartean ospe ona eskuratu nahi badute eta haren konpromiso eta lankidetzan lortu nahi badituzte buruan dituzten erronka sozialei heltzen laguntzeko.

Itxurazko itzulkinen gaia ere ez dago elkarrizketatu dugun enpresaren gai-zerrendan ageri, oro har. Jarritako kapitalaren truke irabaziak eskatzen duten kanpo-inbestitzaileak ez egoteari zor izango zaio hori, beharbada. Egia da, halaber, ekimen gehienak ere hirugarren sektoretik datozela, eta irabazi-asmoa oso urria izaten da sektore horretan. Horregatik, irabazien gaia urrutiko gai gisa ikusten da gehienetan. Aztertutako erakundeen asmoa ez da irabaziak eskuratzea, oro har, beren ekimena iraunkorra izatea eta, aldi berean, beren xede sozialean ahalik eta gehien laguntzea baizik.

Antzeko zerbait esan dezakegu baliabide babestuei buruz ere. Elkarrizketatutako erakunde askoko onartu dutenez, azken urteotan asko handitu dira eta kasu askotan bat egin dute beste ekimen batzuekin edo beren baitan baneratu dituzte beste ekimen

batzuk. Horren tirabira asko sortu ditu maila finantzarioan, kideen aldetik, etab., baina ez da inoiz auzitan jarri ekimeneen izaera. Nolanahi ere, alderdi hau areago zehaztea komeni litzateke, gatazkak sortzea edo konfiantza galtzea galarazteko aurrera begira.

Laburbilduz, enpresa sozialek beren iraunkortasuna ahalbidetzen duen kudeaketa-sistema bat eskuratzeko duten beharrari erantzunez sortu da laugarren sektorea EAEn. Aldi berean, eta ingurunearen eragin indartsuaren eraginez, jabetza barne-hartzailearen eta gobernantza banatuaren alde egiten duten erakunde hauek argi eta garbi, eta arreta gutxiago eskaintzen diete beren ekimeneen gardentasunari eta ekimen horien izaera soziala etorkizunera begira babesteari.

## 6.

### LAUGARREN SEKTORERANTZ



### 6.1. Sarrera

Aurreko kapituluetan laugarren sektorea deskribatu dugu, haren ezaugarri nagusiak azaldu ditugu, zer-nolako ekimen ekonomikok osatzen duten argitu dugu eta gure artean dagoeneko sektore horretan badiharduten enpresa eta erakundeen adibide batzuk eman ditugu.

Enpresek laugarren sektorerantz jotzen duen egitura bat hartzeko erabakia ez dago enpresaren jarduera-eremuaren mende, enpresaren beraren barne-kulturaren eta duen misioaren mende baizik. Kapitulu honetan hiru jarduera aztertuko ditugu: lana bilatzea, turismoa eta etxebizitza alokatzea. Jarduera horiek guztiak laugarren sektoreak sartu daitezkeela frogatu nahi dugu hemen.

Hiru jarduera horiek ez ditugu ausaz aukeratu. Jarduera horietako bakoitzak laugarren sektoreko erakundeek esku hartzeko eta gizarteko behar zehatzei soluzioak emateko aukerak eskaintzen dizkigu.

Turismoa aukeratu dugu jarduera ekonomikorik garrantzitsuenetako bat delako Espainian, jende askok lan egiten duelako bertan eta etengabe hazten ari delako. Turismoa pertsona guztientzat egokitzea lehentasunezkoa da zenbait kolektiborentzat eta soluzio kreatiboak behar dira, beraz, turismo eskuragarria lortzeko. Lana bilatzeko jarduerak ere gero eta garrantzi handiagoa du gure artean, areago bizi dugun krisi sakona kontutan izanik: EAEko langabezia-tasa %11 ingurukoa da, eta Espainiako Estatukoa %20 ingurukoa. Ezintasunak dituzten kolektiboak eta bazterketa soziala jasaten duten pertsonen lan-merkaturatzen lagunduko dieten soluzio konbinatuak behar dituzte. Etxebizitza eta hura eskuratzeko aukera gure gizarteko arazo nagusienetakoa bihurtu dira: eraikuntzaren krisiak eta pisu gero eta garestiagoak, langabeziarekin batera, gero eta zailago egiten dute etxebizitza eskuratzeko aukera. Behar diren soluzio berriak laugarren sektoretik etor litezke.

### 6.2. Turismoa eta bidaia

Aisialdiko jarduera bat islatu nahi izan dugu, laugarren sektorearen barruan sortu daitezkeen hainbat aukera erakusteko.

Laugarren sektorearen agerpena argien islatzen duten kasuen artean bidaiari eta turismoari lotutakoak daude. Gaur egun, garapen ekonomikoaren motor bihurtuta daude, baina, horrekin batera, osagai sozial nabarmeneko esperientziak dira. Turismo-sektorea jarduera ekonomikoaren iturri nagusia da Espainiako Estatuan, eta proiektziorik handiena duten sektoreetako bat EAEn. Era askotako enpleguak biltzen ditu turismoak, sektore pribatu eta publikoan.

Gaur egungo garaian, turismoa, beste jarduera-esparru batzuk bezala, *eraldaketa sakona bizitzen* ari da. Alderdi askotan ikusten da eraldaketa hori: eskaintzaren espezializazioan merkatu-txoko ugarirekin, IKTen erabileraren hedapenean... Sektoreko lehiakortasuna bermatzeko zerbitzu-sorta berezia eskaini behar da, bezeroari esperientzia asebetegarriak emateko. «Esperientziaren turismoa» delako hori aurkitzen dugu turismo kulturallean, turismo gastronomikoan (enoturismoa bezalako aldaera zehatzekin), abentura-turismoan, kirol-turismoan edota «turismo arduratsua» etiketaren barruan aldean arteko joko garbia eta justizia bermatzen saiatzen den turismoan.

Alor teknologikoan, Interneteko sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen direla ikusi dugu, eta fenomeno horrek aukera berriak eskaintzen dizkio turismoari. Hala, bezero eta erabiltzaileek modu biziagoan parte hartu dezakete, eta horrek zerbitzuak eskuratzeko egituraren eragiten du. Sektore tradizionalaletako egiturak lausotu egiten dira eta beste jardunbide batzuen eragina jasaten hasten dira. Bidaietan espezializatutako sare sozialen inpaktuak sektorearen zati bat birdefinitu du, eta baldintzatu egin ditu orain arte lehen eta bigarren sektoreek landu izandako sustapen- eta komunikazio-moldeak.

Sare horien eta gainerako euskarri teknologikoen erabileraren gorakada etengabea adierazten dute gizarteko joerek, eta horrek milaka eta milaka lanposturen gaineko eragina dauka. *Hiru sektore tradizionalen eskaintze orekatzeko eta birdefinitzeko* beharra ekarri du eskaintza espezializatu beharrak eta eskaintza hori arduratsua izateko beharrak, bai eta teknologia berriek dakarten gardentasunak ere. Bai administrazio publikoentzat, bai sektore pribatuarentzat eta gizarte-erakundeentzat ere aldi berean

aukera ere baden erronka dakarkie horrek: eskaintza irudimenez eta harmoniaz bateratzea, loratzen ari den laugarren sektorea taxutzeko. Turismo tradizionala pertsona guztientzat egokitutako turismoarekin eta mugikortasunarekin erlazioatuko da, laugarren sektoreak jarduera ekonomiko horri egun eskaintzen dizkion aukerak eta bien artean dauden erlazioak erakusteko.

Lehen sektoreari dagokionez, administrazio publikoek turismoa enplegu, aberastasun eta etorkizuna sortzeko estrategia nagusien artean kokatzeko joera daukate. Ildo horretan, eguzkia eta hondartza bilatzen duen turismoaren kasuan, hondartza pertsona guztientzat egokitzeko ekimenak hartu behar dira kontuan<sup>32</sup>. Era honetako turismo-eskaintza zabala duten autonomia-erkidegoek –Kanariak, Valentziako Erkidegoak eta Balearrak, adibidez– ekimen espezifikoak dituzte dagoeneko. EA Eren ere baditugu halako ekimenak, kutxetako gizarte-ekintzen laguntzarekin zenbait kasutan<sup>33</sup>.

Bestalde, Administrazio publikoaren kezka argitaratzen dituzten txostenetan ere islatzen da. Horren lekuko dugu berriki aurkeztu den *Diagnóstico de accesibilidad del sistema de transporte público de la Comunidad Autónoma Vasca*<sup>34</sup>, esate baterako. EA Eko biztanleen %37,5ek mugikortasun mugatua dutela eta biztanleria zahartu ahala kopuru hori handituz doala jakinda, agerikoa da lehenbiziko sektoreak proaktiboago izan beharko lukeela legeak onartu eta legeak betearazteko garaian.

Bestalde, hotelei erreparatzen badiegu, turismoari lotutako bigarren sektorean ere denentzat egokitutako establezimenduak egiteko joera handia dagoela ikusten da. Nolabaiteko ezintasuna duten pertsonak osatzen duten kolektibo handi hori merkatu-txoko interesgarria izan daiteke, pertsona horien berezitasuna aintzat hartzen duen eskaintza eginez gero. Hondartza ondoan dauden ostalaritzako establezimenduek, adibidez, elkarlanean jardun dezakete gorago aipatu dugun hondartzen ekimenaren antzeko jardueretan. Bigarren sektoreak, beraz, «bezeroak» aurkitu ditzake, haien ezintasun motari erantzuten dien eskaintza berezia eskainiz gero.

Hori oso garbi ikusten da zenbait hotel-katetan. Viajeros sin límite proiektuaren blogak kategoria horri buruzko atal

32 Gai honi buruzko informazioa aurkituko duzue <http://playasaccesibles.discapnet.es/webgunean>. Espainiako Estatuko halako hondartzen zerrenda Wikipedia jaso dago: [http://es.wikipedia.org/wiki/Categor%C3%ADa:Playas\\_Accesibles](http://es.wikipedia.org/wiki/Categor%C3%ADa:Playas_Accesibles).

33 Horren adibide dugu BBKren gizarte-ekintzak bultzatzen duen Hondartza denentzat ekimena, adibidez. Bizkaian egokituta dauden hondartzen eta dauzkaten zerbitzuen zerrenda aurkituko duzue hemen: <http://playasaccesibles.discapnet.es/default.aspx?prov=6&flags=0>.

34 Laburpen exekutiboa hemen: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_2276\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_2276_3.pdf).

oso bat dauka, irisgarritasunaren txkeoa delako informazioz osatua. Gero eta garrantzi handiagoa emango zaio ezinduek zerbitzu guztiak eskuratu ditzaketen establezimenduak aurkitu ahal izateari. Biztanleria zahartzen ari da eta merkatu-txoko horrentzako zerbitzuak ugarituz doaz, oso bezero mota berezia osatzen dutelako.

Ildo horretan, UNEk IRISGARRITASUNari buruzko arau batzuk dauzka:170001-1 eta 170001-2<sup>35</sup>, hain zuzen ere. Erantzukizun sozialari lotutako arau-multzoaren barruan, irisgarritasun unibertsala arautzen duten bi ziuertagiri horien bidez hauxe bermatu nahi da: «irisgarritasun unibertsala aplikatzea ingurune, prozesu, produktu, tresna eta gailu guztietan segurtasunez, erosotasunez eta berdintasunez erabili eta aplikatu ahal daitezen, modurik autonomo eta naturalenean, pertsona guztien aldetik, oro har, eta ezintasunen bat dutenen aldetik, bereziki».

*UNE170001-2 araua onartuta erakundeek konpromiso soziala hartzen dute pertsona guztien eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko, haien gaitasuna edozein dela ere. Modu horretara, bezero batek ingurune batera jo eta han eskaintzen diren zerbitzuak eskuratu nahi dituenean, hori egiteko aukera izango du, enpresak modu eskuragarrian egokituak izango dituelako bere inguruneak, zerbitzuak emateko bere prozesu guztiak denengana heltzeko moduan.*

Azkenik, turismo barne-hartzailearen inguruan dabilzan ekimen ugari daude hirugarren sektorean. Zazpi herrialdetako 300dik gora kide biltzen dituen Europako Bidai Agentzien Partzuergoak antolatzen duen denontzako egokitutako bidaien esperientzia<sup>36</sup> nabarmendu dezakegu hemen. ONCE (Espainiako Itsuen Erakundea) enpresa-korporazioa da partzuergo horretako akziodun bakarra. Hogeita hamar urtetik gorako esperientzia bildu du ekimen honek, eta bere langileen %10ek ezintasunen bat dauka.

EAE n ere asko dira ezintasunak dituzten pertsonak dauzkaten erakundeak, eta tradizio luzea dute, gainera. Ezintasun-mota asko dauden bezala, esparru horretan diharduten erakundeak ere era askotakoak dira. Irisgarritasuna kolektibo horiek bilatzen duten

<sup>35</sup> Ikus [http://www.aenor.es/aenor/certificacion/resp\\_social/accesibilidad\\_universal.asp](http://www.aenor.es/aenor/certificacion/resp_social/accesibilidad_universal.asp).

<sup>36</sup> Ikus <http://www.viajes2000accesibles.es>.

lorpen soziala da. Baina xede sozialaz gain, irisgarritasuna akuilu izan daiteke era horretako zerbitzuak eskaintzen dituztenentzat, beharrezko egokitzapenak eginez bezero potentzialak bihurtu daitezkeelako ezintasunak dituzten pertsonak.

Hirugarren sektoreari dagokionez, hiru sektore tradizionaletan dagoeneko eskaintzen zutena biltzen eta birdefinitzen duten eta laugarren sektorean kokatu daitezkeen ekimenak agertzen hasi dira azkenaldian. Zuzenean eta zeharka turismoari eta laugarren sektoreari lotuta dagoen adibide bat dugu ezintasun edo ezgaitasunarena eta irisgarritasunarena. Bi adibiderekin ikusiko dugu hiru sektore tradizioetatik datozen dinamikak nola txertatzen dira turismoaren baitan sortutako laugarren sektorearekin.

Lantegi Batuak-en eta BBKren artean antolatutako ekimen aitzindaria dugu lehenbiziko adibidea. Datozen hilabeteotan aurkeztuko dute beren proiektu komuna: BBK Good Hostel<sup>37</sup>, ezintasuna duten pertsonen kudeatutako Europako lehenbiziko aterpetxea. Turismo barne-hartzailearen adibide aitzindari honek aukera ugari izan dezake, bai bertan lan egiten dutenentzat, bai aterpetxeko instalazioetara doazenentzat. Viajeros sin límite [Mugari gabeko Bidaiariak]<sup>38</sup> ekimena daukagu bestalde, teknologia berriak erabiliz eraldaketa bultzatzen duten jardueren artean. Miguel Nonayk jarri zuen abian ekimena Zaragozan, eta kolaboratzaile-talde zabala du gaur egun. Internetek gaur egun eskaintzen dituen aukerak hartu behar ditugu kontuan ekimen hori ondo ulertzeko, turismo barne-hartzailearen behar eta aukerak ezagutzeko plataforma bihurtu baita ekimen hori. Hasiera batean ekintzaile zehatz batek bultzatutako ekimena izan arren, hiru sektore tradizioaletan diharduten pertsona eta erakundeak biltzea lortu du.

*Viajeros sin límite* izenaren oinarrian ideia hau dago: inora iristeko edo jardueraren bat egiteko dauden irisgarritasun-mugak ez direla hainbeste arkitekturari edo komunikazioari lotutako mugak, turisten beraren aukera ekonomikoen arabera mugak baizik. Hasiera-hasieratik oihartzun handia izan du ekimenak, web sozialak eskaintzen dituen aukerak baliatuta, eta muga geografikoak gainditzearekin batera, kontzientziazio soziala landu

37 Ikus <http://www.youtube.com/watch?v=GOtRP3Su6hk>.

38 Ikus <http://www.viajrossinlimite.com/>

eta eraldaketa-tresna bihurtu da. Komunitate-sentimendu sendoa ere islatzen du, *hiru sektore tradizionalak pertsonak biltzen dituen kolaboratzaile-taldea* osatzea lortu baitu.

Viajeros Sin Límite proiektua lehen sektorean kokatzen da gizarte aurreratuek mugak jartzen ez dituzten ingurune publikoak eskaini behar dituztela dioen printzipioarekin bat egiten duen aldetik. Horretarako, ezintasunen bat dutenek parke, kale, museo, geltoki, aireportu eta gainerako espazio publikoetan mugitzeko irisgarritasun-eragozpenik ez dutela bermatu beharra dago. Administrazioak legeak onartu eta betearazi egin behar ditu, irisgarritasuna bermatzen dela ziurtatuz dagozkion araudien bidez<sup>39</sup>.

Erraz ulertzen da Viajeros sin límite bezalako ekimen baten eduki soziala. Oztupoak kentzeko eta, azken batean, ezinduak eguneroko bizimoduan txertatzeko lan egitea esparru honetan diharduten eta hirugarren sektore klasikoan kokatuko liratekeen erakunde ugarietako edozeinek beretzat har lezakeen helburua da berez. Viajeros sin límite erakunde horiekin batera jardun nahi du elkarrekiko babesak bilatu eta proiektuaren helburu sozialak betetzen direla bermatzeko.

Azkenik, proiektu honen bidez ez dute jendearen bizibaldintzak opor-garaian hobetu nahi bakarrik. Herritar guztiengana iritsi nahi dute haien eguneroko joan-etorriak eta bizi-maila orokorra hobetzen laguntzeko. Gaur egun gure gizartea zahartzen ari denez, asko eta asko dira espazio publikoetan nahiz establezimendu pribatuetan mugitzeko gailu bereziak behar dituzten pertsonak, eta horregatik aipatu dugu azken puntua.

Turismoak eta bidaiak osatzen duten sektore konplexuak laugarren sektorearen sorrerarekin erlazionatu ohi diren ageriko ezaugarriak ditu. Hemen aipatzen ari garen Viajeros sin límite kasua dugu horren adibide. Laugarren sektorearen tesia defendatzea arrazoizko egiten duten elementuen laburpena ekarri dugu hona:

- *Lehen sektoreko interesak, bigarren sektoreko ikuspegiak eta hirugarren sektoreko proposamenak uztartzen ditu:* adibidez, lurralde-garapena eta ezintasunak dituzten herritarren oinarritzko eskubideak (lehen sektorean); biztanleriako

39 Gaiari buruz EAEn dauden legeak hemen kontsultatu daitezke: [http://www.accesible.es/legis\\_pvasco.htm](http://www.accesible.es/legis_pvasco.htm).

merkatu-txoko oso zehatz batentzat erakargarria izan daitekeen eskaintza oso segmentatu baten bidez bezeroak lortzen saiatzea (bigarren sektorean); eta kolektibo horien integrazio soziala (hirugarren sektorean).

- *Turismo-jardueraren eta bidaiaren gaineko ikuspegi zabala* garatzen du, eragile guztiz desberdinak uztartzen baititu aukera handiak eskaintzen dituen balio-katea osatzeko. Hor sartzan dira irisgarritasuna errazten duten ekipamenduen diseinatzaile eta fabrikatzaileak, integrazioaren alorrean eta herritarren eskubideak errespetatzearen alde diharduten kolektiboen lan soziala... *Stakeholderen* multzo zabal sortzen da, beraz, xede sozialei jarraiki lurraldearen jarduera ekonomikoen eraldaketa positiboa bultzatzeko denon artean.
- *Internet erabiltzen du espazio integratzaile gisa*, bertan interes desberdinak uztartzeko. Ildo horretan, irisgarritasuna topagunea bihurtzen da, eta bidaiatzen dutenek «mugarik gabe» bidaiatu ahal izateko akuilua gehitzen zaio gainera. Interesgarria da ikustea espazio digitalak nola laguntzen duen espazio fisikoa aldatzen. Interesdunen arteko komunikazioa gertatzen den lekua izan daiteke Internet, eta, aldi berean, jardunbide egokiak bildu eta irisgarritasun-premia bereziak dituztenen esku uzteko lekua ere izan daiteke.
- Lortzen den irabazi edo onura globalak ez die ezintasuna dutenei bakarrik laguntzen, baizik eta balio-kateko gainerako eragile guztiei ere.

Azken batean, turismoa eta bidaiak laugarren sektorea sortzeko aukera egokiak eskaintzen dituzte, sektore tradizioaletako bakoitzaren ikuspegi partzialak zekartzaten mugak gaintitzen dituen aldetik. Erakunde berriak sortzea ekar lezake, batetik, eta, bestetik, eraldaketa lortzeko duten potentziala handitzeko indarrak biltzen dituzten sektore tradizioaletatik sortutako erakundeen arteko elkarlana ahalbidetu lezake, halaber.

### 6.3. Enplegua

Enplegua sortzea da EAEk datozen urteotarako daukan erronkarik


handienetakoa, pairatzen ari garen nazioarteko krisiaren ondorioak aztertuz gero bereziki, lan-baldintzak okertzea eta lanpostuak sistematikoki galtzea eragiten ari baita krisi hori.

Aurreratua eta jasangarria izan nahi duen edozein gizartek enplegua, zahartzea eta hezkuntza (hiru Eak direlakoak, gaztelaniazko ordainen lehen letrak hartuta<sup>40</sup>) hartu behar ditu ardatz gisa, ezinbestean.

Enpleguari dagokionez, EBk berak ere horixe onartzen du bere estrategiaren barruan<sup>41</sup>, 20-64 urte bitarteko biztanleen %75ek 2020rako lanpostu bat izatea finkatu baitu helburutzat, horrela hazkunde adimenduna, jasangarria eta integratzailea bultzatzearen.

Dena den, nahiz eta erkidego-mailan biztanleriaren langabezia-tasak finkatutako helburua bete, ez dakigu tasa hori nola garatuko den, eta neurriak hartu beharko dira hazkunderan oinarritutako kohesio soziala bermatzeko.

### 23. irudia. 16-74 urte bitarteko biztanleriaren langabezia-tasa 1998-2010



Iturria: geuk osatua, Eustaten datuak erabilia

Tradizionalki lehen sektorea izan da lanpostuen sorkuntzatik tira egin duena, eta EAEn kooperatiben<sup>42</sup> ekarpen handia nabarmendu behar dugu (ikerketa honetan zehar esan dugunez, hirugarren sektorekoak dira kooperatibak).

40 Innobasque (2011)  
«Estrategia de Inno-  
vación Social: Una ventana  
de oportunidad para  
Euskadi».

41 Hemen eskuratu  
daiteke:  
[http://ec.europa.eu/  
commission\\_2010\\_2014/  
president/news/docu-  
ments/pdf/20100303\\_1\\_  
es.pdf](http://ec.europa.eu/commission_2010_2014/president/news/documents/pdf/20100303_1_es.pdf)

42 Euskadiko Kooperati-  
ben Konfederazioaren  
datuen arabera, 750dik  
gora kooperatiba daude  
EAEn, eta denera 55.600  
langile baino gehiago  
dituzte.



Bazterketa soziala jasateko egoeran dauden kolektiboei lan-aukerak eskaintzen dizkieten hainbat erakunde ditugu, bestalde. Lan-merkatu arrunterako zubi-lana egiten dute erakunde horiek. Hala, ezintasuna duten pertsonak<sup>43</sup> enplegu-zentro berezietara jotzen dute, eta bazterketa soziala jasateko arriskua duten beste kolektibo batzuek, berriz, ekonomia solidarioan txertatuta dauden lan-munduratzeko enpresetara<sup>44</sup> jotzen dute.

Azkenik, sektore publikoak erregulazio-lana egiten du batzuetan, lan-merkatua modernizatzeko eta enplegu-maila handitzeko baldintzak sortuz eta lan-merkatutik baztertuta dauden pertsonen babes emanez, bai langabeei zuzendutako zerbitzuen bidez, bai eragileei (lehen nahiz hirugarren sektorekoak) dirulaguntzak emanez egiten duten lanaren ordainetan.

Nolanahi ere, eta *enplegu* nozioa oso nozio zabala denez gero, atal honetan laneko bitartekaritzaren ikuspegitik helduko diogu. Laneko bitartekaritza aztertzeke, bi adibide hartuko ditugu: garapen lokaleko agentziak (GLA) (normalean bigarren sektorean kokatzen dira) eta enplegu-zentro bereziak (enpresamunduko figurak dira eta hizpide dugun unibertsoan kokatzen dira Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legeari jarraiki).

Gorago aipatutako enpresen kasuak deskribatzeko, laugarren sektoreak eskaintzen digun ikuspegia hartuko dugu oinarritzat. Hala, hiru sektore tradizionalak batean kokatuta dagoen irteera batetik hiru sektoreetako antolakuntza-egiturak eta jardueraremuak uztartzen dituen balizko laugarren sektorerako iragaite-esperientziatzat hartuko ditugu erakunde horiek.

### 6.3.1. Bigarren sektoretik laugarrenera

Sektore publikotik hasita, EAEn Lanbiden<sup>45</sup> egituratzen da lan-munduko bitartekaritza, erakunde hori baita lan-munduratzeko laguntzeaz arduratzen den tresna. Lanbideren bidez harremanetan jartzen dira beren enplegarritasuna hobetu nahi dituzten pertsonak eta lehiakorragoak izan behar duten enpresak, eta beraz enplegu-eskatzailerek eta enplegu-eskaintzailerek bat egiten duten gunea da Lanbide.

Dena den, eskualde-mailara jaitsiz gero, garapen lokaleko agentziak aurkitzen ditugu. Agentzia hauek 1980ko hamarkadan

43 LISMI Legeko 7.1. artikulua arabera, hauek dira ezintasuna duten pertsonak: «ezintasun baten ondorioz hezkuntzan, lan-munduan nahiz gizartean txertatzeko dituzten aukerak mugatuta dauzkaten pertsonak. Ezintasun hori betiko izango da seguruenik, sortzetikoa izan daiteke ala ez, eta beren ahalmen fisiko, psikiko eta zentzumenetan eragiten die.

44 Informazio gehiago Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartean (GIZATEA): [www.gizatea.net](http://www.gizatea.net).

45 Informazio gehiago: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net).

46 1980ko hamarkadako krisiak kolokan jarri zituen EAEn ordura arte aplikatutako hainbat politika, eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzairen garapeneko eragile lokalei.

47 GLAen lehentasune-tan sakontzeko, hona jo dezakezue: [http://ec.europa.eu/regional\\_policy/index\\_es.htm](http://ec.europa.eu/regional_policy/index_es.htm).

48 Garapen 1992an sortutako elkarte profesiona da, eta EAeko toki-erakundeek eratutako garapen-agentzia biltzea du helburutzat.

sortu ziren, bi ardatzi lotutako faktore sozioekonomiko berezi batzuei erantzunez<sup>46</sup>:


1. Estatuaren berregituraketari jarraiki, gobernu-eskala berriak eta erregulazio-molde berriak sortu ziren, eta horrekin batera gobernu-eredu berriak. Eredu berri horietako eragile publiko eta pribatuaren sareek gobernantza interaktiboan parte hartzen zuten, herritarren arazoak beraiegiengandik gertuen dagoen administrazioak konpondu behar dituela dioen logikari jarraiki. GLAak eratzeko prozesuan erakundeen berrikuntza nabarmena gertatu zen, beraz.
2. Bestetik, Europar Batasunak erregio eta eskualdeen aldeko deszentralizazio-arauak onartu zituen, erakundeen gertutasun eta malgutasunak herritarren beharrei hobeto erantzuten laguntzen zuelakoan (Brugué eta Gomà, 1998).

Azken batean, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko eta ongizatea banatzeko ahalmena toki-erakundeen esku jartzten hasi ziren<sup>47</sup>, herritarrengandik gertu egoteak eta tokian tokiko testuingurura egokituta egoteak erronka horiei ekiteko egoera pribilegiatuan jartzten zituztela iritzita.

Garapenen datuen arabera<sup>48</sup>, 2009an, ADLek EAeko biztanleen %84ei ematen zizkieten zerbitzuak, eta agentzia horien aurrekontuaren erdia baino gehiago enplegua sustatzera bideratzen zen.

Agentzia horien forma juridikoa aztertu eta dugu eredu bakar orokorrik aurkitu, baina, oro har, eginkizun publiko bat betetzen duten erakunde pribatu gisa sailkatu ditzakegu. Sozietate anonimoen, sozietate mugatuen eta erakunde autonomoen forma juridikoa hartzen dute askotan, baina udalen parte-hartzea dute %100ean (Garapen, 2000). Dena den, arazo zehatz bat duten zona batzuetan, SPRIk finantzatzutako edota beste erakunde batzuek kofinantzatutako agentziak aurkitzen ditugu batzuetan. Azken horien artean ditugu, besteak beste, BBKk kofinantzatutako Behargintza sareko agentziak.

## 24. irudia. Finantzazio-iturriak



- % 19 - Eusko Jaurlaritza
- % 11 - Aldundia
- % 11 - EIN
- % 3 - Europako Funtsak
- % 6 - Jardueragatikoko sarrerak
- % 5 - Beste bide batzuk
- % 45 - Udala

Iturria: Garapen (2009)

### 6.3.2. Lehen/hirugarren sektoretik laugarren sektorera

Laneko bitartekaritzaren beste adibide bat aipatuko dugu orain, ekonomia sozialaren esparruan kasu honetan: gizarteko eta lan-munduratzeko enpre esak eta enplegu-zentro bereziak. Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legea onartuz geroztik, bi figura horiek esparru honetan sartu dira eta, aurrekarien kapituluan ikusi dugunez, lehen eta hirugarren sektorearen artean kokatzen dira. Lehen sektorekotzat hartu genitzakeen, merkataritza-enpresen forma hartzen dituzten aldetik, sozietate mugatuena eta sozietate anonimoen kasuan, esaterako. Halere, helburu sozial nagusi batera bakarrik –enplegatzeko zailak diren pertsonak lan-munduratu eta gizarteratzea– zuzentzen diren enpresak izanik eta elkarrekin munduarekin lotura estu eta sakonak dituztenez, bi sektoreetako baliabide eta logikak hibridatzen dituzten enpresamunduko formetarako iragaitearen beste adibide bat osatzen dute. EAEko errealitateari begiratuz gero, hemengo halako enpresa

gehienak GIZATEA sarean kokatzen dira, eta sare hori ekonomia solidarioaren munduari lotutako erakundeen beste sare batzuen barruan daude, REAS-Euskadi sarearen bidez, esate baterako.

Lan-munduratzeko enpresak lan-merkatu arruntean modu eraginkorrean txertatzeko arazo eta eragozpenak dituzten kolektiboek lana aurkitzen (eta, bide batez, gizarteratzen) laguntzeko tresnak dira. Merkatuaren barruan bizi dira eta jarduten duten enpresa horiek, eta handik ateratzen dituzte beren diru-sarrera gehienak. Aldi berean, hirugarren sektorearekin lotura estura duten enpresak dira, tradizionalki sektore horrek artatu izan dituen kolektiboek zerbitzuak emateaz gain, irabazi-asmorik gabeko erakundeek bakarrik osatuak egotera behartzen ditu legeak. Administrazio publikoak ere sustatzen ditu era horretako erakundeak, diru-laguntzen bidez haien jarduera bultzatzen duen aldetik.

Orokortzeko arriskua hartuta ere, esan dezakegu enpresa arrunten egitura dutela, baina bazterketa soziala jasaten duten kolektiboak lan-munduratu eta gizarteratzeko helburuarekin. Halatan:

- Geroz eta oldarkorragoa eta lehiakorragoa den merkatu batean lehiatu beharrean daude, eta horren ondorioz gero eta gehiago profesionalizatzen ari dira, berrikuntzan, kalitatean eta lehiakortasunean oinarritutako ikuspegia eredutzat hartuta. Horri jarraiki, lan-munduratzeko enpresek jarduera ekonomiko nabarmena egiten dute, gero eta kalitate hobea duten produktuak eta zerbitzuak eskaintzen baitizkiete erakunde publiko, antolakunde sozial, enpresa pribatu nahiz herritar arruntei.
- Bestalde, lan-munduratzea eta gizarteratzea lortzeko, bi prozesugertatu ohi dira aldi berean. Erabiltzaileak profesionalki gaitzen dituzte, batetik, eta laguntza pertsonalizatuagoa ematen diete lan-merkatu arruntean sartzea galarazten dieten lan-bizitzako alderdiak konpontzeko. Prozesu horien hasiera laneko bitartekaritza-prozesuekin parekatu dezakegu, orduan erabakitzen baita prozesuan parte hartzen duten pertsonak zein enpresatara bideratzen den, gizarte-zerbitzuetatik iritsi eta gero.

Enplegu-zentro bereziak, bestalde, ezintasunak dituzten pertsonak gizarteratzen eta lan-munduratzeko lan egiten duten enpresak dira. Merkatu arruntean jarduten dute, eta beren langileen %70ek ezintasun edo ezgaitasunen bat izaten dute<sup>49</sup>, soldatapeko lan produktibo baten truke. Zentro horiek eskulan-behar handiko sektoreetan lan egiten dute gehienbat: zerbitzuetan (garbiketean, lorezaintzan eta telemarketinean) eta industrian (manufaktoretan eta artisautzan).

Enplegu-zentro bereziak titulartasun publiko nahiz pribatukoak izan daitezke, eta azken horien artean ekonomia sozialeko enpresak eta enpresa kapitalista tradizionalak daude (Barea 2008, 68. or.). Monzónek dioen moduan (2008), enplegu-zentro berezi guztiak ez dira ekonomia sozialeko enpresak, baina Espainian dauden garrantzitsuenek betetzen dituzte Enpresa Sozialetarako Batzordearen Eskuliburuan finkatutako ezaugarriak.


Enplegu-zentro berezietan gain, hemen aipatu beharreko beste ekimen batzuk sortu dira. Okupazio-zentroak daude, batetik. Ez dira ez enpresak ez laneko irudiak, baina hauxe da haien helburua: «beren aldi baterako nahiz betirako ezgaitasunaren ondorioz enpresa batean edo aldi baterako enplegu-zentro batean lan egiterik ez duten ezinduei okupazio-terapia eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea»<sup>50</sup>. Lan-enklabeak dauzkagu, bestetik<sup>51</sup>. Zentro horietan enplegu-zentro berezietatik enplegu arruntera iragaten laguntzen zaie ezintasuna edo ezgaitasuna duten langileei.

Espainiako ezindu eta ezgaituen lan-munduratzeko duten garrantzia dela eta, goian aipatutako tresnen artean enplegu-zentro bereziak dira esanguratsuenak, eta enplegatzen dituzten pertsonen kopurua etengabe handitzen joan da 2000 urteaz geroztik. EAEn enplegu babestuen arduratzen den elkarte EHLABE bada ere eta bertako lantegi gehienak ekonomia sozialean badihardute ere, azterketa honetan figura hori aipatzea egokia iruditu zaigu, era honetako zentroek forma juridiko ugari har ditzaketelako. Horren eredu dugu hemen jasotzen dugu grafikoa, enplegu-zerbitzu publikoek osatua.

49 Berez, ezintasunak edo ezgaitasunak dituzten pertsonak desabantailak dituzte lan-merkatu arruntean sartzeko garaian eta, horregatik, sektore publikoak neurriak hartu ohi ditu haien alde, jasaten dituzten oztopoak konpentsatzeko, enplegu-programa babestuak izanik neurri horien adibide bat.

50 Ezinduek Gizartearen Txertatzeko 19/1982 Legeko (LISMI gaztelaniako siglan) (apirilaren 7koa) 53. artikulua.

51 Merkatu arrunteko enpresa baten (enpresa laguntzailea) eta enplegu-zentro berezi baten arteko kontratuak dira lan-enklabeak.

**25. irudia. Enplegu-zentroaren izaera juridikoa**

- % 25 - Fundazioak eta Elkarteak
- % 8 - Titulartasun Publikoa
- % 17 - Sa., S.L., E. Koop., etab.
- % 50 - Erantzukizun Mugatuko Sozietateak

**Iturria: geuk osatua, Barea eta Monzón (2008)  
oinarriztat hartuta**

**6.3.3. Ondorioak**

Goian aipatutako hiru kasuak aztertuta, hiru sektore tradizionaletatik laugarren sektore bateranzko iragaitearen ikuspegitik aztertu litezkeen faktore komun batzuk aurkitu ditugu. Sektore publikoan, GLAen bidez egindako eskualdegarapenerako estrategiari jarraiki, kudeaketa-molde berriak sortu dira, erakundeekiko gertutasunari eta lurraldeek dituzten lehiatzeko abantailak ustiatzeko aukerei esker, guztia ere enpresalorreko irizpideak sektore publikoan txertatuta. Bestela esanda, erabilera publikoari inbertsioen errentagarritasuna eta herritarrak bezerotzat hartzeko ikuspegi gehitzen zaizkio (Gainza, 2009).

Bestalde, ekonomia sozialarekin lotura estuena duten enpresak, lehen eta hirugarren sektoreen arteko mugan kokatzen

diren ekonomia sozialeko erakundeak izanik, lan-munduratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak alegia, enpresari lotutako metodoak eta helburu sozialak uztartzen dituzten erakundeen adibiderik garbienak ditugu. Guztiak datoz elkarteen mundutik, eta enpresa-alorreko estrategiak garatu dituzte beren oinarri-oinarrizko helburua –lan-merkatu arruntean sartzeko arazoak dituzten pertsonen lan-munduratzeko eta gizarteratzen laguntzea alegia– lortzeko garaian eraginkorragoak izateko.

#### 6.4. Etxebizitzen alokairua

Etxebizitzen alokairua gai garrantzitsua da inondik ere, eta merkatu-txoko horretan laugarren sektorean kokatu genitzake negozio-eredu berriak sortzen ari dira.

Gaur egun, bi aukera daude etxebizitza bat eskuratzeko: erostea eta alokatzea, eta bi aukera horien artean ibiltzen gara beti etxe bat hartzeko garaian. Ildo horretan, oso berriki arte «adreibila ez da behin ere jaisten» leloa zen nagusi EAEn eta, horregatik, erosteko joera handiagoa izan da alokatzeko baino. Krisiaren ondorioz egun daukagun egoera ekonomikoak, ordea, alokatzeko joerak gora egitea eragin du Europa osoan eta EAEn.

Izan ere, azken joera hori bultzatzen ari dira herrialdeetako gobernuak ere, alokairua sustatzeko asmoz. Ildo horri jarraiki, 2010ean Etxebizitzarako eta Birgaitzerako 2009-2012 Planari (PEVR gaztelaniazko siglan) buruzko Errege Dekretua aldatzea erabaki zuen Espainiako Ministro Kontseiluak, Sustapen ministroaren eskariari erantzunez. Nazioaren Egoerari buruzko azken Eztabaidan erabakitakoa betetzea zen aldaketa horren helburuetako bat, Gobernuaren etxebizitza-politikan alokairua bultzatzea eta birgaitzea sustatzea lehentasuneko ildotzat jotzea erabaki baitzen han. Hala, etxebizitza bat eskuratzeko edo birgaitzeko laguntzak ahalik eta jende gehienengana irits daitezten, hainbat neurri adostu ziren alokairua eta birgaitzea aurrekontuetan lehenesteko, gizartean eta ekonomian duten pisu handia dela eta laguntza publikorik handiena merezi duten bi ildoak direla iritzita. Administrazio publikotik bertatik alokairua bultzatzen ari dela erakusten du horrek, etxe-merkatuaren baitako

mugikortasuna sustatu eta, horrela, ekonomia suspertzeko helburuz.

Horrek guztiak, IKTek gizartean izandako garapenarekin batera, etxebizitzaren sektorean enpresa asko eta asko sortzea eragin du, Internet bidezko etxebizitzaren alokairua izanik horren adibide bat.

Azken batean, etxebizitzaren alokairuaren gaia aztertuko dugu hemen hiru sektore tradizionaletatik eta laugarren sektorerantzko joeraren ikuspegitik, eta joera horrek ekar ditzakeen onurak azalduko ditugu.

Etxebizitzaren alokairuan diharduten lehen sektoreko erakundeek ikuspegitik, denok ezagutzen ditugun gertuko adibide ugari daude: EAEn ditugun etxe-agentzia ugariak, esate baterako. 1976etik Bilbo Handian eta inguruko herrietan diharduen etxe-agentzia baten kasua hartuko dugu adibide gisa. Haien beraiek diotenez, hauek dira beren helburuak: «eraikinak kudeatu eta merkaturatzea, jardunean dabiltzan herrien hazkunde sozialean laguntzea eta bezeroei zerbitzu adeitsu eta gertukoa ematea, gure profesional-talde gazte eta dinamikoa haien esku jarrita». Etxebizitzaren alokairua kudeatzen duen enpresa baten adibide honetan garbi ikusten da helburu soziala duela, nahiz eta, kasu honetan, irabazi ekonomikoa ere helburua izan.

Gainera, Internet bidez jardunez merkatua goitik behera irauli dituen alokairu-enpresak ere agertu dira sektore pribatuan, [www.enalquiler.com](http://www.enalquiler.com) adibidez. Webgune horretan alokairuan dauden pisuen eskaintzeaz gain (*core business*), haratago jotzen dute etxea aurkitzeari lotuta dagoen behar soziala asetzeko garaian. Erabiltzaile bakoitzari behar duen horixe aurkitzen laguntzeko erraztasun guztiak —iragarki asko, argazkiak, bakoitzari gustatzen zaizkion pisuen zerrenda osatzeko aukera, prezioak alderatzeko tresna, pisuen prezioan izandako gorabeheren ohartarazpenak...— ematearekin batera, gainerako erabiltzaileekin esperientziak trukatzeko *postak* uzteko aukera ematen dute. Bezeroaren zerbitzura dago, beraz, argi eta garbi, bi aldeentzat ahalik eta negoziatorik onena egitea izanik helburua.

Sektore publikotik (bigarren sektorea) sustatutako etxebizitzaren alokairuaren kasuan, hiru eragile ditugu EAEn:



Alokabide, VISESA izena duen alokairuaren sustapenerako sozietatea eta Eusko Jaurlaritza. Bigarren sektoreak behar sozial bati erantzuteko sustatzen du alokairua, pertsona guztiek etxe batean bizitzeko eta beren bizi-proiektua garatzeko txoko bat izateko eskubidea dutelako. Alokairuko etxebizitzan (etxebizitza sozialena bereziki) sustapenaren alde Eusko Jaurlaritzak egindako apustu sendoari jarraiki eratu zen Alokabide. Hala, berehalako behar bati erantzuteaz gain, sustapen publikoko etxebizitza-parkearen errotazioa bultzatzen da, haien balio-bizitzan ahalik eta jende kopuru handienak erabiltzea bilatuz. Alokabideri esker alokairu merkeko pisuetan bizitzeko aukera dago, kalitate-bermerik handienarekin. Sozietate horrek alokairu babestuko 8.000 etxebizitza inguru kudeatzen ditu gaur egun, eta datozen urteotan EAEko parke osoa kudeatuko du. Alokatzeko gestioak arintzen laguntzen du Alokabidek eta etxebizitzarekin lotutako izapideak errazten dizkio jendeari.

Alegia, enpresa hauek Administrazio publikoak herritarren etxebizitza bat lortzen laguntzeko eskaintzen dituen tresnak direla da bigarren sektoreak gehien azpimarratzen duena.

Irabazi-asmorik gabeko sektorean (hirugarren sektorea) ere badaude etxebizitzan alokairua kudeatzeko ekimenak, Cáritas bezalako erakundeen bidez. Etxebizitza-beharra enpresa sozial batetik asetzea da haien helburua. Espainiako etxebizitza-politika hau nirea da, hau zurea leloan oinarritutako merkatuaren inguruan egituratu dela uste dute Cáritasen, besteak beste etxebizitza gehien-gehienak jabetzakoak direlako. Beraz, Konstituzioaren arabera premia bizikoa den ondasun bat eskaintzaren eta eskariaren aldaeren mende dagoen salgai edo merkantzia, inbertsiorako balore, bihurtzen da, eta, azkeneko, etxebizitzaren burbuila delakoa gertatu zen: prezioak beharrezkoa eta arrazoizkoa denaren oso gainetik, hau da, euskal familiek beren gain hartu dezaketenaren eta etxebizitzan benetako balioaren oso gainetik egotea.

Horrek guztiak oso ondorio kaskarrak izan ditu egoera txarrean dauden talde eta kolektiboen artean. Etxebizitzari lotutako bazterketak gizarteko zenbait kolektibok berez pairatzen duten egiturazko bazterketa areagotu besterik ez du egiten.

Hain zuzen ere horregatik, hirugarren sektorea gaiaz arduratu da eta Cáritasek, adibidez, erabilera desberdineko etxebizitzaren alokairua izeneko ekintza-ildo bat dauka. Jarduera-eremu hauek garatzen dituzte bertan:

- Harrera- eta gizarteratze-etxebizitzak.
- Aterpe-etxebizitzak.
- Babespeko, erdi-babespeko eta partekatutako etxebizitzak.
- Gizarte Integraziorako Etxebizitzak (GIE).
- Apartamentuak.
- Etxebizitza-plataformak.

Azken aldi laugarren sektorekotzat jo daitezkeen ekimenak sortu dira, hiru sektore klasikoek orain arte etxebizitzaren alokairuan egin dutena bateratu eta birbideratzeko.

Goiztiri dugu laugarren sektore sortu berri honetan gertatzen ari denaren adibide bat. Kasu-azterketak egin ditugunean hitz egin dugu erakunde horri buruz. Toxikomaniak, hiesak eta espetxeak eragindako arazoei erantzuteko sortu zen, kolektibo baztertuekin jarduerak egiteko, eta etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak gainditzen laguntzeko. Kolektibo baztertuei etxebizitzak alokatzeko errezeloak egoten direla aipatzen dute Goiztirikoek. Hori ikusita, etxebizitzaren azken erabiltzaileen eta jabeen artean bitartekari gisa jarduten hasi ziren. Horrek segurtasuna ematen die jabeei eta gizarteko sektore batzuei laguntzeko aukera ematen die beraiei. Alegia, xede sozial bat egiten jarraitzen dute, baina beren jarduera egiteko enpresa-ereduari gehiago lotutako negozio-eredua garatzen hasi dira. Gainera, gizartean benetan txertatzen laguntzeko erakundeak baldintza batzuk jartzen dizkie maizterrei: garaiz ordaintzea, etxebizitza zaintzea eta bizilagunekin erlazio ona izatea.

Modu horretan, gazteek etxea alokatu ahal izateaz gain, etxe hori baloratzen eta ondo zaintzeko esfortzua egiten ikasten dute.

Etxebizitzaren arazo konplexuak oso sektore interesgarria osatzen du eta beren jardunean laugarren sektorera jotzen duten erakunde gehiago sortzen ari da hor. Negozio-eredu horiek indargune hauek izango dituzte:

- *Sektore guztien interesak batzen dituzte, bitartekaritzaren*

bidez irabazia lortzearekin batera, etxebizitzari lotutako behar sozialari erantzuten diote, Konstituzioan bertan jaso dagoen beharra izanik hori. Hiru sektore klasikoen helburuak bildu eta etxebizitzaren alokairua bezain beharrezkoa den jardueraren batean bateratzen dira.

- *Etxebizitzaren alokairua jardueraren gaineko ikuspegi globala orokorra eta irabazi orokorra bilatzen dute.* Gizarteratze-erloko benetako arazotzat hartu beharra dago, Cáritasek 2009an aurkeztutako memorian (*Memoria 2009 de Cáritas Española sobre el derecho social: vivienda*) zioen moduan: «Etxebizitza eskuratzeko bazterketak areagotu egiten du gizarterteko kolektibo batzuek dagoeneko jasaten duten egiturazko bazterketa», eta horixe da, hain zuzen, laugarren sektoreak konpondu beharreko benetako arazoa.

Kolektibo guztien gizarteratze zenbat eta handiagoa lortu, orduan eta areago hobetuko du euskal gizartearen egoera orokorrak, eta horrek onura eta irabazi orokorrak ekarriko ditu, ondorioz.

- Etxebizitzaren merkatua mugitzea lortzen da. Merkatu hori izan da egungo krisia gehien kaltetu duenetako bat, eta leheneratzeko premia dauka.
- *Negozio-metodoak* erabiltzen dira: bitartekaritza-jardueraren hauetatik ahalik eta irabazi ekonomikorik handiena lortzeko metodo eta prozesuak bilatzen saiatzen dira.

Azken batean, sektore tradizionaletako bakoitzaren indarguneak bateratuz laugarren sektorea agertzeko aukerak daude etxebizitzaren alokairuaren kudeaketan.

## 7.

### AZKEN ONDORIOAK

*Laugarren sektorea* kontzeptu sortu berria da eta garapen murrizt samarra du, bai kontzeptualki, bai enpirikoki, nazioartean, Estatu- eta erkidego-mailan eta maila lokalean ere, nahiz eta azken aldian gero eta arreta gehiago eskaintzen zaion era askotako argitalpen, negozio-eskola eta eztabaida-guneetan. Halakoetan, zuzenean aipatuta, nahiz aipatu gabe, kontzeptu horri lotutako jardunbideak eta ezaugarriak azaleratzen hasi dira. Ikuspegi kontzeptualetik, ekonomiako hiru sektore tradizionalak batean kokatuta dauden erakundeek garatzen dituzten esku-hartzeko logikak, antolakuntza-ereduak, negozio-ereduak edo sektore bakoitzeko kudeaketa-estiloak hibridatzen dituen muga-esparru baterantz jotzen duten dinamikak (iragaiteak) identifikatzen oinarritzen da kontzeptu hau. Dinamika horiek ekonomiaren eta erakundeen orientazioa aldatzen deneko testuinguruan gertatzen dira, Estatuak, gizarteak eta enpresek beren funtzio eta jardueraremuak birdefinitzen ari diren testuinguruan hain zuzen, guztia ere maila global zein lokalean aldatzen ari den errealitate ekonomiko eta sozial berrira egokitzeko helburuz.

Kontzeptu hau definitzeko garaian, narratiba hauetakoren bat erabili ohi da: «galera-irabazien kontua duten antolakundeak», hau da, merkatuan balioesten den balio sozial eta ekonomikoa sortzen duten antolakundeak; xede soziala duten enpresa tradizionalak, «enpresen erantzukizun sozial klasikotik haratago doazen» enpresa gisa identifikatzen direnak edo «gizartearen nahiz ingurumenaren gaineko inpaktu positiboaren ikuspegitik negozioak egiteko molde berriak» garatzen dituztenak; eta «pertsonek behar espezifikoetara gehiago orientatzen» saiatzen diren edo «merkatuko metodoak erabiliz zerbitzu publikoak sortzen laguntzeko» garaian herritarren parte-hartzearen aldetik berrikuntza lortu nahi duten publikoko erakundeak.

Ikuspegi enpirikoari dagokionez, laugarren sektore baten osagaitzat jo litezkeen sektoreko berezko dinamika bakoitza bereizteak dakarren zailtasunak erabat mugatzen ditu laugarren sektoreari buruzko ikerketak egiteko aukerak. Hala, laugarren sektoreari buruz eman ohi diren adibideek (nazioartean, Estatu-nahiz erkidego-mailan eta maila lokalean) beste azterketa batzuetan «enpresa sozial», «ekonomia sozial», «ekonomia solidario» edo

«sektore publikoko berrikuntza sozial» gisa identifikatu ohi direnei lotutako dinamikak ere jasotzen dituzte. Formulazio kontzeptual desberdinetarako kasu berberak erabiltzeak aberastu egiten du eztabaida, baina, aldi berean, nahasmena dakar eskuhartze sozialeko proposamenak edo ikerketa akademikoko aztergaiak identifikatu eta zehazteko garaian.

Azterketa honetako ataletan azaldu dugunez -landa-lanari buruzko atalean bereziki—, EAEn ere dinamika horiek guztiak aurkitzen ditugu. Ikuspegi kontzeptualetik ikusten dugunez *laugarren sektorea* terminoa oso gutxi erabiltzen da esparru akademikoan edo halakotzat sailkatu litezkeen ekimenen protagonisten artean. Adibide zehatzei dagokienez, zaila egin zaigu kasu zehatzen zerrenda egitea ekonomia sozial eta solidarioari edo enpresa sozialei buruzko azterketa batean sartuko liratekeen kasu gehiegi jaso gabe. Gauza bera gertatu zaigu enpresa handi zein erdi eta txikiei, administrazio publikoei (eta esku hartzeko dituzten tresnei) eta GKEei dagokienez ere.

Azterketa honetan finkatu ditugun helburuei dagokienez, honako hau ondorioztatu dezakegu, beraz: EAEn kasuan aztertu ditugun iritziak eta egoera bera zertan den ikusita, gure testuinguru honetan, hiru sektore klasikoetatik sortzen diren dinamika kolektiboak probatu eta bateratzeko lekua eskaintzen duten eta jardunbideak biltzen dituen eztabaidarako eta bat egiteko gunea izatea da laugarren sektoreari ongien erantzuten dion definizioa. Alegia, aztertutako eragile eta erakundeen egungo egoera eta ibilbidea kontuan hartuta, aztergai honen hasieran (sarrerako kapituluan) proposatutako hipotesien arteko hirugarrena da egokiena hemen. Hipotesi horretan sakonduz gero, eta azterketan jasotako gogoetak oinarritzat hartuta, bereizgarri hauek aurkitzen ditugu «bat-egite espazio» honetan:

1. *Taldean jarduteko eta bat egiteko borondatea biltzen duen espazioa da.* Berez tautologia bat eman dezakeen arren, komeni da azpimarratzea laugarren sektoreak EAEn zentzurik izango badu (eta, hortaz, hari buruz gogoeta egiteak mereziko badu), taldean lan egiteko eta helburuak, esfortzuak eta estrategiak partekatzeko eragileak beharko dira. Logika horri jarraiki lan egiten duten eragile sozial eta ekonomikoen sare trinko

eta esanguratsua beharko da. Horretarako, orain arte egon ez diren topaguneak eta lankidetzaz-prozesuak jarri beharko dira abian, eta Innobasquek Laugarren Sektorearen Sustapen eta Garapenerako Partzuergoa martxan jartzeko asmoa du, helburu horretan laguntzeko.

2. *Espazio «ez diluitzailea».* Laugarren sektoreak zentzurik izango badu, bat-egitean oinarritu beharko du, ez erakunde bakoitzaren izaera ezabatu eta diluitzeko asmoan. Hala, laugarren sektorean aritzeak ez du esan nahiko bertan diharduten eragileek beren esperientzia eta historia narratiba berri batekin idatzi beharko dutenik. Areago, espazio honek berau osatzen duten erakundeen nortasun partikularrak ikusteko eta indartzeko duen ahalmenaren arabera izango da bere potentziala, hein handi batean.
3. *Esku-hartze eraldatzaileko espazioa:* Laugarren sektoreak dinamika eraldatzaileak ahalbidetzeko topalekua izan behar du. Gizarte justuago eta solidarioago baterantz jotzen laguntzen duten dinamika partekatuak izango dira ardatz nagusia, oraingo eta geroko belaunaldiak eta planetako gainerako izaki bizidunak kontuan hartuta. EAeko laugarren sektoreak, beraz, ez du zentzu handirik izango beren kasa zilegitasun soziala (edo komertziala) lortzeko gai ez diren esku-hartze ereduak edo jardunbide partikularrak akritikoki legitimatzeko espazioa bihurtzen bada.
4. *Espazio gatazkatsua berez:* Aurreko ezaugarriari jarraiki, eta laugarren sektoreak dinamika eraldatzaileak bideratu nahi dituen aldetik, bere baitako gatazka eraldaketarako iturritzat hartu behar du eta, hortaz, eraldatu nahi denari eta egin nahi den bideari buruzko ikuspegi komuna osatu beharko du. Ikuspegi horri jarraiki, itxurazko adostasunean oinarritutako espazio gisa kudeatzeari uko egin behar dio laugarren sektoreak, eta desadostasunean oinarritutako eztabaida publikoak bultzatu behar ditu.
5. *Parte-hartzeari eta gardentasunari irekitako espazioa:* Bat egiteko espazioa den aldetik, eta aurreko elementu guztiak kontuan hartuta, parte-hartzea eta besteen iritzia onartzen duen espazioa izan behar du laugarren sektoreak, eta

gardentasunez jokatu behar du proiektu komune, bere logikari eta balioa eta erabilera soziala sortu eta banatzeko moduari dagokienez.

Hemen aurkeztu ditugun ezaugarriak eztabaidatu egin daitezke, noski, eta honako ideia hau dute oinarrian: EAEko laugarren sektoreak zentzu kontzeptualik eta erabilera praktikorik izango badu, besteek eskaintzen ez duten balioa eskaini beharko du, edukirik gabeko kontzeptu berri bat izan beharrean (interesa duten eragilerik ez dagoelako) edo ibilbide historiko luzea, jardunbide ondo errotuak eta termino finkatuak biltzen dituen hitz hutsa izan gabe.

Ildo horretan, txosten honen egileak erdibidean kokatzen gara: ez dugu esaten hemen laugarren sektore gisa definitzen den horretara hurbiltzen gaituen jardunbide eta aliantza berririk ez dagoenik, baina, era berean, ez dugu esaten *laugarren sektorea* kontzeptuaren inguruko jardunbide horiek *de facto* egon badaudela, berezko nortasuna dutela eta denek partekatzen dituztela. Alegia, gauza bat da hiru sektore tradizionalerako erakundeetatik datozen kudeaketa-jardunbide batzuk egotea, ohiko mugak auzitan jartzen dituztenak nolabait, eta beste zerbait da esatea horrek agerian uzten duela jardunbide horiei guztiei «izendapen homogenea» ematen dien laugarren sektore baten sorrera. Gauzak aldatzen ari dira, edo aldatu daitezke, baina horrek ez du ezinbestean ekarriko laugarren sektore gisa ezagutzen denaren sorrera, nahiz eta balitekeen ere hori gertatzen.

Laugarren sektoreari buruzko proposamen honek eztabaida ugari pizten du, noski, eta halakoak hurrengo azterketetan eta ikerketa- eta ikaskuntza-proiektuetan argitu beharko dira. Zehatz-zehatza izateko asmorik gabe, hona hemen sortu diren galderetako batzuk:

- Zein da laugarren sektorea (hemen formulatu dugun moduan ulertuta) sustatzeko edo haren barruan kokatzeko benetako interesa EAEko eragile ekonomiko eta sozialen artean?
- Azkenean zein izango da elementu dinamizatzailea, hau da, ondorio hauen 1. puntuaren amaieran aipatutako partzuergoa?



- Sektore publikoak lagarren sektorearen motorra izan behar du, ala beste kide bat gehiago gainerako sektoreetako eragileekin batera?
- Zein dira proiektu kolektiboak sustatzeko tresna egokiak?
- Zein d(ir)a adierazle egokia(k) sustatutako ekimenek sortutako balio ekonomiko eta soziala bermatzeko eta balio hori norbereganzeko?
- Zein dira tresna egokiak testuinguru honetan sustatutako ekimen eta prozesuak komunikatu eta balioztatzeko?

## 8.

### ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ARRIETA HERAS, B. eta DE LA CRUZ AYUSO, C. (2005): «*La dimensión ética de la Responsabilidad Social*», Serie Ética, 12. libk., Ed. Universidad de Deusto, Bilbao, 411-06.
- ASKUNZE, K. (2007): Economía solidaria, in CELORIO, G. eta LÓPEZ DE MUNAIN, A. (arg.): «*Diccionario de Educación para el Desarrollo*». Ed. HEGOA, Bilbao, 107-113.
- ASPEN INSTITUTE eta W.K. KELLOGG FOUNDATION: «*The Emerging Fourth Sector*».
- BALTIMORE (1999): The Johns Hopkins Center for Civil Society Studies.
- BAREA (1990): «*Conceptos y agentes de la Economía Social*», CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa. 8. zk. 109-117. orr.
- BAREA eta MONZÓN (2008): *Economía Social e inserción de las personas con discapacidad en el País Vasco*. Fundación BBVA.
- BISHOP, M. eta M. GREEN (2008): *Philantropicapitalism. How Giving Can Save the World*, A&C Black, London.
- BORZAGA, C. eta DEFOURNY, J. (2001): *The emergence of Social Enterprise*. Ed. Routledge: London.
- BRUGUÉ, Q. eta GOMÀ, R. (arg.) (1998): *Gobiernos locales y políticas públicas*. Barcelona: Ariel.
- BUENO, E.; MURCIA, C.; PIZARRO F. (2011): *Claves económico-empresariales para la definición de la Innovación Social*. IIIº Congreso Internacional de Investigación en Economía Social de CIRIEC. La Economía Social, pilar de un nuevo modelo de desarrollo económico sostenible.
- CASSON, M. (2005): Entrepreneurship in D. HERDENSON (arg.), *The concise Encyclopedia of Economics*. Liberty Fund: Library of Economics and Liberty. Disponible en <http://www.econlib.org/library/Enc/Entrepreneurship.html>.
- CHAVES, R. eta MONZÓN, J. (2001): *Economía Social y Sector No Lucrativo: actualidad científica y perspectivas*. CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa. 37. zk., 7-33.
- CHAVES, R. eta MONZON, J. (2008): *La Economía Social en la Unión Europea*. Comité Económico y Social Europeo.

- COMISIÓN EUROPEA (2010): *Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones*. Bruselas, 2010/10/06. SEC(2010) 1161.
- DA ROS, G.S. (2007): *Economía Solidaria: aspectos teóricos y experiencias*. Unircoop, 5. libk., 1. zk., 9-27.
- DEES, J. G. (1998): *The meaning of «social entrepreneurship»*. Stanford University: Draft Report for the Kauffman Center for Entrepreneurial Leadership, 6. orr.
- DEES, J.G., EMERSON, J. eta ECONOMY, P. (arg.). (2002): *Strategic Tools for social entrepreneurs: Enhancing the performance of your enterprising nonprofit*. New York: John Wiley & Sons, Inc.
- DEFOURNY, J., FAVREAU, L. eta LAVILLE, J.L. (zuz.) (1997): *Inserción y nueva Economía Social*, CIRIEC-España, Valencia.
- DEFOURNY, J. (2001): *Introduction. From third sector to social enterprise*. In BORZAGA, C. eta DEFOURNY, J. (2001): *The emergence of Social Enterprise*. (1-28. orr.) London: Routledge.
- DEFOURNY, J. eta PESTOFF, V. (arg.) (2008): *Images and Concepts of the Third Sector in Europe*. EMES Working paper 8/02. zk.
- ELKINGTON, J. (1994): *The Triple Bottom Line*.
- ELKINGTON, J. (1997): *Cannibals with Forks: the Triple Bottom Line of 21st Century Business*. Capstone: Oxford.
- EMAÚS FUNDACIÓN SOCIAL eta SETEM (2008): «*Guía para organizaciones sociales sobre trabajo en comercio justo*».
- EVERS, A. eta LAVILLE, J.-L. (2004): «*Defining the Third Sector in Europe*» in EVERS, A. eta LAVILLE, J.-L. (arg.). *The Third Sector in Europe* (11-42. orr.). Cheltenham: Edward Elgar publishing.
- FUNDACIÓN LUIS VIVES (2009): *IV Foro de debate*.
- GAINZA, X. (2009): *Instituciones y territorio: las Agencias de Desarrollo Local vascas en la promoción económica local*.
- GARAPEN (2000): Memoria. Bilbao: Garapen.
- GARAPEN (2009): Memoria. Bilbao: Garapen.
- GARDETTI, M.A. (2008): «*Hacia la Co-creacion de Valor y desarrollo*»

- GEM (2010): *Informe Ejecutivo GEM España*. 10. kapitulua. Emprendimiento de índole social en España, 138-142. orr.
- GUERRA, P. (2004): *Economía de la Solidaridad. Una introducción a sus diversas manifestaciones teóricas*. In <http://www.trueque-marysierra.org.ar/biblioteca2.htm>.
- GUIBERT, J.M. (2007): «*Empresa y Responsabilidad Social en Gipuzkoa*». Ed. Universidad de Deusto, San Sebastián.
- GUTIÉRREZ RUBÍ, A. (2011): «*Filopolítica*». Hemen eskuratu daiteke: [http://www.gutierrez-rubi.es/wp-content/uploads/2011/01/libro\\_FILOPOLITICA\\_completo.pdf](http://www.gutierrez-rubi.es/wp-content/uploads/2011/01/libro_FILOPOLITICA_completo.pdf).
- HAINBATEN ARTEAN (2010): *Sectores de la nueva economía 20+20. Economía abierta*. EOI: Madrid. Hemen eskuratu daiteke: <http://bit.ly/economiaabierta>.
- HAMMOND, A.; KRAMER, W.; KATZ, R.; WALKER, C. (2008): *The next four billions Market Size and Business strategy at the base of Pyramid*.
- HANSMANN, H. (1986): «*The Role of Nonprofit institutions*». In Rose-Ackerman, S. (arg.) (1986): *The Economics of Nonprofit Institutions*, Oxford University Press, 57-89. orr.
- HART, STUART L. (1994): «*How Green Production Might Sustain the World*». Northwest Environmental Journal.
- HART, STUART L. (2005): «*Capitalism at the crossroad*».
- HART, S.; AHUJA, G. (1996): «*Does it pay to be green? An empirical examination of the relationship between emission reduction and firm performance*», *Business Strategy and the Environment*.
- INNERARITY, D. (2006): *El nuevo espacio público*. Espasa Calpe: Madrid.
- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN. DANIEL INNERARITY, ANDER GURRUTXAGA (2009): «*¿Cómo es una sociedad Innovadora?*».
- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN. VARIOS AUTORES (2010): «*Estrategia de investigación en Innovación Social del País Vasco*».
- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN (2011): «*Estrategia de Innovación Social. Una ventana de oportunidad para Euskadi*»

- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN (2011): «*La Empresa Social Innovadora*»
- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN. PABLO SÁNCHEZ, FERNANDO CASADO, JORDI VIVES eta JULIANA MUTIS (2011): «*La Base de la Pirámide desde el prisma de Euskadi. Diagnóstico sobre el potencial de Innovación en la Base de la Pirámide*».
- INNOBASQUE, AGENCIA VASCA DE INNOVACIÓN. HAINBATEN ARTEAN (2011): «*RSE y Competitividad en Euskadi*».
- JENKINS, B. eta ISHIKAWA, E. (2010): *Scaling Up Inclusive Business*.
- KLEIN, N. (2007): *La doctrina del shock*. Paidós: Barcelona.
- LAVILLE, J.-L. eta EME, B. (2004): «*Renovación y diversidad de la prácticas*». In Laville J.-L. (bild.): *Economía Social y Solidaria. Una visión europea*. 35-50. orr. Editorial Altamira. Argentina.
- LIPOVETSKY, G. (2007): *La felicidad paradójica*. Anagrama: Barcelona.
- LIPOVETSKY, G. eta SEROY, J. (2010): *La cultura-mundo*. Anagrama: Barcelona.
- MEMORIA 2009 de Cáritas Española sobre el derecho social: vivienda. <http://www.caritas.es>.
- MICHAEL BARRAT BROWN (1998): «*Comercio justo, comercio injusto. Hacia una nueva cooperación internacional*».
- MONZON, J.L. (2006): *Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector*. CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa. , 56. zk., 9-24.
- MONZON, J.L. (2008): *Grandes cifras de la Economía Social*. CIRIEC-España, Centro de Investigación e Información sobre la Economía Pública, Social y Cooperativa.
- MORALES GUTIÉRREZ, A. (2009): *Innovación Social: un ámbito de interés para los servicios sociales*. Seminario sobre Innovación Social en el ámbito de los Servicios Sociales, Documento Marco.
- MONZÓN, J.L. eta DEFOURNY, J. (arg.) (1992): *Économie*

*Sociale-The Third Sector*, De Boeck-Wesmael, Brussels.

- MOULAERT, F. eta AILENEI, O. (2005): «*Social Economy, Third Sector and Solidarity Relations: a conceptual synthesis from History to Present*», Urban Studies 42. libk., 11. zk., 2037-2053, urria, Routledge.
- NICHOLLS, A. eta CHO A.H. (2006): *Social Entrepreneurship: The Structuration of a Field*, in A. Nicholls (arg.), Social entrepreneurship: new models of sustainable social change. Oxford. New York: Oxford University Press.
- NICHOLLS, A. (2006), *Social entrepreneurship: new models of sustainable social change*. Oxford. New York: Oxford University Press.
- NYSENS eta LAVILLE (2001): *The social enterprise. Towards a theoretical socio-economic approach*. In BORZAGA, C. eta DEFOURNY, J. (2001): *The emergence of Social Enterprise*. (312-332. orr.) London: Routledge.
- PEARCE, J. (arg.) (2003): *Social Enterprise in Anytown*. Calouste Gulbenkian Foundation: London.
- PEREDO, A., MCLEAN, M. (2006): «*Social entrepreneurship: A critical review of the concept*». Journal of World Business 41 (2006) 56–65.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J.C.; ETXEZARRETA ETXARRI, E.; GURIDI, L. (2009): *Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate*. REAS-Papeles de Economía Solidaria, 1. zk.
- PINE, J. eta GILMORE, J. (1999): *The Experience Economy*. Harvard Business School Press, Boston, 1999.
- PRALAHAD, C.K.; HAMMEL, G. (1991): «*Corporate imagination and expeditionary marketing*» Harvard Business Review.
- PRALAHAD, C.K.; HAMMEL, G. (1996): «*Competing for the future*», Harvard Business School.
- PRALAHAD, C.K. (1998): «*The end of corporate Imperialism*», Harvard Business Review.
- PRAHALAD, C.K., S.L. HART (1999): «*Strategies for the bottom of the pyramid*».
- PRALAHAD, C.K. (2002): «*The Fortune at the Bottom of the Pyramid*», Strategy+Business 26. zk.

- RODRÍGUEZ CABRERO, G. (2004): *El Estado del Bienestar en España: debates, desarrollo y retos*, Editorial Fundamentos, Madrid.
- ROSE-ACKERMAN, S. (1996): «Altruism, nonprofits, and economic theory», *Journal of Economic Literature*, 34. zk., 701-728. orr.
- SAJARDO, A. eta CHAVES, R. (2006): *Balance y tendencias en la investigación sobre Tercer Sector No Lucrativo. Especial referencia al caso español*. CIRIEC-España Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa. 56. zk., 87-116. orr.
- SALAMON, L.M. (1997): *The United States*, in SALOMON, L.M. eta ANHEIER, H.K. *Defining the Nonprofit Sector: A Cross-National Analysis*, Johns Hopkins Nonprofit Sector Series, 4. libk., Manchester University Press, Manchester, 280-319. orr.
- SALAMON, L.M., ANHEIER, H.K., et al. (1999): *Global civil society. Dimensions of the Nonprofit Sector*.
- SANCHEZ P., CASADO F., VIVES J., MUTIS (2011): «La Base de la Pirámide bajo el prisma de Euskadi».
- SANTESMATES MESTRE, M. (2009): «Diseño y Análisis de encuestas en investigación social y de mercados». Ed. Pirámide: Madrid.
- SANTIAGO MARTÍNEZ OROZCO (2000): «Comercio justo, comercio responsable».
- SEELOS, C. eta MAIR, J. (2005): *Entrepreneurs in service of the poor- Models for Business contribution to sustainable development*. In *Business Horizons* 48(3): 247-252. orr.
- SETEM (2008): «El comercio justo en España 2008. Canales de importación y distribución». Icaria Editorial.
- SETEM eta CECJ (Coordinadora Estatal de Comercio Justo) (2009): «El comercio justo en España 2009».
- SIMANIS, E.; HART, S.; ENK, G.; DUKE, D.; GORDON, M.; eta LIPPERT, A. (2005): «Base of the Pyramid Protocol». 1. argitaraldia.
- SIMANIS, E.; HART, S. (2008): *Base of the Pyramid Protocol*. 2. argitaraldia.
- SCHUMPETER, J.A. (1975): *Capitalism, Socialism and Demo-*



- cracy*. New York. Harper.
- SPEAR, R., DEFOURNEY, J., JAVREAU, L. eta LAVILLE (arg.) (2001): *Tackling Social Exclusion in Europe. The contribution of the Social Economy*, Ashgate, Aldershot.
  - VECIANA (2008): «*Incorporación de elementos transformadores en las actividades económicas surgidas del Tercer Sector*». Bilboko Ekonomia Kritikoari buruzko XI. Jardunaldietan aurkeztutako komunikazioa.
  - WEISBROD, B. (1975): «*Toward a Theory or the Voluntary Nonprofit Sector in a Three-Sector Economy*». In PHELPS, S. (1975): *Altruism, Morality, and Economic Theory*, Ed. Rusell Sage Foundation, New York.
  - YOUNG, D. (1983): *If not for Profit, for What?* Lexington Mass, Markham.
  - Bidezko merkataritzako zigiluak eta berme-sistemak
  - <http://www.elblogsalmón.com>
  - <http://www.unglobalcompact.org/>
  - <http://www.ilo.org/global/lang--es/>
  - <http://ec.europa.eu/social/>
  - <http://www.enalquiler.com/>
  - <http://www.alokabide.com/>
  - [www.fairtrade.net](http://www.fairtrade.net)
  - [www.kidenda.org](http://www.kidenda.org)
  - [www.ropalimpia.org](http://www.ropalimpia.org)
  - [www.setem.org](http://www.setem.org)



